

Jakintza-arloa: Psikologia

Haur euskaldunaren nortasun kulturala

Egilea: **FERNANDO OLABARRIETA ARTETXE**

Urtea: 2007

Zuzendaria: PEDRO HERNANDEZ HERNANDEZ

Unibertsitatea: UPV-EHU

ISBN: 978-84-8438-126-6

Hitzaurrea

Aspaldian dabilta gure buruan honako eta antzeko galderak: kultura jakin bateko jendeak buru-molde bereziak ditu? Hau da, kulturaren arabera egituratutako modu kognitibo-emozional bereziak ote ditugu, errealitatea aurreikusteko, errealitateari aurre egiteko, errealitatea ebaluatzeko edo errealitatea azaltzeko? Euskal inguruneak, kulturak edo bizimoduak errealitatearen ikuspegi berezi bat ematen dute?

Berez, ez dirudi planteamendu zentzugabea, funts sendoa duen planteamendu bat baizik. Gure ustez, komunitateen arteko alde kulturala zenbat eta handiagoa izan, hau da, komunitateen sineskeretan, hezkuntza-jardueretan edo bizimoduetan zenbat eta desberdintasun handiagoak izan, orduan eta alde nabariagoak izango dira komunitate horietako herritarren balioen eta buru-moldeen artean ere. Azken batean, buru-moldeak “formateatu” egiten baitira, ez soilik norberaren esperientzia pertsonalaren arabera, baita sozialki ere, norbera jaio eta hazi den kultura-giroaren eraginaren arabera.

Sarrera gisako galdera eta gogoeta hauei erantzuna ematen saiatzeko, Hernándezen buru-moldeen teorian oinarritu gara, eta oinarri horretatik abiatuta diseinatu dugu doktorego tesi honetan garatzen den lan teorikoa eta enpirikoa.

Lanaren garapena Pedro Hernández *Guanir* tesiaren zuzendariari sor diot, berak utzi baitit bere teoria eta, batez ere, berak eman baitit bere konfiantza. Eta ezingo dut inoiz ahaztu Enrique Freijo (1926-2001) maisu eta laguna, bera izan baita nire bizitza korapilatsuan eragin gehien izan duen pertsonetako bat; berak erakutsi zidan, beste hainbat gauzaz gainera, nire hizkuntza, nire kultura eta nire herria maitatzen; berak trebatu ninduen nire sustrai antropologikoak bilatzen, eta horretara bultzatu ere; bera izan zen *Gizon Euskaldunaren Profila*, Jose Migel Barandiaranen arabera izenburuko nire lizentzia-tesinaren zuzendaria eta, nola ez, bera izan zen psikologia kulturalaren mundu liluragarriako atea zabaltzeko zuzendariaren zuzendaria ere, nahiz eta, bere zoritxarrerako, ezin izan nuen hura hil aurretik amaitu. Testuinguru horretan osatuz joan da, beraz, lan hau; hortxe ikusten da haren gaiaren arrazoia eta ilusioa, berak sarri esan ohi zidan esaldi batean labur daitekeena: “Hara, gazte, ezin izango dituzu munduko kulturak ezagutu eta estimatu, baldin eta zeure kultura ezagutzen eta maitatzen ez baduzu”.

Donostia, 2007ko ekainak 28

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**DOKTOREGO TESIA
(I. LIBURUKIA)**



PSIKOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE PSICOLOGIA

**HAUR EUSKALDUNAREN
NORTASUN KULTURALA**

FERNANDO OLABARRIETA ARTETXE

DONOSTIA, 2007ko APIRILA

**DOKTOREGO-TESIA
(I. LIBURUKIA)**



PSIKOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE PSICOLOGIA

***“HAUR EUSKALDUNAREN
NORTASUN KULTURALA”***

**PSIKOLOGIA FAKULTATEA
OINARRIZKO PSIKOLOGIA PROZESUAK
ETA HAIEN GARAPENA SAILA**

**EGILEA: FERNANDO OLABARRIETA ARTETXE
ZUZENDARIA: PEDRO HERNÁNDEZ HERNÁNDEZ**

DONOSTIA, 2007ko APIRILA

AURKIBIDEA

I. LIBURUKIA: OINARRI TEORIKOAK
ETA IKERLAN ENPIRIKOA

SARRERA: HIPOTEKA-KREDITU BATEN GISARA 11

I. ATALA: OINARRI TEORIKOAK

1. KAPITULUA: KULTURA ETA GARAPEN KOGNITIBOA 21

 1.1. Sarrera 21

 1.2. Kulturaren eta garapen kognitiboaren arteko harremani
 buruzko gaur egungo ikuspegiak 25

 1.2.1. *Adimena eta kultura* 27

 1.2.2. *Adimena, kultura* 30

 1.2.3. *Kultura, adimenean* 46

 1.2.4. *Adimena eta kultura, pertsonan* 47

2. KAPITULUA: BURU-MOLDEEN TEORIA.

 MOLDE KOGNITIBO-AFEKTIBOAK 51

 2.1. Buru-moldeen teoriaren aurrekariak 51

 2.1.1. *Oinarri konstruktivistak* 51

 2.1.2. *Intelligentziaren teoria garaikideak* 59

 2.1.3. *Intelligentzia emozionalaz harago* 64

 2.2. Buru-moldeak: definizioa 68

 2.3. Buru-moldeen ezaugarriak 70

 2.4. Buru-moldeen sailkapena 75

 2.5. Laburpen gisara 86

II. ATALA: IKERLAN ENPIRIKOA

3. KAPITULUA: IKERLANAREN DISEINUA ETA GARAPENA .	93
3.1. Helburuak	93
3.2. Hipotesiak	94
3.2.1. Hipotesi orokorra	94
3.2.2. Hipotesi espezifikoak	95
3.3. Lagina	96
3.4. Tresnak	100
3.4.1. <i>Taginaste</i>	100
3.4.2. <i>Tamai</i>	114
3.5. Prozedura	118
4. KAPITULUA: IKERLANAREN EMAITZAK	123
4.1. Emaitzak: <i>Taginaste</i> (item irekiak)	123
4.1.1. 1. <i>Talde kulturala</i>	124
4.1.2. 2. <i>Talde kulturala</i>	131
4.1.3. 3. <i>Talde kulturala</i>	135
4.1.4. 4. <i>Talde kulturala</i>	138
4.1.5. 5. <i>Talde kulturala</i>	143
4.1.6. 6. <i>Talde kulturala</i>	148
4.1.7. 7. <i>Talde kulturala</i>	152
4.1.8. 8. <i>Talde kulturala</i>	157
4.2. Emaitzak: <i>Taginaste</i> (item itxiak)	164
4.3. Emaitzak: <i>Tamai</i>	172
4.3.1. 1. <i>Talde kulturala</i>	172
4.3.2. 2. <i>Talde kulturala</i>	173
4.3.3. 3. <i>Talde kulturala</i>	174
4.3.4. 4. <i>Talde kulturala</i>	175

4.3.5. 5. Talde kulturala.....	175
4.3.6. 6. Talde kulturala.....	176
4.3.7. 7. Talde kulturala.....	177
4.3.8. 8. Talde kulturala.....	177
5. KAPITULUA: EZTABAIDA ETA ONDORIOAK	179
LIBURU AIPAMENAK	195

II. LIBURUKIA: ERANSKINAK

1(A) ERANSKINA: tresnak (“Taginaste”)	8
1(B) ERANSKINA: tresnak (“Tamai”)	26
2. ERANSKINA: kategoria-sistema	38
3. ERANSKINA: lehenengo analisi faktoriala (faktoreak)	119
3.1. “Emozioak”	121
3.2. “Errealitatea”	138
3.3. “Besteak”	177
3.4. “Norbera”	199
3.5. “Moldeak eta erreakzioak”	232
3.6. “Eremu nagusiak, moldeak eta erreakzioak”	246
4. ERANSKINA: bigarren analisi faktoriala (faktoreak)	297

SARRERA

SARRERA: HIPOTEKA-KREDITU BATEN GISARA

*“Obra bat aztertzeke, garrantzi handikoa da, obra bera ezagutzea ez ezik,
obra horren testuingurua eta inguruabarrak ere ondo ezagutzea”.*

Esku artean duzun lan hau sortzeko prozesua aspaldi jarri zen abian. Lehenengo urratsak egiten hasi zirenetik lana argitara emango den garaira bitartean, askotariko gorabehera akademikoak eta pertsonalak bizi izan ditu egileak, eta garapen-prozesu luzea izan du obrak berak ere.

Salamancan hasi zen dena. Han igaro nituen bost urte ahaztezin haietan, zientzia psikologikoaren lehenengo oinarriak finkatu nituen nire adimen-moldeen inguruan. Aspaldikoa nuen joera hura, edonola ere; lagun bretoi batek, hamahiru urte nituela, psikologiaz zerbait azaldu eta jakintza horretan murgiltzera bultzatu ninduenez geroztikoa, hain zuzen ere.

Salamancan, gainera, diktadorea hil aurreko eta ondoko urte nahasi haietan, jende benetan zoragarria ezagutu nuen; batzarretan eta *manifetan* parte hartu nuen; ideiez, gogoetaz eta irudimenez gainezkako tertulietan, *zineforumetan* eta txikiteoetan hizlari eta, batez ere, entzule izan nintzen; *ezkerreko* liburuak irakurri nituen;

seminario-barnetegiko nire lozorrotik bizitzara esnatu nintzen; nerabe izateari utzi, eta are nerabeagoa egin nintzen.

Baina, Salamancan, irakasle bikain bat ezagutu, edo, hobeto esan, *berrezagutu* nuen, batez ere. Beste gazte askoren irakasle ere bazen gizon hura, baina niretzat, maisu eta lagun bihurtu zen, berehala; nire aita espiritualala eta intelektuala izan zen. Enrique Freijo (1926-2001) izan da, hain zuzen ere, nire bizitza korapilatsuan eragin gehien izan duten pertsonetako bat. Berak erakutsi zidan, beste hainbat gauzaz gainera, nire hizkuntza, nire kultura eta nire herria maitatzen; nire sustrai antropologikoak bilatzen trebatu eta horretara bultzatu ninduen; *Gizon euskaldunaren profila*, Jose Migel Barandiaranen arabera izenburuko nire lizentzia-tesinaren zuzendari izan zen; eta, nola ez, bera izan zen psikologia kulturalaren mundu liluragarriko atek zabaldu zizkidan tesi honen lehenengo zuzendaria ere, nahiz eta, bere zoritxarrerako, ezin izan nuen hura hil aurretik amaitu. Testuinguru horretan osatuz joan da, beraz, lan hau; hortxe ikusten da haren gaiaren arrazoia eta ilusioa, berak sarri esan ohi zidan esaldi batean labur daitekeena: “Hara, gazte, ezin izango dituzu munduko kulturak ezagutu eta estimatu, baldin eta zeure kultura ezagutzen eta maitatzen ez baduzu”. Esker ona adierazteko hitz hauek idazten hastean, bilbotar erraldoiarengana hegaldatu da nire oroimena, zuzen-zuzenean.

Zimendu horien gainean hasi zen eraikina altxatzen, beraz, eta horietatik ateratzen dira eraikinaren habeak, hormigoi armatuaren sendotasunaz –zilegi bekit irudizko adiera–. Eraikuntza-prozesuaren egitura teorikoaz eta enpirikoaz ari naiz, adimen-moldeez; baina aurrerago jardungo dugu horiei buruz, egonarri amaigabez molde horiek azaldu eta maileguan utzi dizkidan pertsonaz ari behar baitut orain. Pedro Hernandez *Guanir (Pello)* gai izan zen bere sustrai kanariar sakonetatik nire adimen euskalduna irakurtzeko, eta, bere argitasunaren, lanerako gaitasunaren eta saiamenaren bidez, nire gogoaren atea beste kultura batzuei zabaltzen irakatsi dit. Hala, bide luze honetan, zorte eta ohore handia izan da niretzat bi arkitekto eta zuzendari handi horien laguntza jaso izana, bi pertsona eta lagun bikainen laguntza jaso izana. Haien nigan izandako konfiantzari ez diodala huts egingo hitzematen dut.

Etxea eraikitzeko prozesuaren azalpenarekin jarraituz, ikasi dut, inork kontatuta eta esperientzia pertsonalaren bidez ere, badirela koordinatu beharreko beste gremio edo elementu ezinbesteko batzuk, toki bat behintzat bizigarria izan dadin. Adibidez, elkarreraginean eta ez hierarkikoki antolatuta, hormak, atea eta leihoak, argindarra eta berokuntza, sukaldea eta isurbideak... Horretan lagundu eta adoretu naute Arantxak eta Psikologia Fakultateko kideek, Joserrak eta Oinarrizko Psikologia

Prozesuak eta Garapena sailekoek eta, bereziki, Garapenaren eta Hezkuntzaren Psikologia arlokoek: Enrique, Marijose, Raquel, Luixa, Amaia eta Izarne. Gogoan ditut, baita ere, Felix eta bere aholku metodologiko baliagarriak; *Txiki*, eskuizkribua irakurtzeko eta zuzentzeko ausardia izan duelako; Luixa, tutore izatea onartu izanagatik, baldintzarik jarri gabe; Ana, bere eskergabeko laguntza eta bere irribarreagatik. Zorionekoa ni, hainbeste adiskide izateagatik horrenbeste lagun bikainen artean.

Gogoan ditut Ainhoa eta Juan Luis, beren doktoregoa –ekarpen baliagarri ugariz hornitua– utzi didatelako eta aukera eman didatelako *Etxadi familiakoa* izateko. Gogoan ditut Antonio eta haren familia, bere abegi kanariar mugagabe eta zintzoagatik, kategorizatzen erakutsi zidalako eta *kategoriako* gizona dela ikusarazi zidalako. Nola ahaztu Txeli eta Inma, hutsaren truke tresnak aplikatzen lagundu zidatenak. Gogora datozkit Juan Luis eta Bego ere, asko erakutsi didaten lankide, senitarteko eta lagunak. Ezinbestean aipatu behar ditut *Zorritzketan* eta *Ekidazu* elkarteetako adiskideak, nire jarduna jasateagatik eta nire bitxikeriak barkatzeagatik... Eta beste hainbat lagun eta adeitasunezko seinale. Horiei guztiei, biziki eskertzen diet, nagusiki, nirekiko adiskidetasuna, konfiantza eta pazientzia.

Baina prozesu eraikitzaileetan (edo eraikuntza-prozesuetan, irudizko adieraren bideari jarraituz) funtsezko pieza bat izaten da

gauzak ongi atera daitezen, edo, beste barik, egin daitezen. Eragilea edo sustatzailea, obra-maisua, aparejadorea... izan daiteke elementu hori, edo dena batera. Enrique Arranz, garbi daukat zuregatik ez balitz ez nintzatekeela egongo unibertsitatean, ezta tesi hau defenditzen ere. Ez dakit nola eskertuko dizudan hainbeste lan, pazientzia eta konfiantza, hainbeste laguntasun. Eta zuri, Rosa, eskerrik asko lagun ona zarela erakutsi didazulako, hainbeste urtean zure senarraren *izatezko bikote* izateko aukera eman didazulako, batere jeloskortasunik gabe, berez zuri zegozkizun denbora eta energia batzuk niri eskaintzen utzi diozulako.

Eta, epaimahai jakintsu eta ohoragarriak, betiere egoki irizten badio, *bizitzeko gai* epaiaren adierazpen sinboliko gisa, etxearen gailurrean erramu-adarra ezartzeko baimena eman aurretik, hipoteka-kredituaren kuotaren parte handi bat zehaztu beharra daukat oraindik. Nire familiarena: gurasoek gogor lan egin dute gure alde, ni ikasketak egin ahal izan nitzan, baita neba-arrebek ere, eta askotan niri zegokidan parte ere bete izan dute, nik ikasi eta goza nezan. Baina hemen eurak izendatu orde, badakit nahiago izango dutela euren ilobak eta seme-alabak aipatzea: Diego, Maite, Ainara, Itxaso, Judith, Lander, Atotz, Jokin, Ander, Amaia, Udane, Xabier, Jone Miren, Itziar, Miren eta Markel. Nire ilobak etxearen igogailua izan dira, nolabait esateko; gai baitira instant batean nire aldartea etxearen sototik goiko solairuraino goratzeko. Etxeko

guztien izenean, eta, amaitzeko, metaforari zentzua emateko, falta den bakarraren ordezkari gisa jardun nahi nuke, nire aitaren ordezkari gisa, igeltsero umila bera.

Ikertzen jarraitu beharko dut, horixe baitut kreditua ordaintzeko bide bakarra.

“...ta azken orduan isil-isilik, neure maite politari...”

Lezaman, 2006ko abenduaren 16an

I. ATALA:

OINARRI TEORIKOAK

1. KAPITULUA:

KULTURA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

1.1. SARRERA

Kultura jakin bateko jendeak buru-molde bereziak ditu, beste kultura batzuetako jendearenak ez bestelako buru-molde batzuk ditu? Hau da, kulturaren arabera egituratutako modu kognitibo-emozional bereziak ditugu, errealitatea aurreikusteko, errealitateari aurre egiteko, errealitatea ebaluatzeko edo errealitatea azaltzeko? Euskal inguruneak, kulturak edo bizimoduak errealitatearen ikuspegi berezi bat ematen dute? Ba al dago desberdintasunik euskal herritarrek eta euskal herritar ez direnek errealitatea interpretatzeko dituzten moduen artean? Euskal kultura-esparruko neska-mutilek, zehazki, badute beste kultura-esparru batzuetako neska-mutilekiko desberdintasun psikologikorik?

Berez, ez dirudi planteamendu zentzugabea, funts sendoa duen planteamendu bat baizik. Izan ere, komunitateen arteko alde

kulturala zenbat eta handiagoa izan, hau da, komunitateen sineskeretan, hezkuntza-jardueretan edo bizimoduetan zenbat eta desberdintasun handiagoak izan, orduan eta alde nabariagoak izango dira komunitate horietako herritarren balioen eta buru-moldeen artean ere. Azken batean, buru-moldeak “formateatu” egiten baitira, ez soilik norberaren esperientzia pertsonalaren arabera, baita sozialki ere, norbera jaio eta hazi den kultura-giroaren eraginaren arabera.

Bestalde, bitartekotza kulturalak aldaketa ebolutiboa adierazten du. Kognizioak eta kulturak elkarreaginean dihardute. Psikologia kulturalaren arabera, pertsonan oinarrituriko psikologia kulturalaren arabera, kognizioa eta kultura elkarren osagarri dira: kognizioa –egoera intentzionalen multzo gisa hartuta– eta kultura – mundu intentzionalen multzo gisa hartuta– elkarren osagarri dira. Era horretan, errealitatea era aktiboan interpretatzen du subjektuak.

Sarrerako atal honen lehen helburua Hernandezen (2002) *buru-moldeen teoriaren* oinarri teorikoak era laburtu eta sistematikoan azaltzea da. Oinarri horien jatorria gaur egun giza garapen kognitiboaren ezagutzan erabiltzen den testuinguru-eredu berria da. Hurrengo atalean, kultura eta garapen psikologikoa uztartzen dituzten eta testuinguru-eredu berria osatzeko lagungarri diren proposamen teoriko nagusiak aztertuko ditugu. Aurrerago, azken urteetan kulturaren eta adimenaren arteko harremanetan sakondu

duten ildo teoriko-metodologikoen analisi xehea egingo da. Eta, azkenik, *buru-moldeen teoriaren* hurbileneko aurrekari teorikoen berri emango dugu, teoria hori zehatz-mehatz aurkeztu eta analizatzeari ekin aurretik.

Azken urteetan, psikologia ebolutiboak, nagusiki *garapenaren psikologia* deituak, alde batera utzi izan ditu estadioen araberako eredu klasikoak, eta aldaketa psikologikoak azaltzeko eredu konplexu bati jarraitu dio, testuinguruari helduta (Valsiner, 2000; Garcia Madruga, 2002; Arranz, 2004). Garapen kognitiboari buruzko Piageten teoria oraindik ere erreferentzia orokor gisa baliagarria den arren, teoria horrek badu ahulgune nabari bat: hain zuzen ere, ezin heda edo orokor daitekeela teoria hura formulatu zen testuinguru kulturala ez den beste testuinguru kultural batzuetara. Aldaezin funtzionalen ekintza hainbat testuinguru kulturaletan edo askotariko giro adaptatiboetan aplika daiteke, inteligentzia moldatze edo adaptazio gisa hartzen duen ikuspegi piagetiarraren ildotik; baina egitura kognitiboak sendotzea ezinbestean egongo da giro adaptatibo bakoitzaren baldintza espezifikoen mende.

Testuinguruan oinarrituriko ikuspegi berri horren aurrekari historikoei dagokienez, bereziki aipatzekoa da K. Lewin berlindar psikologoaren *eremu-teoria* (1935). Teoria horretan, *haurraren bizi-eremuak* bere estrategia adaptatiboen eta egitura kognitibo goiztiarren osieran duen garrantzia nabarmentzen da. Hain zuzen

ere, teoria horren arabera, haurren garapena gertatzen den espazio fisikoari loturiko aldagaiek definitzen dute testuingurua.

Vigotskyk (1896–1934) egindako ekarpenei esker, testuinguruaren kontzeptualizazio berri bat finkatu zen. Kontzeptualizazio berri horren arabera, garapen bidean den gizakiak jaiotzatik bertatik bere generokideekin dituen elkarreraginen multzo nahasia da testuingurua. Sobietar egileak *goi-mailako prozesu psikologikoen jatorria* bilatzea proposatzen zuen (Vigotsky, 1935, 1979), marxismoaren tresna teorikoak baliatuta; eta hori eginez, esan liteke marxismoaren metodo historiko eta dialetikoa problema psikologiko bati aplikatzen diola, Marxek eta Engelsek (1966) gizarte industrializatuen analisiari aplikatu zioten bezalaxe. Giza sinbolo espezifikokoak bilatze horretan, Vigotskyk *goi-mailako prozesu psikologikoen jatorri bikoitzaren legea* eta *garapen hurbileko esparrua* printzipio ezagunak formulatu zituen. *Goi-mailako prozesu psikologikoen jatorri bikoitzaren legearen* bidez, sobietar egileak agerian utzi zuen gizabanakoak barneratutako ekintza bitartekotu batetik eratorria dela gizabanakoaren kontzientzia; maila intrapsikikoan dagoen guztia bitartekotza interpsikiko batetik eratorria dela, ezinbestean soziala den bitartekotza batetik eratorria. Kulturak izaera kolektiboko bitartekotza-tresna batzuk ematen dizkigu, eta subjektuak tresna horiek indibidualizatzen ditu, gero, barneratutako elkarreragin sozialaren bitartez. Rivièrek (1984)

aditzera eman zuenez, Vigotskyren ikuspegitik, gizabanakoa ez da sozializatzen, indibidualizatu egiten da, historikoki pertsona gisa eratzen da, bizitzan egokitzen zaizkion egoeren bitartez.

Gizarte-elkarrizketa garapen hurbileko esparruan gertatzen da; esparru hori gizabanakoak bere kabuz egin dezakeenaren eta kualifikazio-maila altuagoa duen kide baten laguntzaz besterik egin ezin duenaren arteko esparrua da. Horrela, gizabanakoak kulturalki partekatutako baina, aldi berean, norberaren esperientziaren galbahetik pasatutako trebetasunak, gaitasunak eta errealitatearen adierazpenak bereganatzen ditu.

1.2. KULTURAREN ETA GARAPEN KOGNITIBOAREN ARTEKO HARREMANEI BURUZKO GAUR EGUNGO IKUSPEGIAK

Lucariellok (1995) nabarmendu zuenez, gaur egun psikologia zientifikoan *psikologia kultural* gisa definitzen den joerak –Bruner (1991), Cole (1989, 1999) eta Shweder (1990) egileen lanetan zehaztuak– bide luzea egin du hirurogeiko hamarralditik, askotariko ikuspegi eta moldeei jarraituz. Joera horretan, funtsezko elementuak dira adimena, kultura eta pertsona, baina horien definizioan eta horien arteko harremanetan aldaketa ugari gertatu dira denboran zehar. Laburpen modura, lau eredu bereiz daitezke. Defini ditzagun, labur-labur, Lucarielloren (1995) eskutik. Lehen eredua “*adimena eta kultura*” eredua da, hirurogeita hamarreko

hamarraldiko ikerketetan erabilia. Hauxe du ezaugarri nagusia: adimena eta kultura elkarrekiko inolako loturarik ez duten bi entitate edo eraikuntza dira, elkarrengandik erabat bereizitako bi egitura. Adimena izaera logiko-zientifikoa duten trebetasun kognitibo abstraktuen multzo bat da, eta, hala, ikerketaren helburua aldagai kulturek trebetasun kognitibo horietan duten balizko eragina aztertzea da.

Bigarren ikuspegiari “*adimena, kultura*” deritza, eta adimena eta kultura elkarrengandik bereizezintzat hartzen ditu, bereizi ezinezko bi entitatetzat. Kultura berriro definitzen da, eta adimenak eta kulturak elkarreraginean diharduten praktika kultural gisa hartzen da; eta definizio berri horren ondorioz, praktika horiek analisi-unitate tradizioaletan, trebetasun kognitiboetan, duten eragina aztertzea litzateke ikerketaren xedea. Hirugarren ikuspegian, “*kultura, adimenean*” izenekoan, adimenak eta kulturak batera dihardutela jotzen da. Horrek hainbat ebidentzia utzi ditu agerian, pentsamendu narratiboaren ikerketan: kategoria kultural bat, adibidez narratiba, adimenari berez lotua da, eta horixe hartzen da analisi-unitate berritza. Laugarren eredu “*pertsonan oinarrituriko psikologia kulturala*” da. Eredu horren arabera, agente intentzionala funtzionamendu kulturalaren eta kognitiboaren barruan sartzen da. Pertsonak “*kulturalki partekatutako esanahi-markoen*” bidez interpretatzen eta eraikitzen dute kultura, eta marko horiek izango

dira, hortaz, analisi-unitateak. Lucariellok (1995) teoria zientifikoak jartzen ditu marko horien adibide gisa, erlatibitatearen teoria esaterako, edo arte-mugimenduak, adibidez kubismoa; eta gaur egun Mendebaldeko kulturen eratzten ari diren zenbait marko berri erantsi dakizkieke horiei, adibidez, kalitatearen kontzeptua, segurtasunarena eta abar.

Oinarri teoriko horren testuinguruan koka daiteke Hernandezen *molde kognitibo-afektiboen* edo *molde kognitibo-emozionalen teoria* (2002), lan honetan planteatuko den ikerketa enpirikoaren marko teorikotzat hartuko dena. Orain, aurrez azaldu berri ditugun ikuspegi horietako bakoitza aztertuko dugu.

1.2.1. Adimena eta kultura

Ikuspegi dikotomiko honetan (Lucariello, 1995), adimena kulturaz kanpoko alderditzat hartzen da, eta printzipio abstraktuen bidez pentsamendu zientifikoa eta arrazionala sortzen duen barne-prozesadore nagusi moduan definitzen da. Marko horretan sar daitezke *Laboratory of Comparative Human Cognition* (LCHC, 1983) laborategiaren eta Shwederren (1990) lanak, esaterako. Adibidez, abstrakzio-ahalmena sailkapen-atazetan aztertzen zen (Luria, 1979); arrazoibide deduktiboa, ahozko silogismoen bitartez; eta eragiketa logikoak –adibidez itzulgarritasuna eta dezentrazioa–, ataza piagetiarren bidez (Greenfield, 1966). Kulturari dagokionez,

Lucariellok (1995) dioenez, aldagai independente gisa hartzen zen kultura, eta adimena, berriz, mendeko aldagai gisa.

Marko dikotomiko horretan egindako lanak transkulturalak direla esan liteke, inolako eragozpenik gabe, aldagai independentean aldaketak egiteak ikerketaren kultura-markoa aldatzea eta aldaketa horiek gaitasun kognitibo jakin batzuetan duten eragina aztertzea dakarren neurrian. Greenfield eta Bruner egileek ama hizkuntza *Wolof* hizkuntza duten Senegalgo haurren sailkapen-gaitasuna aztertu zuten (1966); frantsesaren aldean, herrialde hartako jatorrizko hizkuntzak –haur haien ama-hizkuntzak– ez zuen kolorea eta forma adierazteko termino supraordinalik, eta horren ondorioz, frantses hiztunek ahalmen handiagoa zuten talde-ezaugarriei loturiko atribuzioak edo egozpenak sortzeko eta erabiltzeko; frantses hiztunek *wolof* hiztunek baino abstrakzio-ahalmen handiagoa zutela ikusi zen, beraz.

Eskolatzearen ondorioak ere ikertu zituzten; eskolatzeprosesuak Piageten kontserbazio-atazen garapenean zuen eragina aztertu zuen Greenfieldek (1966). Luriaren (1979) lanetan, alfabetatutako subjektuen eta alfabetatu gabeko subjektuen gaitasun kognitiboen arteko konparazioa ikus daiteke; errusiar ikertzaileak egiaztatu zuenez, testuingurutik kanpo ateratako bitartekotzatresnak erabiltzeko gaitasuna eta gizabanakoen eguneroko bizitzakoak ez ziren kategorizazioak –ezezagunak ziren

kategorizazioak– erabiltzeko gaitasuna askoz ere nabariagoa zen alfabetatutako subjektuen artean. Mota bateko eta besteko kultura-esparruak sobietar errepubliketan bilatu zituen. Mishraren (1997) lanean, bestalde, kulturak aldagai kognitiboetan, inteligentzia orokorrean, ikaskuntzan eta memorian, irakurketa-idazketaren garapenean, espazioaren kognizioan, problemen ebazpenean, arrazoibidean eta sormenean duen eraginaren azterketa aurkituko dugu.

Ildo horri jarraituz egindako lan berriagoak ere badira, adibidez, Pani eta Parida (2000) adituena. Indiako hainbat kultura-esparrutako laugarren ikasmailako hogeita hamar neska-mutilek osaturiko bi talderen gaitasun kognitiboak alderatu zituzten; lan horren emaitzen arabera, testuinguru ez-tribaleko neska-mutilen garapen kognitiboa nabarmenagoa da testuinguru tribaleko neska-mutilena baino.

Aipagarria da, ordea, eskema esperimental berari jarraituz egindako beste lan batzuetan arestian aipatutakoen kontrako emaitzak atera izan dituztela egileek. Horien artean dugu, adibidez, Piageten estadioen unibertsaltasuna aztertu zuena (Dasen, 1972), edo hizkuntza-kategorien eta gaitasun kognitiboen arteko independentzia agerian utzi zuena (Rosch, Mervis, Gray, Johnson, y Boyes–Braem, 1976). Hala, adimena eta kultura elkarrengandik bereizitako entitatetzat hartzen dituen ikuspegi honen barruko

kontraesanetatik abiatuta, marko teoriko konplexuagoa eratuz joan zen, adimenaren eta kulturaren arteko elkarreraginaren azterketari dagokionez. Ikuspegi dikotomiko horrek, kultura eta adimena entitate bereizitzat dituenak, mugatu egiten du horien arteko loturen eta horien arteko balizko elkarreraginen ulermena. Gainera, pertsona ez da kontuan hartzen, kultura eta kognizioa agente intentzionaletik bereizitzat hartzen direlako.

1.2.2. Adimena, kultura

Kulturaren eta adimenaren arteko harremanak aztertzeko gaur egun erabiltzen den beste ikuspegi bat Lucariellok (1995) *praktika eta jarduera kulturalen ikuspegia* izendatutakoa da. Ikuspegi honen eta ikuspegi dikotomikoaren arteko aldeak hauek dira: kulturaren definizioa bera eta kognizioaren eta kulturaren arteko erlazioaz duten ikuspegia. Ikuspegi honek, ordea, badu ezaugarri komun bat ikuspegi dikotomikoarekin: kategoria kognitiboak hartzen ditu neurketa-unitatetzat. Ikuspegi honen oinarrian aniztasun kulturalak kognizioan duen eraginari buruzko lanak daude; Gay eta Cole (1967) adituen lanak, hain zuzen ere. Lan horietan, testuingurua ataza psikologikoa inguratzen duen zera gisa definitzen da. Testuingurua, berehalako atazak eskatzen dituen baldintzen multzo gisa definituta, aldatu egin zen, exekuzioan ikusten ziren aldeak kultura-esperientziaren araberakoak ote ziren egiaztatzearen.

Adibiderik argiena, alderdi horretatik, sailkapenak egiteko portaerari dagokio. Sailkapen-ataza batean, arroz-ontziak erabili zituzten, bloke geometriko tradizionalekin batera, Liberiako praktika kulturaleri buruzko ikerketa batean arrozaren sailkapena kultura horretako ekonomia-jardueren muina zela aurkitu zutelako. Liberiarrak amerikar eskolatuek baino zailtasun handiagoa zuten forma geometrikoak sailkatzeko; arrozarekin, aldiz, kontrako emaitzak lortu zituzten. Emaitza horietatik ondorioztatu zutenenez, kognizioaren arloan, kulturen arteko aldeak edo desberdintasunak lotura estua du prozesu kognitibo jakin batzuk aplikatzen diren egoerarekin.

Lucariellok (1995) azaldu zuenez, testuinguruaren definizio hori problematiko gertatu zen (*LCHC*, 1983). Izan ere, jendearen eguneroko jarduerak testuingurutzat hartzen hasi ziren (Scribner eta Cole, 1981), prozesatze kognitiboa jarduerari buruz kontuan hartuta eta jardueraren arabera banatuta. Leontievez (1981) geroztik, jarduera kultural normatibizatu edo arautu gisa definitu ziren jarduerak, trebetasun eta ezagutza jakin batzuk aktibatzen dituzten ohiturei begira jarduteko molde, modu eta ordenari dagokionez (Scribner eta Cole 1981). Scribner eta Cole (1983) egileen arabera, jendearen eguneroko portaerari dagozkio kognizioa eta kultura; hala, praktika kulturalaren teoriak testuinguru kulturalak hartzen ditu kulturaren eta kognizioaren arteko harremanei buruzko

ikerketetako analisi-unitate gisa, eta ez gizabanakoak edo dimentsio kultural abstraktuak.

Scribner eta Colek (1981) ikuspegi horri heldu zioten alfabetatzeak eta eskolaldiak kognizioan dituzten ondorioei buruzko ikerketan (LCHC, 1983). Egile horiek zenbait alfabetatze-molde bereizi zituzten, rol funtzional jakin batzuk betetzeko zuten baliagarritasunaren arabera: eskola ingeles bateko alfabetatzea, eskola formalean; *VAI* idazketa indigenaren alfabetatzea – erakundeez kanpo transmititzen da eta ohar pertsonalak eta gutunak idazteko erabiltzen da *vai* hizkuntza–; eta idazketa *koranikoa*, Korana irakurri, errexitatu eta ikasteko erabilia. Eta funtzio espezifikoen arabera aldaera edo desberdintasun kognitiboak aurkitu zituzten. Adibidez, eskola koranikoko alfabetatzea gehikuntza- eta metatze-prozesu bati atxikia zen. Prozesu horren ezaugarriez jabetzeko, memoria-ataza gehiago sartu zituzten. Ataza horietan, eskola koranikoan alfabetatutako taldeak beste guztiek baino emaitza hobeak izan zituen. Eskolatzearen ondorioak praktika kulturalarekiko loturaren arabera ere interpretatu ziren. Adibidez, norberaren gaitasunaren oinarriak azaltzeko trebetasun handiagoa izatea ikasgelako diskurtso-moldeei egotzi zitzairen.

Saxek (1991) agerian utzi zuen Brasilen haur batzuek egiten duten gozoki-salmentaren eta salmenta-jardueren edo salmenta-

praktiken araberako matematika-gaitasun jakin batzuen garapenaren arteko lotura. Saxek (1991) eguneroko jardueretan agertzen edo eratzen diren bezalaxe ikertu zituen gizabanakoen helburuak; era berean, gizabanakoak bere helburuak lortzen dituenean molde kognitiboen eta funtzio kognitiboen artean gertatzen den trukea aztertu zuen; eta, azkenik, praktika batetik besterako transferentzia dei litekeena ikertu zuen, gizabanakoek praktika baten egiturazko alderdiak beste praktika baten helburuak betetzeko bereganatzean.

Praktika kulturalaren ikuspegiaren ildoari jarraituz egin zuen Scribnerrek (1986) bere proposamena; *praktika kulturalaren* ikuspegiari atxikitako situazionismoa saihesteko sortutako *pentsamendu praktikoaren modu* bati buruz dihardu proposamen horrek. Nahiz eta moduek prozesu kognitiboen orokortze adierazgarri bat dakarten. Kognizio-moduek jarduera-testuinguru ororen inguruan dihardute; alderdi horretatik, testuinguruaz haragokoak dira. Pentsamendu praktikoa jarduera praktikoa guztietan aktibatzen da, uste izatekoa denez.

Pentsamendu praktikoa pentsamendu teoriko edo formaletik bereizia da; pentsamendu teoriko edo formala ikuspegi dikotomikoak proposatzen duen pentsamendu zientifiko abstraktuaren modukoa da. Inteligentzia praktikoa trebetasunen bat eskatzen duten jarduera kulturaletan bezalaxe arrazoitzea da.

Pentsamendu hori jardueren barruan dago. Instrumentala da, eta jarduera-helburuak lortzeko baliagarria; Scribnerrek (1986) esnetegi bateko langileen jarduerak aztertu zituen, eta pentsamendu praktikoaren ezaugarriak aurkitu zituen; adibidez, problemak berriro formulatzea, tasunen edo testuinguruaren arabera malgutasuna, eta giroaren eragina, problemak ebaztean.

Okamoto, Case, Bleiker eta Hendersonen (1996) lanean agertzen den planteamenduak giza adimenaren barruan izaera unibertsaleko egitura zentral batzuk, adibidez adierazpen-ahalmena, eta kultura bakoitzaren berezko adimen-egiturak biltzen ditu; adimen-egitura horiek gaitasun kognitibo komun baten kulturaren arabera aldaera gisa ere har daitezke. Testuinguru teoriko horretan, lau eta hamabi urteko txinatar eta kanadar haurren artean alde nabariak daudela erakusten duten datuak eman zituzten. Herrialde bateko eta besteko eskola curriculumean marrazketa-jarduerari buruz dauden aldeak direla-eta txinatar hezkuntza-sisteman berebiziko garrantzia du marrazketak-, txinatar haurrek kalitate hobeko marrazkiak egiten dituzte txikitatik, marrazkietan adierazitako xehetasunen kopuruari dagokionez eta marrazkien espazio-antolaketari dagokionez.

Funtzionamendu kultural eta kognitiboaren formulazio sistematikorik berriena Colerena (1996) da; formulazio horretan, berriro definitu dira kulturaren eta testuinguruaren kontzeptuak:

hala, biologiak eta giroak garapena sortzeari begira elkarreraginean diharduten ingurune gisa deskribatzen da kultura. Kulturarentzat, funtsezkoak dira tresnen sorkuntza eta bitartekotza. Tresnen garrantzia nabarmentzeko joera horrek sobietar psikologoek pentsamendu-ildoari jarraitzen dio, Vigotsky eta Luriaren pentsamendu-ildoari adibidez.

Hala ere, kultura ez da tresnen ausazko batura soil bat; eta horiek egituratzeko bi iturri proposatzen dira: testuingurua eta adimena. Colek (1992) proposatzen duenez, eskola-sisteman dizipuluaren eta irakaslearen artean hasieran sortzen den harremanetik abiatuta, harreman hori inguratzen duen kanpoko mundua bere baitan gordetzen duten maila batzuk identifika daitezke: gela, gainerako ikasleei buruz; ikastetxearen antolaketa; gurasoen eta eskolaren, kultura-erakundearen eta erakunde komunitarioen arteko harremana. Maila horiek Bronfenbrennerrek (1979, 1998) testuinguruari buruz emandako definizioarekiko koherenteak dira.

Adimenari dagokionez, Colek (1992) eremu espezifikoko prozesu psikologikoak diren modulu batzuen existentzia proposatzen du; modulu horiek kulturarekin elkarreraginean diharduen sortzetiko eduki zehatz bat dute. Moduluen irteeraren eta prozesadore zentralaren artean, testuinguru kulturala dago; testuinguru horrek modulu-sarrerak aukeratzen ditu, kulturalki

metatutako portaeraren arabera, eta muga gisa dihardu. Coleren (1999) proposamenaren xedea kulturaren eragina Karmiloff-Smithek (1992b/1994) landutako teoria modularrarekin uztartzea da, eta horrela, murrizketa modularrak eta murrizketa kulturalak erlazionatzea giza garapen psikologikoa azaltzean.

Karmiloff-Smithen planteamenduaren bidez, bateratu egin daitezke teoria modularren oinarri innatista eta Piageten ikuspegitik ondarean jasotako konstruktibismoa eta kulturaren eragina; subjektuak inguruko errealitateari buruzko askotariko adierazpen edo eskemak eraikitzen ditu modularizazio-prozesu interaktibo batean. Egile horren arabera, teoria kultural batek, arrakasta izan dezan, filogenetikoki mugaturiko prozesu kognitibo goiztiarrei buruzko ikerketen emaitzak kontuan hartu behar ditu, eta bitartekotza kulturala duen gizarte-interakzioak pentsamendu konplexuena garatzen nola laguntzen duen erakutsi behar du. Ekarpen horiek aztertu ondoren, gaur egun adimenaren arkitekturaren adierazpena eremu-modulu ugariren bizikidetzan oinarritua dela esan daiteke, eta ez hainbat eremutara egokitzen edo moldatzen den modulu zentral bakar baten existentzian oinarritua.

Muga edo murrizketa kulturalak gizakiak giroarekin eta beste pertsona batzuekin dituen elkarreraginean bitartekari gisa diharduten tresnek ezartzen dituzte. Colek (1996, 1999) *prolepsia* terminoa proposatu zuen murrizketa kultural horiei oinarri

kontzeptuala emateko. Egile horren arabera, gurasoek beren aurretiko esperientzia kulturalaren arabera interpretatzen dituzte beren seme-alaben ezaugarri biologikoak; gurasoek beren seme-alaben etorkizunari buruz egiten duten proiektzioak haur bakoitzaren unean uneko giroaren marko kulturala osatzen du. Colek (1996,1999) dio helduak haurra jaio orduko hasten direla hari buruzko interpretazioak egiten, kulturak baldintzatutako interpretazioak egiten; eta Whiteren (1959) esaldia dakar gogora, alegia, haurtxoak, likido amniotikoak nola, beren komunitateak beraiei buruz dituen kontzeptuek blaituta iristen direla dioena. Gurasoek haurrarentzat etorkizun gertagarri bat proiektatzen edo aurreratzen dute, molde kulturaletan eta beren esperientzian oinarrituta: “Neska hau ez da errugbi jokalaria izango”, edo “nolako lanak emango dizkidan honek 18 urterekin”.

Prolepsia kontzeptuari arreta berezia eman behar zaio, prolepsiak subjektuek errealitateaz izan ditzaketen hautemateak antolatzen dituzten kategoria kulturalak diren heinean. Colek (1999) dioenez, prolepsia kontzeptuak “etorkizuneko ekintza edo garapen bat une honetan gertatzen ariko balitz bezala adieraztea” esan nahi du (Cole, 1999, 167. or.). Era berean, iraganetik abiatzen den etorkizuneko egitura gisa definitzen du Colek prolepsia. Eta definizio horrek Hernandezen teoriara garamatza (2002); hain zuzen ere, haren teorian deskribaturiko *aurrerapen-moldeek* gizabanakoaren

planoan duten edukia kulturaren planora eramaten baitu. Molde horiek subjektu bakoitzak bere iraganeko esperientzietan eraiki dituen errealitatearen hautematearen murrizketa gisa deskriba litezke.

Adimena, kultura izendatutako ikuspegi honetan, aldaketa kognitiboa eragiten duten prozesuak zein diren aztertzeko garaian, prozesu horiek ikertu dituzten lan enpirikoen analisira jo beharra dago, funtsean. Lan horien adibidetzat har daiteke Gouvainena (2001), kulturak ematen dizkigun tresnek garapen kognitiboan duten eragina sakontzen duena; bere lanean erakutsi zuenez, lau eta sei urte bitarteko haurrek kanpo-adierazpenak ulertzen eta erabiltzen dituzte, adibidez ekintza gidatzeko ekintza-planak. Kanpo-adierazpen horiek amak ematen dizkie, ama baita garapen hurbileko esparrua markatzen duena.

Garapen hurbileko esparrua da goi-mailako prozesu psikologikoen jatorri bikoitzaren legeak aipatzen duen gizarte-elkarrizketa gauzatzeko Vigotskyk (1979) proposatzen duen artikulazio kontzeptuala (lan honen sarreran aipatu genuen lege hori). Gizabanakoaren garapen errealaren eta ataza jakin batean trebeagoa den beste kide edo pertsona batek definituriko balizko garapenaren arteko espazioa da esparru hori; espazio horretan trantsizio bat gertatzen da, jarduera interpsikiko batetik –ataza bat gaitasun handiagoa duen norbaiten laguntzaz egitea– subjektuak bitartekotza

kulturala duen jarduera bat barneratuz trebetasun edo gaitasun berri bat hartzen duen jarduera intrapsikiko batera.

Garapen hurbileko esparruan gertatzen den gizarte-elkarrizketaren testuinguruan, bi kontzeptu nagusi aipatu behar dira, subjektuek kultura jakin bateko praktikak nola bereganatzen dituzten ulertzeko: parte-hartze gidatua eta aldamiok. Vigotskyren (1979) iritziz, GHEn gertatzen den elkarreragina barneratzeko jarduera nagusia imitazioa da. Eta Rogoffen (1993) proposamenean, berriz, parte-hartze gidatua deritzon, haurra, ikastun gisa, imitazio hutsetik harago doa eta era aktiboan parte hartzen du ezagutzaren eraikuntzan; prozesu horretan, helduak trebetasun edo/eta ezagutza berriak bereganatzea erraztuko duten egoerak egituratzen ditu, didaktika inplizitu baten bidez.

Rogoffek (1993) baldintza jakin batzuk planteatzen ditu parte-hartze gidatua gauzatzeko:

1. Haurren parte-hartze aktiboa, gizarte-gidaritzaz baliatzen denean.
2. Haurren jardueren antolaketa-molde inplizitu eta errutinazkoen garrantzia, baita trebetasun jakin batzuk eskatzen dituzten eta berriaz instrukzionaltzat har ezin daitezkeen jarduera kulturaletan parte hartzea ere.

3. Aldakortasun kulturala, bai garapenaren helburuena, bai haurrak gidari eta kideekin partekatzen duen ezagutza barneratzeko dituen bitartekoena ere. Horretarako, beharrezkoak dira azalpenak, eztabaidak, eredu adituagoak aurkeztea, partaidetza bateratua, behaketa aktiboa eta antolaketa, haurrak bete beharreko eginkizunei buruz.

Rogoffen (1993) arabera, haurrak pentsamendu-ikastun gisa hartzeko, funtsezkoak dira bai gidaritza eta baita kulturaren ikuspegitik baliotsuak diren jardueretan parte hartzea ere. Gidaritza inplizitua nahiz esplizitua izan daiteke, eta partaidetza-motak askotarikoak izan daitezke, haurrak edo beren zaintzaileak baitira partaidetza antolatzeko moduaren erantzuleak. Egileak bi lankidetzaren prozesu aipatzen ditu. Zubiak eraikitzea da lehen prozesua, haurrak une jakin batean erakusten duen ulermen- eta trebetasun-mailatik abiatuta, beste ulermen- eta trebetasun-maila batera iristeko. Eta bigarren prozesua, berriz, jarduera jakin batzuetan haurren partaidetza antolatzea eta egituratzea, haurrak garapenaren bidez bere gain hartzen dituen erantzukizunetan gertatzen diren aldaketak kontuan hartuta. Haurrek baliabide sozialak –besteek ematen dieten laguntza nahiz besteek jartzen dizkieten erronkak– erabiltzen dituzte gida gisa, beren komunitatearen jardueretan eginkizun gero eta espezializatuagoak betetzeko.

Lehen aipatutako funtsezko bigarren kontzeptua *aldamioak* kontzeptua da; kontzeptu horrek ñabardura adierazgarriak eransten dizkio *garapen hurbileko esparruan* gertatzen den *parte-hartze gidatu* horri. Kontzeptua bera Bruner (1978, 1983) eta Wood et al. (1976) egileek asmatu bazuten ere, Rogoffek (1993) *parte-hartze gidatuaren* prozesuan pertsona heldu edo solaskide gaituenak, gaitasun handienekoak, zer portaera izan behar duen erakusteko erabiltzen du; helduak aldeztu aurretik antolatu eta egituratutako jarduerak guztiak *aldamioak* dira, *garapen hurbileko esparruan benetako garapenetik balizko garapenerako* trantsizioa bideratzeko aukera emango duten egiturak; horien artean, aipatzekoak dira ataza batean arretari eusteko estimuluak, sinplifikazioak, errepikapenak, etab. Testuinguru horretan, Brunerrek (1982) *hizkuntzaz jabetzeko formatuak* formulatu zituen. Aldamio gisa diharduten jarduerak aldatu egin daitezke kultura batzuetatik besteetara; halaxe erakutsi zuten Kermani eta Brennerrek (2000) beren lanean. Hain zuzen ere, irandar amerik eskolaurreko beren seme-alabekin egiten dituzten *aldamio-jardueren* eta amerikar amerik egiten dituztenen arteko desberdintasunak aztertu zituzten, eta ikusi zuten, helburu jakin bat lortzera bideratutako atazetan, irandar amerik gidaritzarako askoz ere joera nabariagoa dutela amerikarrek baino, eta, aldiz, ez dela desberdintasunik gertatzen jarduera ludikoetan. Egileen ondorioen arabera, oro har, kulturak baldintzatzen ditu *aldamio-jarduerak*.

Goi-mailako psikologia prozesuen jatorri bikoitzaren legea, parte-hartze gidatua eta aldarmioak finkatzearen kontzeptu horiek guztiek oinarri komun bat dute: intrasubjektibotasunera garamatzen intersubjektibotasunaren ideia, jatorri bikoitzaren legean formulatzen den maila interpsikikotik intrapsikikorako trantsizioa. Horren arabera, adimenaren barruan gelditzen dena gizarte-elkarrizketa barneratuaren emaitza da. Colek (1999) bitartekotza kulturalako tresnen bidez formulatu zuen intersubjektibotasuna, eta honela definitu zituen tresna horiek:

1. Tresnak kulturaren funtsezko osagaiak dira.
2. Tresnak idealak eta materialak dira, aldi berean. Gizakiak munduarekin eta gizakiak elkarren artean koordinatzen dituzte, tresnen eta sinboloen propietateak konbinatuta.
3. Tresnak ez dira kulturaren elementu moduan bakoitza bere aldetik existitzen. Aitzitik, eredu kulturalak eta bereziki eraikitako *mundu alternatiboak* barne hartzen dituzten mailen *heterarkia* moduan uler daitezke.
4. Hemen landutako tresnen ikuspegiaren eta kulturen, gidoien eta abarren ereduaren ikuspegiaren artean kidetasun estuak daude. Kidetasun horiek baliatzeko, eskemek eta gidoiek bitartekotza-prozesuan errealitate bikoitza dutela ulertu beharra dago.

5. Tresnak eta tresna-sistemak “beste zerbaitekiko” harremanaren arabera besterik ez dira existitzen bere horretan; egoera, testuinguru, jarduera, etab. izenda daiteke “beste zerbaite” hori.

6. Jarduera bitartekotuak norabide anitzeko ondorioak ditu; eraldatu egiten ditu subjektua besteei buruz eta subjektua/bestea egoerari buruz, osotasun gisa hartuta, aldi berean, eta orobat eraldatzen du “ni”ak eta besteak elkarreraginean diharduten mediuma.

7. Bitartekotza kulturalak aldaketa ebolutiboa dakar; aldaketa horretan, aurreko belaunaldien jarduerak orainean metatzen dira, giroaren berariazko alderdi humano gisa. Era berean, mundu sozialak giza garapenean duen garrantzi berezia aditzera ematen du garapen-modu horrek, beste gizakiek beste inork ezin sor baititzakete garapen hori gertatzeko behar diren baldintza bereziak.

Lucariellok (1995), azkenik, kideen komunitate batek partekatutako praktika kulturek kide horietako bakoitzaren izaera-erreferentziaren garapenean duten eragina nabarmentzen du. Horretarako, honako adibide hau erabili du: alkoholiko anonimoen taldeko kide izatea, kide horiek edanaren jarduera kulturala praktikatzeko dutelako eta ez-edale bihurtzeko –hain zuzen ere, bere garaian alkoholiko izaera eman zien jarreraren kontrako jarrera hartzeko– behar den izaera-aldaketaren prozesua praktikatzeko

dutelako. Oinarrizko premisa hau da: jarduera jakin bat egiteak komunitate jakin batean sartzeko aukera ematen du, eta komunitate horrek izaera-erreferentzia bat emango die bere kideei, jarduera jakin hori praktikatzeko duen pertsona hartzen baitu kide gisa.

Laburpen gisara, ikuspegi honetatik, kulturak dimentsio abstraktu edo aldagai independente izateari uzten dio, ikuspegi dikotomikoan ez bezala. Kultura zera da; "praktikak". Eta definizio berri horren ondorioz, ez dago adimenaren eta kulturaren arteko bereizketari eusterik. Kultura eta kognizioa elkarri lotuta daude praktika kulturaletako portaeran. Kognizioak eta kulturak elkarreaginean dihardute jardueretan.

Aurrerapenak aurrerapen, praktika kulturalaren ikuspegiak ez du ematen kulturaren eta funtzionamendu kognitiboaren azalpen askiesgarririk. Funtsezko elementu bat ahazten baitu: pertsona. Gertaera hori bereziki deigarria da kontuan hartuta ikuspegi honi jarraitzen dioten ikertzaileek zer analisi-unitate erabiltzen duten. Neurtzen duten gauza bakarra kognizioa da, mendeko aldagaitzat hartuta kategorizazioa, arrazoibide silogistikoa, memoria, arrazoibide matematikoa eta abar. Aldagai kognitiboetan oinarritze hori bat dator Vigotskyren ikuspegiarekin. Baina Glickek (1983) dioenez, Vigotskyk analisi-unitatea maila interpersonalean kokatu arren, analisiaren xedea Piageten ikuspegiaren deskribaturiko egitura logikoekiko hurbilagokoa da. Beraz, ikuspegi dikotomikoen eta

praktiken ikuspegien arteko nolabaiteko jarraitutasuna badela esan daiteke, analisi-unitate bera duten heinean.

Garrantzi handiko beste kontu bat ere bada: ezin pentsa daiteke pentsamendu logiko eta arrazionalak pentsamenduaren konplexutasun guztia bere barruan bilduta daukanik. Izan ere, badaude pertsonen mundua antolatzekeo baliagarri zaizkien kategoriatan ez-arrazional batzuk. Horren ondorio nagusia zera da: adimena eta kultura ezin bereiz daitezke adimen eta kultura horiek antolatzen dituen agente intentzionaletik, hau da, pertsonatik. Kontzientzia indibidualari entzungor egiten zaio. Eraikuntza ez-arrazional horietan, *kultura, praktikan* ikuspegiak baztertzen dituen eraikuntza horietan, alderdi emozionalak sartzen dira, eta ulertezinak izango dira, baldin eta eraikuntza horiek eraikitzen dituen –kulturalki eraikitako esanahiak– pertsona edo pertsonen komunitate bakoitza ere barne hartzen ez badute. *Kultura, praktikan* ikuspegiak ez ditu kontuan hartzen –edo ez ditu analisi-unitatetzat hartzen– jendeak bere munduak eraikitzekeo baliatzen dituen esanahiak. Pertsona kulturaren eta garapen kognitiboaren analisisetik kanpo uzten da.

Bide beretik, testuingurua ezin har daiteke zera estatiko gisa; testuingurua pertsonak eraikitzen eta interpretatzen duela jakitun izan behar dugu. Horrek esan nahi du metodologikoki ez direla

kontuan hartzen testuinguruaren hautemateak. Testuingurua eta kultura ez dira definitu behar agente intenzionaletik bereiz.

1.2.3. Kultura, adimenean

Psikologia kulturalaren ikuspegi honek alde batera uzten ditu trebetasun kognitiboak eta horiek funtsezko analisi-unitate gisa neurtzeko erabiltzen diren tresnak. Horien ordean, kategoria kultural gisa definitzen den beste kategoria bat erabiltzen du: *narratiba*, adimenak berezkoa duena (Bruner, 1986, 1990). Ikuspegi horri jarraituz, sortzetiko eragile kulturalen ikuspegi dei genezakeen horri jarraituz, gizakien eta txinpantzeen konparazioa egin genezake, Tomasellok (2000) bezala; Tomasellok sortzetiko gaitasuntzat definitzen ditu gizakien garapen kulturala ahalbidetzen duten gaitasun batzuk.

Kategoria narratiboa esperientzia antolatzeke forma gisa proposatutako bi pentsamoldeetako bat da. Beste pentsamoldea, paradigmatikoa, pentsamendu logiko edo zientifikoa da. Brunerren (1990) arabera, gizakiak antolaketa narratiborako joera sortzetiko eta primitibo bat du, antolaketa narratibo hori erraz eta bizkor erabiltzeko aukera ematen diona.

Brunerrek historiari buruz emandako definizioan, pertsonaia asmodunak dira ardatza, esanahi partikularrak erabiliz askotariko

testuinguruetan ekintzak gauzatzen dituzten pertsonaia asmodunak. Historiak gertaleku bikoitza du: aldi berean ekintzaren planoan eta bere protagonisten subjektibotasunaren planoan gertatzen delako gertatzen da (Greimas eta Courtes, 1976).

Kategoria kultural bat adimenari berezkoa zaion kategoria gisa definitzen den unetik beretik, biak elkarri loturik daudela jotzen da; ezin askatuzko edo elkarren osagarri egiten dituen lotura batek uztartuta daudela jotzen da. Horrela, aurreko dikotomia gainditzen da eta analisi-unitatea aldatzen da, kategoria kulturala eta mentala baita unitatea. Egin dakioken kritika nagusia da pertsona ez duela agente intenzional gisa hartzen eta ez dela analisi-unitatetzat hartzen metodologiaren esparruan.

1.2.4. Adimena eta kultura, pertsonan

Lucariellok (1995) aurrez azaldutako ikuspegiaren gabezia nabarmentzen du, pertsona kontuan ez hartzearen gabezia hain zuzen. Pertsonak elkarrekiko osagarritasunezko erlazioa izan behar dute errealitatearekin. Pertsonak errealitatea interpretatzeko eta eraikitzeko erabiltzen dituzten bitartekoak analisi-unitate adierazgarriak dira. Alderdi horretatik, eta aurrerago azalduko dugunez, *molde kognitibo-afektiboak* ere esanahi-egitura subjektibotzat har daitezke.

Pentsamendu ez-arrazionalaren ideia barne hartzen duen psikologia kulturalari jarraituz, guk geure mundua interpretatzeko baliatzen ditugun logikaz haragoko marko eta marko arbitrario batzuk daudela aipatu behar da. Shwederrek (1990) markoen eta psikeen artean sortzen den elkarrekiko osagarritasunezko erlazioa nabarmentzen du. *Mundu intentzionalen* kontzeptua sartzen du. Mundu intentzionalak geuk diseinatutako produktuen bidez jendarteratutako giza mundu artifizialak dira. Multzo horretan sartzen dira, adibidez, jaunartzearen moduko ekitaldiak, dibortzioaren moduko jarduerak, abokatutzaren moduko lanbideak eta futbolaren moduko jolasak. Shwederren (1990) arabera, *mundu intentzionalak* ez dira existitzen egoera intentzionaletatik (sineskeriak) bereiz; egoera intentzionalak mundu intentzionaletara bideratzen dituzte horietan bizi diren pertsonen, horregatik dira elkarren mendekoak. Egile horrek dioenez, pertsona intentzionalak eta mundu intentzionalak elkarren mendeko errealitateak, errealitate interdependenteak dira, eta dialektikoki eraikitzen eta berreraikitzen dira, beraietatik eratorritako jarduera intentzionalen eta praktiken bidez.

Alderdi horretatik, egileak beharrezko ikusten du marko analitiko bat garatzea errealitatearen eraikitzaile diren adimenen – pertsona intentzional deritzen horien– eta kulturalki eratutako errealitateen –mundu intentzionalak– artean; horretarako, sei

harreman-mota deskribatzen ditu, gutxienez. Erlazio positiboa munduaren intentzionaltasunak pertsonaren intentzionaltasunari sostengua ematea da. Eta erlazio negatiboa, munduaren intentzionaltasunak pertsonaren intentzionaltasuna murriztea edo horri kontra egitea. Horrez gainera, erlazio horietako bakoitza aktiboa izan daiteke (pertsonak bere mundu intentzionala sortzen edo aukeratzen du), edo errektiboa (besteek sortzen edo aukeratzen dute pertsonarentzako mundu intentzionala, pertsona horren beraren intentzionaltasunaren arabera), edo pasiboa (pertsona besteren irizpideen arabera sortu edo aukeratutako mundu intentzional batean bizi da).

Esanahi-egituren bidez interpretazioa eginez eraikitako errealitate baten ideia era esplizituan agertzen da sinbolikoki eraikitako munduei buruz Goodmanek (1978) osatutako teorian, eta, berrikiago, Brunerren (1990) ideietan. Egile horrek, zabaldu egin du kategoria narratiboa, gizakiek gizatasunaren aniztasunari buruzko historiak partekatzeak gizarte egonkortasunean duen garrantziaren ezagutzara, eta kultura bakoitzean nagusi diren konpromiso moral eta betebeharrekin eta erakundeen betebeharrekin kongruenteak diren interpretazioetara zabaldu du. Brunerren ekarpena bat dator Shwederrek (1990) mundu intentzionalen kontzeptuari buruz egindako deskribapenarekin.

Laburpen gisara, esan daiteke psikologia kulturalak, gaur egun, argi eta garbi gainditu duela kulturaren eta kognizioaren arteko ikuspegi dikotomikoa. *Kultura, praktikan* ikuspegiaren arabera, adimenak eta kulturak elkarreraginean dihardute praktketan; narratibaren ikuspegiari jarraituz, berriz, kultura berezkoa du adimenak, diseinu biologikoarengatik; pertsonan oinarrituriko psikologia kulturalaren arabera, kognizioa (egoera intentzionalak) eta kultura (mundu intentzionalak) elkarren osagarri dira, edo batek bestea osatzen dute. Psikologia kulturean azken ikuspegi hori zabaltzearekin batera, indar hartu du subjektuak errealitatea era aktiboan interpretatzen duela dioen ideia.

Errealitatea eraikitzeke kategoria kulturalak dira kulturaren eta funtzionamendu kognitiboaren azterketaren analisi-unitateak. Adimenaren kategoria esanahidunak dira; esanahia ematen dien eragile intentzionalaren edo pertsonaren jarduerak hornitzen ditu esanahi horretaz. Lucarielloren (1995) arabera, pertsonak kategoria horiek zabaltzen edo bideratzen dituenean, kultura eta testuingurua finkatzen dira. Psikologia kulturalaren ikuspegi horretan, kulturaren eta kognizioaren funtsezko hiru elementuak sartzen dira, pertsona ere hartzen baitu bere baitan, beste bien arteko bitartekari gisa.

2. KAPITULUA:

BURU-MOLDEEN TEORIAREN AZALPENA.

MOLDE KOGNITIBO-AFEKTIBOAK

Kapitulu honetan, *molde kognitibo-afektiboen teoriaren edo buru-moldeen teoriaren* laburpena egingo dugu (Hernandez, 1991, 1992, 1996a, 1996b, 1998a, 1998b, 2002, 2004; Hernandez, Capote eta Garcia, 2002, 2004; Hernandez, Hernandez eta Garcia, 2004). Hain zuzen ere, Hernandezek landutako teoria hori da lan honen oinarri teorikoa; teoria horretatik abiatuta diseinatua da II. atalean aditzera emango den ikerketa empirikoa.

2.1 BURU-MOLDEEN TEORIAREN AURREKARIAK

2.1.1.Oinarri konstruktibistak

Molde kognitibo-afektiboen teoriak kutsu konstruktibista nabarmena du. Azken hamarraldietan, joera konstruktibista indar handia hartzen ari da psikologiaren esparruan, eta, joera horren axioma nagusietako baten arabera, errealitateari buruz geureganatzen dugun ezagutza ez da errealitate horren emaitza soilik; ostera, adimenak errealitate horretaz egiten duen eraikuntzaren emaitza ere bada. Beraz, adimenak beste errealitate daude. Psikologia ebolutiboaren barruan, planteamendu

konstruktibistak Piageten teoriatik abiatu ziren (1977); teoria horretan, aldaezin funtzionaletan zehazten den *modus operandi* baten bidez egitura kognitiboak lantzeko etengabeko prozesu bat deskribatzen da: *antolaketa* eta *adaptazioa* dira aldaezin funtzional horiek.

Adaptazio-jardueraren bidez, subjektuak errealitateari buruzko adierazpen gero eta konplexuagoak eraikitzen ditu. Egitura kognitiboan gertatzen diren aldaketa kualitatiboek erakusten dutenez, hasieran egitura sentsomotorra dago; egitura hori, lehen haurtzaroan, munduaren adierazpen magiko baten modura eraldatzen da. Aurrerago, egitura konkretuak nagusitzen dira, errealitatea era zorrotzagoan adierazten duten egiturak. Eta, azkenik, egitura formalak agertzen dira, errealaren eta balizkoa denaren arteko harremana barne hartzen dituztenak. Egitura horiek guztiak errealitatea aztertzeko eta errealitatera moldatzeko modu bereziak dakartzate beraiekin; hain zuzen ere, horixe da Piageten teoriaren eta molde kognitibo-afektiboen proposamenaren arteko funtsezko lotura.

Piageten ekarpena ekarpen innatista eta konstruktibista gisa defini liteke, eta hainbat esparru adaptatibotan nabarmentzen den funtzionamendu intelektualaren ikuspegi homogeen bat ematen du. Beste egile batzuek sortzetiko modulu batzuetan oinarrituriko ikuspegi bat plazaratu dute, funtzionamendu intelektualari buruz;

Chomsky (1965/1970) da egile horietako bat. Perez Pereirak dioenez (1995), Chomskyren arabera, hizkuntzaz jabetzeko sortzetiko egitura batzuk daude, balizko beste mekanismo kognitibo batzuetatik bereizirik diren sortzetiko egitura batzuk. Sortzetiko eta funtzionamendu independenteko moduluen ideian sakondu zuen Fodorrek bere lanetan (1983/1986), baina Karmiloff-Smith (1992a, 1992b/1994) izan zen innatismoaren eta konstruktibismoaren arteko sintesia proposatu zuena, modularitatearen teoriaren bidez; adierazpenezko deskribapena berreginez, subjektuak errealitateari buruzko teoriak eratzen eta eraldatzen ditu, modularizazio-prozesu baten bidez; prozesu hori sortzetiko egituretatik abiatzen da, eta ingurunearekiko elkarreraginaren bidez eraikitzen da.

Aipatzekoa da, halaber, pertsonen errealitatea adierazteko eta errealitatera moldatzeko erabiltzen dituzten barne-kategorien existentziaren ideia marko konstruktibista eta kognitibotik kanpo ere aurki daitekeela, teoria psikoanalitikoan. Freudek (1913/1972) defentsa-mekanismoei buruz egindako deskribapenean, aparatu psikikoaren ohiko dinamika gisa aipatzen da “proiektzioa”¹, barne-kategorien araberrako errealitatearen distortsio gisa hartuta; gizabanakoak errealitateari buruz osatzen duen adierazpenaren

¹ (...) “Guri dagokigun kasuan, proiektzioak gatazka afektibo bat konpontzeko bidea ematen du. Zeregin hori bera du neurosia dakarten beste hainbat egoera psikikotan. Baina proiektzioa ez da defentsarako bitarteko bat soilik. Gatazkarik ez dagoenean ere ikus dezakegu. Barne-hautemateak kanpora proiektatzea mekanismo primitiboa da, eta horren mende daude gure zentzumen-hautemateak ere; beraz, funtsezko zeregina du kanpoko mundua adierazteko dugun moduan”. (...) (S. Freud. *Totem y Tabú. Obras completas* lanetik itzulia, V. liburukia, 1788. or.).

arabera dituen berezitasunak erakusten ditu proiektzio horrek. Mekanismo horrek antzekotasun kontzeptual nabarmena du Piagetek deskribatutako pentsamendu egozentrikoaren ezaugarri den asimilazio deformatzailearen ideiarekin (Flavell, 1970). Proiektzio-mekanismoak edo asimilazio deformatzaileak errealitatearen *ikuspegi* berezi bat adierazten du, molde kognitibo-afektiboen funtzionamenduaren funtsa gogorarazten duen ikuspegi bat, errealitatearen adierazpena elementu kognitiboek ez ezik elementu afektiboek ere baldintzatuta ageri den heinean.

Piageten teoriaren ondotik, aurrera egin duen beste ikerketalerro teoriko eta enpiriko bat *gizarte ezagutzaren garapena* deritzona da (Del Val, 1981, 1994, 1999; Turiel, 1983; Aboud y Amato, 2001). Esparru teoriko honen barruan, zenbait autorek, ikuspegi ebolutiboarekin, haurrek inguruko errealitate sozialeko fenomeno eta gertakizunen gainean egiten dituzten irudikapenak ikertu dituzte. Ikerketa-ildo honetan, beste hainbat ikerlan dedikatu dira konkretuago *gizarte-ezagutzaren kontzeptu desberdinak* estudiatzen, hala nola, nazio kontzeptua, identitate nozioa eta abar (Barrett, 2001, 2002; Apalategi y Balluerka, 2002).

Ikerketa-lerro honen oraintsuko ordezkari bat Callananen (2006) aurkitzen da. Bertan, zientzia eta erlijioari buruz haurrek dituzten irudikapen ebolutiboen gaineko helduen adierazpenak eztabaidatzen dira. *Gizarte ezagutzak errealitateari buruzko barne-*

irudikapenak sortzea suposatzen duen heinean, buru-moldeen eta berauen arteko antzekotasuna ezar daiteke; guzti hau, zera ere kontuan harturik, buru-moldeek gizabanako bakoitzaren motibaziozko eta emoziozko elementuak eransten dizkiela irudikapen horiei.

Horrez gainera, Piageten konstruktibismoaren hedapen adierazgarria aurki dezakegu *gogamenaren teoria* deritzon (Leslie, 1986, 1987; Flavell, 1999). Ikerketa-ildo horretan, gizakiak norberaren adimena eta besteen adimena adierazteko duen ahalmen goiztiarra deskribatzen da; subjektuak bestearen *gogamenaren teoria* bat eraikitzen du, eta funtsezko tresna bilakatzen zaio, bere adaptazio-prozesuan. Hiru urte eta erditik aurrera, haurrak gai dira uste okerreko atazei zuzen erantzuteko, adibidez *Max eta txokolatea* deritzon atazan (Perner, Ruffman, eta Leekam, 1994; Arranz, Olabarrieta, Martin eta Artamendi, 2002). Egoera-testuinguru jakin batean beste pertsona baten adimenaren funtzionamenduaren adierazpen iraunkor eta konplexua lantzeko ahalmenak zenbait molde kognitibo-afektiboren iragarpen-ahalmena iradokitzen du.

Molde kognitibo-afektiboen teoriak hainbat autorek landutako psikologia kognitiboan ditu erroak. Becken (1976) psikologian, adibidez; egile horrek depresioaren eredu kognitiboa formulatu zuen, pertsona batzuek sortzen dituzten eta depresiora eramaten dituzten akats logikoetan edo distortsio kognitiboetan oinarrituta.

Aipatzekoa da, halaber, Lazarusen (1984) teoria kognitibo-emozionala, subjektuek eguneroko bizitzan egoerei aurre egiteko erabiltzen dituzten estrategiak aztergai dituen eta Hernandezek (2002) *molde kognitibo-afektibo*ei buruz egindako proposamenarekin lotura argia duena.

Hurbileko beste proposamen teorikoa da, halaber, *egozpenaren teoria*, Weinerrena (1980); teoria horren arabera, arrakasta eta porrota hainbat arrazoiri egotziz azaltzen ditu adimenak (adibidez, huts egitean, besteak edo norbera errudun jotzeko joera). Egozpen horiek molde kognitibo-afektiboak dira, argi eta garbi, edukia edozein dela ere errepikatzen diren adimenaren erreakzio gutxi asko ohikoak adierazten dituztelako.

Era berean, aipatzekoa da Mikulincerren ekarpena (1998), *autoerregulazio afektiboko ereduak* oinarri dituen. Lopez eta Ortizek (1999) diotenez, eredu horiek arau batzuk dituzte subjektuek estresari ematen dioten erantzuna gidatzeko, eta pertsonak asegabetasuna kudeatzeko dituzten moduak konfiguratzeko; gainera, erregulazio afektiboaren eta atxikimendu-moten arteko erlazio bat finka daiteke.

Aurrekari adierazgarria dugu Pintrich eta DeGrootek (1990) beren lan batean egindakoa ere; ikasgelako kideen errendimendu akademikoa ebaluatu zuten, osagai kognitibo-afektiboaren arabera, osagai horiek motibazioa eragiten duten eta ikaskuntza

autoerregulatzen duten molde moduko batzuen gisara hartuta. Ellisen (1962) ekarpenak ere alderdi kognitiboa eta konstruktibista batzen ditu, nahiz eta eduki eta sinesmenei ematen dien arreta, eta ez hainbeste formatuei.

G. A. Kellyren (Kelly 1955; Schultz eta Schultz, 2002) *konstruktuko pertsonalen teoriak* ere Hernandezen (2002) *molde kognitibo-afektiboekin* lotura du. Iparramerikar egilearen teoriaren oinarrizko premisa honako hau da: gizakiak inguruko munduari buruz teoriak lantzeko duen ahalmena. Ahalmen hori Piagetek ere nabarmendu zuen, *Munduaren adierazpena, haurraren* (1973) lanean, eta baita joera neopiagetiarreko beste egile batzuek ere, adibidez Karmiloff-Smithek (1992b/1994). Schultz eta Schultzek (2002) diotenez, Kellyk ondorioztatu zuen pertsonen zientzialariek bezalaxe dihardutela, errealitatearekiko kontaktuak subjektuari dakarzkion ondorioen arabera egiaztatzen edo ukatzen dituzten hipotesiak lantzen dituzten heinean.

Teoria horiek errealitatea interpretatzen dute, antolatu egiten dute, eta etorkizuna iragarri ere egin nahi dute, iraganeko gertaeretan bildutako esperientzia baliatuta. Osagai subjektiboa txertatzea funtsezko ezaugarria da Kellyren (1955) proposamenean, Hernandezenean bezalaxe (2002); gertaeren hautemate eta interpretazio subjektiboak gertaerak berak baino garrantzi handiagoa du. Kutsu kognitibo nabarmena izan arren, Kellyren

(1955) teoriak ez zuen eraginik izan Bruner (1991) aitzindari zuen mugimendu kognitiboan; psikologiaren historian, nortasunaren teoriaren esparruko ekarpen gisa hartua da harena.

Konstruktuko pertsonalen teoria konduktismo klasikoa eta psikoanalisi landu ondoren osatu zuen Kellyk (1955), joera haiekiko harremanen emaitza antzueren eraginez, hain zuzen ere. Egileak ikasleen orientazio pertsonalean izandako esperientzia da bere teoriaren oinarria. Gorabehera emozionalak zituzten gaixoak ez bezala, Kellyren pazienteak gai ziren beren arazoak termino intelektualetan aztertzeko eta azaltzeko. Schultz eta Schultzek (2004) diotenez, konstruktuko bat hipotesi intelektual bat da, bizitzako gertaerak interpretatzeko edo azaltzeko eraikitzen eta erabiltzen den hipotesi intelektual bat. Subjektua bere konstruktuez jabetzen da, eta gai da horiek bere nahierara aldatzeko, baldin eta bere helburuak lortzeko eraginkorrak ez badira; ideia horri *alternatibismo konstruktiboa* izena jarri zion egileak.

Kellyren (1955) teoriako postulatu nagusiak dioenez, gertaerei aurrea hartzeko dugun moduak gidatzen ditu gizabanakoaren prozesu psikologikoak; aurreratzeko gaitasuna, errealitatea iragartzeko gaitasuna, konstruktuetan oinarritua da. Teoriaren oinarri nagusiak Kellyk deskribaturiko 11 korolarioetan bilduta daude: eraikuntzarena, indibidualtasunarena, antolaketarena, dikotomiarena, aukerarena, esparruarena, esperientziarena,

modulazioarena, zatikatzearena, komunitatearena eta soziabilitatearena. “Korolario” horiek aurrerago deskribatuko ditugun *molde kognitibo-afektiboekin* alderagarriak dira, nolabait.

2.1.2. *Intelligentziaren teoria garaikideak*

Intelligentziaren teoria garaikideen arloan, aipatzekoa da horietako batzuk Hernandezen molde kognitibo-afektiboen teoriaren antzekoak direla, kontzeptualki, eta molde horien inspirazio-iturri izan direla. Horietako lehena Stenbergen (1985) *intelligentziaren eredu triarkikoaren* teoria da; egile horrek intelligentziaren funtzionamendu indibiduala aldarrikatzen du, Adimen Kozientearen ikuspegi homogeneizatzaileaz harago. Inteligentzia indibidual eta praktiko horrek oinarri genetikoa izango luke, batetik, eta subjektu bakoitzak bere historia indibidualean zehar eraikitako oinarria, bestetik; esperientzia errepikatuak metatzeak errealitateari aurre egiteko modu jakin batzuk finkatzen ditu, eta modu horiek askotariko egoeretan aplikatzen dira, orokortze-prozesu baten bidez. Teoria horren testuinguruan, esan daiteke inteligentzia indibidual ona dela errealitateaz jabetzeko estrategia egokiak garatzen dituen, arazoak konpontzeko estrategiak garatzen dituen –biak ere metaosagaiak gidatuak–, osotasuna aztertzeko eta errealitatea eraginkortasunez


kontrolatzeko modua emango duten estrategiak, molde kognitibo-afektiboak exekutatzen diren modu berean.

Inteligentziaren teoria garaikideen arloan, eta molde kognitibo-afektiboak ulertzeko duten garrantziagatik, Gardnerren (1995) *inteligentzia anitzen* proposamena aipatu behar dugu. Thurstone, Guilford eta Thorndikeren ekarpenetik abiatuta –horiek ziotenez, elkarrekiko gutxi asko independente ziren esparru edo eremutan zatituta dago inteligentzia– Gardnerrek (1995) dio inteligentziak hainbat alderdi dituela eta atazen arabera definitzen dela, baina ez konduktistek bezala neurritik ateratako zentzu batean, inteligentziaren kontzeptua bera ukatzen baitzuten konduktistek, esanez ataza posibleak adina inteligentzia daudela.

Gardnerren (1995) aburuz, zazpi inteligentzia bereizten dira: linguistikoa, logiko-matematikoa, ikusmenezkoa-espaziala, gorputzekoa-kinestesikoa, musikala, intrapertsonala eta interpertsonala. Pertsona gai da, ez soilik hitzak, zenbakiak, musika, ikusmenezko irudiak-irudi espazialak edo mugimendu fisikoak-gorputzeko mugimenduak era inteligentean aztertzeke eta erlazionatzeko; gai da, halaber, besteen nahiz norberaren jokabidea era inteligentean aztertzeke eta erlazionatzeko. Hau da, gai da besteen (inteligentzia interpertsonala) eta norberaren (inteligentzia intrapertsonala) pentsamenduak, sentimenak eta portaera aztertzeke eta erlazionatzeko. Inteligentzia intrapertsonala

subjektuak bere burua ulertzeko eta geuregana eraginkortasunez bideratzeko duen gaitasunean datza; norberari buruz eredu doia, egiatia zehazteko gaitasunean eta eredu hori bizitzan eraginkortasunez moldatzeko gaitasunean datza. Pertsonaren barne-alderdiak ezagutzea da norberaren bizitza emozionalerako sarbidea. Bestalde, inteligentzia interpertsonala besteak ulertzeko gaitasuna eta geure asmoen arabera haiengan eragiteko gaitasuna da.

Stembergen eta Gardnerren ereduaren adierazpen grafikoa (Iturria: Hernandez, 2002, 65. or.).



Irudiko testuaren itzulpena:

1. Gardnerren inteligentzia anitzak: logiko-matematikoa, musikala, espaziala, gorputzekoa-kinestesikoa, interpertsonala, linguistikoa, intrapertsonala.
2. Inteligentzia, funtzionamendu indibidualaren arabera.
 - Harrera-osagaiak: informazioa hartzea, gogoratzea eta transferitzea.
 - Metaosagaiak: ikuspegi orokorra eta egoerei eta arazoei aurre egiteko planifikaziorako, ikuskatzeko, ebaluaziorako eta erabakiak hartzeko gaitasuna.
 - Exekuzio-osagaiak: erabakiak gauzatu eta arazoak konpondu
3. Inteligentzia, jatorriaren arabera
 - Sormen-gaitasuna: egoera berriak
 - Automatizazio-gaitasuna: egoera errepikatuak
4. Inteligentzia praktikoa: testuingurura egokitzeko gaitasun praktikoa.

Baina *molde kognitibo-afektiboen* teoria harago doa, ez da mugatzen alderdi kognitiboetara, pentsamendura adibidez; alderdi afektiboa, emozioena, ere nabarmentzen du, eta, ildo horretatik, *inteligentzia emozionala* deritzon teoria ezagunaren gakoa da (Goleman, 1996, 1999, 2006). Teoria horrek arrakasta handia izan du 90eko hamarralditik aurrera, eta psikologiako gairik zabalduenetakoa da, gaur egun. Mayer eta Saloveyen (1993) kontzeptualizazio ekarpenetik eta Golemanen (1996) dibulgazio ahaleginitik aurrera, *inteligentzia emozionalaren* teoria eremu zientifikoetatik haratago asko zabaldu da. Ezagunak dira gaia ikasten eta zabaltzen diharduten eremu birtualak (4,5 miloi web gunetik gora) eta, era berean, ale monografikoak eskaintzen dizkioten aldizkari espezializatuak (Fernández Berrocal eta Extremera, 2006a, 2006b; Brackett eta Salovey, 2006).

Inteligentzia emozionalak Stenbergen (1985) inteligentzia praktikoarekin zerikusia du, eta, batez ere, Gardnerren (1995)

inteligentzia intrapertsonalarekin eta interpertsonalarekin, alderdi emozionaletan oinarritzen den neurrian. Mayer eta Saloveyk (1993) emandako definizioan, norberaren eta besteen emozioak kontrolatzeko gaitasuna aipatzen zen; emozio horien arteko bereizketa egiteko gaitasuna, eta informazioa erabiltzeko eta pentsamendua orientatzeko gaitasuna. Emozioak kudeatzeko era horrek eragina izango du erabiltzen den informazioan eta arazoei ematen zaien soluzioan. Inteligentzia emozionala trebetasun-multzo batek osatua da; emozioaren adierazpen eta ebaluazio xehea egiten, emozioaren erregulazio eraginkorra egiten eta sentimenak erabiliz lorpenak motibatzen, planifikatzen eta aurreikusitako lorpenak betetzen lagun dezakete. Ildo horretatik, ezaugarri adaptatiboak eta ez-adaptatiboak bereizten dira (Hernandez, 2002).

Inteligentzia emozionala, termino gisa, Mayer eta Saloveyk definitu zuten 1990ean, era akademikoan, baina Goleman (1996) izan zen terminoaren berri publiko orokorrari eman ziona, *Inteligentzia emozionala* liburuaren bidez. Gertaera horrek askoren mirespena ekarri zion, alde batetik, eta inteligentzia emozionalaren aitzindaritzat dute askok; bestetik, ordea, kritika asko ere izan zituen, zientziaren profanatzaile zela-eta.

Mayer, Salovey eta Carusok (2000) kritika egin zioten Golemanek inteligentzia emozionalari buruz zabalduko kontzeptuari, nortasunaren ezaugarriekin edo motibazio-

alderdiekin nahasten delako. Egile aitzindariak behin eta berriz nabarmentzen duten definizioaren arabera, izaera kognitibo eta informatiboa du; hau da, inteligentzia emozionala emozioen esanahia ezagutzeko eta horietan oinarrituta arrazoitzeko eta arazoak konpontzeko trebetasun bati dagokio, hau da, emozioak hautemateko gaitasunari, emozioarekin loturiko sentimenak asimilatzeke, emozio horien informazioa ulertzeke eta emozio horiek erabiltzeke gaitasunari.

Beste ikuspegi bati jarraituz, eta buru-moldeen arabera harturik, nabarmentzekoa da emozioei ematen zaien garrantzia, zientzia ofizialean eta garai hartako eskolan ez bezala, eta baita ezagutza integratzeke eta era argiagoan publiko zabalari itzultzeke ahalmena ere.

2.1.3. Inteligentzia emozionalaz harago


Hernandezek (2002) "Buru-moldeak: inteligentzia emozionalaz harago" proposamenean dioenez –hurrengo kapituluan landuko dugu, xeheago–, arazoa zera da: gaitasun emozionala (emozioak ezagutzeko eta erabiltzeke ahalmen kognitiboa) eta gauzatu beharreko atazaren konplexutasuna (norberaren emozioen konplexutasun-maila) bereiztea. Proposamen horretan, auzi operatiboen aldeko apustua egiten du, eta ez hainbeste gaitasunak neurtzeari begirakoa eta estrategia kognitibo-emozionalak

hautemateko eta hobetzeko adimen-koizienteak lortzeari begirakoa. Alde horretatik, molde kognitibo-afektiboak unitate konkretuak dira eta horien gainean jardun dezakegu, nolabait, inteligentzia emozionalaren kontzeptuaren atzean dauden balioespenei heldu gabe –adibidez inteligenteagoa izatea edo hain inteligentea ez izatea–.

Hala, bada, inteligentzia emozionalak, Golemanek (1996) edo are Salovey eta Mayerrek (1993) aurkeztu duten moduan, inteligentziaren baldintza guztiak beteko balitu, garrantzi handiko muga bat topatuko luke, inteligentzia tradizional kuantitatiboak zuen muga bera, alegia. Inteligentzia horrek neurtzen duena emaitza da, “zenbateko” bat, bere gaitasunaren kuantifikazioa. Aldiz, argibide handirik ez luke emango gai emozionaletan inplikaturako pentsamendu-estrategiei edo “nola” galderari buruz. Jakina denez, ezagutza hori ezinbestekoa da pertsona hezteko, birgaitzeko edo pertsona gisa aurrera egiteko. Ildo horretatik, molde kognitibo-afektiboek adierazten dituzten autoerregulazio-estrategiak erabiltzearen eta ikertzearen aldeko apustua egiten da. Hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, estrategia horiek pentsamendu egoinplikatioaren unitate sinpleak dira, eta era operatiboan atzeman eta azter daitezke, baita eraldatu eta behar bezala bideratu ere (Hernandez, 2002, 2004).

Inteligentzia emozionala bizitzen eta elkarbizitzen jakiteko inteligentzia zabalagoaren parte bat da, inteligentzia sozio-afektibo bat. Gutxienekoa inteligentzia arrazionalarekin lotura edukitzea da. Garrantzizkoena adimenak subjektuari bere burua hobeto ezagutzen eta bere burua hobeto bideratzen laguntzeko dituen estrategiak dira. Ezagutzeko eta bideratzeko gaitasun edo potentzial horri *inteligentzia edo potentzial sozio-afektibo* deritzo, nagusiki. Garrantzizkoa zera da: norberaren ezagutzak, emozioak eta jokabideak ezagutzen eta gobernatzen dituzten estrategia kognitiboak aintzat hartzea (Hernandez, 2002).

Golemanek deskribaturiko I. Emozionalari buruzko kritiken eta proposamen alternatiboen laburpen grafikoa (Iturria: Hernandez, 2002, 99. or.)



Irudiko testuaren itzulpena:

Inteligentzia Emozionalak...: 1) emozioetan eragina duten alderdi kognitiboak bere baitan hartu behar lituzke. 2) "Inteligentzia arrazionalako" testekin nolabaiteko antza eduki behar luke. 3) Trebetasunak neurtu beharko lituzke, eta ez mugatu autoinformeetara

Inteligentzia Emozionala ez litzateke identifikatu behar honako hauekin: 1) Balioekin (pertsona zintzoak). 2) Motibazioarekin (lorpena, saiamena). 3) Nortasunarekin (kanporakoitasuna, malgutasuna). 4) Egokitzapenarekin (emaitza da, baina ez IE-rena soilik).

Inteligentzia Emozionala Inteligentzia sozio-afektiboaren osagai bat da eta honako huez dihardu: 1) Alderdi kognitiboa. 2) Alderdi afektiboa. 3) Alderdi konduktuala.

2.2. BURU-MOLDEAK: DEFINIZIOA

Psikologia konduktualak arlo zientifikoari egindako ekarpenei esker, badakigu pertsonen jokabide-ohitura jakin batzuk dituztela. Hala ere, giza adimenak badu barne-ohiturak edo jokabideak eraikitze gaitasuna ere, munduari eta bizitzari buruz duen pentsamoldearen bidez. Zehazki, estrategia kognitibo-emozionalak dira horiek, errealitatea ikusteko eta interpretatzeko dugun moduan. Estrategia horiek ohitura mental bihurtzen dira azkenean, edo pentsamolde-eredu, Hernandezek (2002) *“buru-molde”* deritzenak, azkenean norberak bere inguruko mundua hautemateko, interpretatzeko eta horri aurre egiteko duen modu berezia moldatzen eta itxuratzen duten ohiturak direlako (Hernandez, 2004).

Buru-moldeen garrantzia era enpirikoan egiaztatu dute, aztertuz molde horiek nolako garrantzia duten pertsonen zorientasunean, adaptazioan, errendimenduan edo eraginkortasunean (Hernandez, 1996, 1998).

“Molde”² hitzak tresna bat iradokitzen du, forma edo eite jakin bat duen “edukitzaile” bat, barrura sartzen den “edukia” “moldatzen” duena. Badakigunez, askotariko moldeak daude,

²

molde. 1. Gauzaki barne-hustua, bertara isurtzen den oreari edo gai urtuari forma ematen diona.

Iturria: Euskal Hiztegia, Ibon Sarasola

flanari, opilari, material industrialei... forma emateko moldeak. Moldeak, beraz, "formatuarekin" du zerikusia, forma ematen baitu.

Buru-moldeak egoimplikaziozko egoeretan errealitatea interpretatzeko eta errealitateari aurre egiteko modu ohiko eta pertsonalak dira; hau da, pertsonak beren interesak eta emozioak kolokan jartzen dituen errealitate bati aurre egiteko dituzten eta egoera horietan erreakzionatzeko dituzten moduak. Moldeak betaurrekoen lenteen modukoak dira, gauzak era jakin batean ikusarazten dizkigute. Pixkanaka, mundua ikusteko eta interpretatzeko lente batzuk eraikitzen dira.

Moldeek errealitatea irazten dute: zinema kamera baten modura, hainbat laukiratze eta mugimendu erabiliz, adimenak angelu desberdinetatik eta era desberdinetan fokatzen edo ikusten du errealitatea. Ikuspegi batzuk errealitatearen alderdi negatiboenak nabarmentzen espezializatzen dira, akatsak, okerrak nabarmentzen. Beste batzuek, aldiz, alderdi positiboak erreparatzen diete. Ikuspegi batzuek gertatzear dena neurritik ateratzen dute, eta gero, gertatutakoa txikiagotzen dute; badira, halaber, ez daukagun horretan oinarritzen diren ikuspegiak, etab. Ikuspegi horiek guztiek erreakzio jakin batzuk eragiten dituzte, eta ikuspegiaren araberrako erreakzio horiek ohiko bihurtzen direnean (moldeak), pertsona bakoitzari errealitatea era jakin eta berezi batean ikusarazten eta sentiarazten diote.

Adibide zehatza: Javierrek besteengan asmo gaiztoak hautemateko joera du. Hala, adibidez, bi lagun berriketan ikusten dituenean, beraz gaizki esaka ari direla pentsatzeko joera du. Norbaitek kalean berarekin estropezu egiten duenean, haserretu egiten da, besteak asmo txarrez jokatu duen susmoa hartuta. Emaztegaiak beste gizon bati begiratzen badio, harekin egon nahi duelako dela pentsatzen du, eta horrela, beste hainbat egoeratan. Zergatik gertatzen zaio hori Javierri? Errealitatea interpretatzeko modu jakin bat eraiki duelako, gauzak oker doazkiolako edo horrela jaiio delako (www.tafor.net/psicoaula).

Jakina, pertsona horrek errealitatea interpretatzeko era jakin bat eraiki du, buru-molde edo ohitura mental jakin bat, besteen asmo txarra hautemanarazten diona eta irudipenen arabera jokatzera daramana. Molde horri –aurrerago azalduko dugu xeheago– Jarrera Hostiligeniko³ deritzo, eta besteekiko amorrua, zeloak edo haserrea sentiarazten dio subjektuari askotan.

2.3. BURU-MOLDEEN EZAUGARRIAK

Moldeek nortasunean duten eginkizun zehatza finkatzeko eta izaera psikologikoko beste prozesu batzuetatik bereizteko, moldeen ezaugarrien azalpena egingo dugu orain:

³ Jarrera Hostiligenikoa: pertsonekin loturiko zailtasunak, arazoak edo gatazkak aurreratzean datzan moldea da, bereziki, pertsona horiek norberaren kontra asmo txarrez jokatzen duten ideia dakarrena; hala, norberari gertatzen zaizkion kalteak besteei egozten dizkie jarrera hau duen pertsonak, eta iruzurra eta gezurra ikusten duthaien jardunean eta errealitatean oro har.

1.- Moldeak ez dira eskema psikologikoak: eskema psikologikoak (Pascual-Leone, 1978) errealitatearen adierazpen sinplifikatu eta orokortuak dira. Beraz, eduki edo errealitate jakin batzuen eskema murrizak dira, adibidez, zinemaren adierazpena, jatorri baten adierazpena edo ezkontza baten adierazpena. Eskema psikologikoaren kontzeptua informazioaren prozesamendua aztertutako teorialariek (Pascual-Leone, 1978; Case, 1985) deskribaturiko "script" deritzonaren hurbileko kontzeptua da.

Aldiz, moldeek ez dute errealitatea adierazten, errealitateari aurre egiteko edo errealitatea interpretatzeko moduak baizik; hau da, adimenak aritzeko dituen estrategiak edo moduak dira. Izatekotan, "formatuaren" eskemak lirateke, edo beste era batera esanda, egoera jakin batean adierazten eta erreakzionatzen den moduaren eskemak. Eskemaren eta moldearen arteko desberdintasunaren adibide gisa, Hernandezen honako koadro hau erabil daiteke (2004, www.tafor.net/psicoaula).

ESKEMA PSIKOLOGIKOAK		BURU-MOLDEAK
LANA: <i>"lanean pentsatzen dudanean lan-jantzi urdina soinean eta mailua eskuan dituen gizon bat datorkit burura"</i> .	>	LANA: <i>"lanean pentsatzen dudanean, egin behar dudana guztia eta eskatzen didan ahalegina datorkit burura"</i> .

2.- Moldeak ez dira estilo kognitiboak: estilo kognitiboak pertsonen ezagutzeko edo ikasteko dituzten modu bereziak dira, pertsonen ezagutza bereganatzeko dituzten moduak. Aldiz, moldeak lotuago daude subjektuak bizitzan jarduteko duen moduarekin (Carretero y Palacios, 1982; Palacios y Carretero, 1982).

3.- Moldeak ohiturak dira, baina ohitura mentalak. Izan ere, adimenak errepikapenez ikasten ditu eta adimenak era errepikakorrean dihardu, egoerak berdinak izan ez arren ere. Hala erakusten du Hernandezen honako grafiko honek (2004, www.tafor.net/psicoaula)

ASKOTARIKO EGOERETAN		ANTZEKO ERREAKZIOAK
LANA	>	<i>“Lanak dirua ematen du, baina baita nekea ere”.</i>
MAITASUNA	>	<i>“Maitasuna polita da, hasieran; baina, gero, amaitu egiten da”.</i>
PERTSONA JAKIN BAT	>	<i>“Pertsona adeitsua da, baina ez dakit zer duen ezkutuan gordeta”.</i>

4.- Moldeak era indibidualean eraikitzen dira: pertsona bakoitzak bere moldeak eraikitzen ditu, baina norberaren moldeetan eragina dute besteek ere, besteen moldeen adierazpenean esaterako. Adibidez, lagunarte edo familia batean gauzei akatsak bilatzeko joera badago –“Ebaluazio Selektibo Negatiboa” deritzona–, horrek

eragina izan dezake talde horretako kideek errealitateaz egiten duten eraikuntzan, beren moldeetan.

5.- Moldeak gutxi asko finkoak dira, bizitzako esperientzien bidez finkatu direlako ohitura moduan; baina horien ezagutzaren eta horiek aldatzeko plan sistematikoen bidez, aldatu egin daitezke, subjektuaren beraren gaitasun metakognitiboetan oinarrituriko autoerregulazio-prozesuen bidez edo prozesu terapeutiko baten barruan.

6.- Moldeak egoinplikaziozko egoeretan garatzen dira: ez delako errealitate "neutro" bat, baizik eta "ni" a konprometituta dagoen errealitate bat (egoinplikazioa). Eta "ni" a errealitate horretan konprometituta dago, norberaren interes eta emozioekin bat egiten duelako. Hala ez balitz, buru-moldeez aritu ordez, estilo kognitibo batez arituko ginateke. Hala ikus daiteke Hernandezen honako grafiko honetan (2004, www.tafor.net/psicoaula).

EGOERA NEUTROAK		EGOINPLIKAZIOZKO EGOERAK
Laranjaen ezaugarriak.	>	<i>"Laranjaek niretzat duten erakargarritasuna".</i>
Lan-motak.	>	<i>"Lana niretzat zer den".</i>
Maitasunaren eta erasoaren arteko desberdintasuna.	>	<i>"Maitasuna niretzat zer den".</i>
Pertsona jakin baten neurri fisikoak.		<i>"Zer da pertsona hori, niretzat?"</i>

Aurrez azaldutakoaren arabera, begi-bistakoa da moldeen funtzionamenduak berebiziko garrantzia duela eguneroko bizitzako adaptazioetan: errealitatea hautemateko, interpretatzeko eta errealitateari aurre egiteko eraiki den moduaren arabera, hau da, norberaren buru-moldeen arabera, bizitzan nabarmenagoak edo murrizagoak izango dira adaptazioa, funtzionaltasuna eta zoriontasuna. Moldeek zehazten dute izaera eta bizitzan jarduteko modua; hortaz, bizi-inteligentzia moduko bat dira, inteligentzia emozional edo sozio-afektibo moduko bat, ez problema konplexuak konpontzeko gaitasuna zehazten duena, edo hitz-sorta bat ikasteko gaitasuna zehazten duena, edo gertaeren arteko erlazioez jabetzeko gaitasuna zehazten duena (Adimen Koefizienteak edo inteligentzia arrazionalak egiten duen moduan), baizik eta eguneroko bizitzan eraginkortasunez moldatzeko eta defenditzeko gaitasuna zehazten duena.

Azkenik, gogoeta egin beharko genuke molde kognitibo-afektiboen balizko oinarri neurologikoari buruz. Ikaskuntzak neurona-zirkuitu jakin batzuk sendotzen ditu; beste batzuk, aldiz, ahuldu egiten dira, ez erabiltzearen poderioz. Beraz, ikaskuntzaren bidez sendotzen diren zirkuituek buru-molde diren ohitura batzuk osatzen dituzte. Beraz, buru-moldeak gure garunak eraikitako eta errealitatea hautemateko, interpretatzeko eta errealitateari aurre egiteko modu berezi eta idiosinkrasikoak osatzen dituzten ohiturak

dira. Horren guztiaren alderdi positiboa da jakina dela garuneko loturak ez direla zurrinak eta bizitza guztian zehar dagoela ohitura berriak ikasteko aukera; neurona-sareen malgutasunaren ageriko erakusgarria da, adibidez, *neurona ispiluen* deskribapen berria (Rizzolati eta Sinigaglia, 2006).

Moldeak jaio eta egin egiten direla esan daiteke. Jaiotzean, jarrera batzuk daude, baina bizitako esperientzien bidez eta ingurunean gertatzen den guztiaren bidez kristalizatzen dira era batera edo bestera. Hain zuzen ere, nortasuna ez da hutsean jaiotzen; badira aurretiko joera genetiko batzuk (genoma), baina joerak besterik ez dira. Eta badira ingurumen-joera batzuk ere, “psikoma” osatzen dutenak. Alderdi horretatik, moldeak giza “psikoma” baten modukoak direla esan liteke (Hernandez, 2004). Moldeak esperientzien bidez taxutzen dira; hala, amaierako emaitza ez dago sortzetiko joeren mende soilik, esperientzia pertsonalen mende ere badago. Moldeen eraikuntza-prozesua ulergarria da konstruktibismoaren, innatismoaren eta modularismoaren marko teorikoan; marko hori aurrekarien atalean azaldu dugu dagoeneko (2.1.)

2.4. BURU-MOLDEEN SAILKAPENA

Moldeak askotarikoak izan daitezke, beren eraikuntza-aukera indibiduala baita; baina orain artean hainbat lanetan aurkitutakoak

(Hernández, 1995, 1996a, 1996b, 1996c; Hernández y Rodríguez, 2001; Hernández y Rosales, 1991) 30 molde osaturiko oinarrizko multzo batean bil daitezke. Molde horiek zehazteko, kontuan hartu zen pertsonen adimenean zer gertatzen den ekintzaren aurretik (aurrerapen-moldeak), ekintzan zehar (exekuzio- eta erreakzio-moldeak), ekintzaren ondoren (ebaluazio- eta egozpen-moldeak) eta etorkizuneko ekintzaren arabera (prospekzio-moldeak).

Autoinformeko eskala baten bidez, MOLDEAK galdetegiaren bidez, Pedro Hernandezek (1997) lehen mailako 30 bat faktore atera zituen, analisi faktorialaren bidez, eta buru-molde deitu zien (2.1. taula). Horiek, gero, bigarren mailako 9 faktore edo dimentsio fokaletan bildu edo laburtu zituen; eta, azkenik, hirugarren mailako 3 faktore edo ikuspegi fokaletan bildu ziren (2.2. taula).

2.1. taula. Lehen mailako faktoreak: 30 buru-molde
(iturria: www.tafor.net/psicoaula)

Aurrerapenezko Hiperkontrola	Pentsamenduaren bidez etengabearen errealitatea kontrolatu nahi izatea. Adibidez, <i>“Kezkatu egiten naiz, pentsatuz: aurretik, edo askoz ere lehenago, kezkatzeko joera dut, bueltak eta bueltak ematen dizkiet gauzei, seguru egon eta egingo dudana ongi kontrolatu nahi izaten dut”</i> . Hauxe da horren kontrakoa: <i>“Ez dut ezer planteatzen: lasai egoteko joera dut, gertatu beharrekoa gertatu zain”</i> .
Bizi-inplikazioa	Errealitatean esku-hartzea. Adibidez, <i>“Erabakia hartu eta inplikatu egiten naiz: egoeretan murgiltzen naiz, horiei buruzko gogoeta edo azterketa egiten katramilatu gabe. Sartu egiten naiz eta bizi egiten ditut, besterik gabe”</i> .
Hiperkritizismoa eta Abertsio-aurrerapena	Pentsamendu kritikoak sustatzea eta eragozpenak aurreratzea. Adibidez, <i>“Arriskuak eta arazoak aurreratzen ditu: arriskuak, arazoak edo porrotak imajinatzeko joera dut,</i>

	<i>eta gerta dakidakeena neurritik ateratzen dut”.</i>
Jarrera Hostiligenikoa eta Irudikortasuna	Besteek asmo txarra duten susmoa hartzea eta hori imajinatzea. Adibidez, <i>“Besteek sor diezazkidaketen zailtasunak imajinatzen ditut: jendeak ezustekoan arazoak sortuko dizkidala edo amorratu egingo nauela imajinatzen dut”.</i>
Ebaluazio Selektibo Negatiboa	Arreta alderdi negatibo bati ematea, alderdi positiboak izan arren. Adibidez, <i>“Gauza txarrei erreparatzen diet: alderdi positiborik egon arren, beti akatsei edo eragozpenei arreta emateko joera dut”.</i>
Gabeziak Nabarmentzea	Faltan dugun alderdiren batean oinarritzea, daukaguna alde batera utzita. Adibidez, <i>“Falta dudan horretan oinarritzen naiz: lor dezakedan edo ez daukadan horri arreta gehiago ematen diot, lortu dudanari edo daukadanari baino”.</i>
Autokonfiantza	Norberaren gaitasunean sinestea. Adibidez, <i>“Pentsatzen dudana lortuko dudala sinesten dut, eta egokitzen zaizkidan egoerak konpontzeko gaitasuna badudala pentsatzen dut”.</i>
Inflazioa Etsipena	Gertatuko dena neurritik aterata imajinatzea eta gero lilura galtzea. Adibidez, <i>“Sekulakoak espero izaten ditut: ‘zoragarria izango da’ pentsatzeko edo esateko joera dut. Gero, ez da uste bezala gertatzen, eta etsipenak hartzen nau”.</i>
Ezinezkoa denaren Imantazioa	Lortzen zailak diren nahietan edo helburuetan harrapatuta gelditzea. Adibidez, <i>“Nahi dut, baina ezin: kosta egiten zait nahi dudanari uko egitea, nahiz eta jakin ezinezkoa izango zaidala hori lortzea edo horri eusteak gatazka sortuko didala”.</i>
Ardura Izaerari-emotibitateari Egozte	Arazoak norberaren izaerak sortuak direla pentsatzea. Adibidez, <i>“Nire izaeraren ondorioz: huts egiten badut, porroten bat badut edo gauzak gaizki ateratzen bazaizkit, urduri jartzen naizelako eta nire burua behar bezala kontrolatzen ez dudalako dela pentsatu ohi dut”.</i>
Disoziazio Emozionala	Afektuak ezabatzea edo indargabetzea. Adibidez, <i>“Nire sentimenak alde batera uzteko joera dut: ez inplikatzeko joera, gauzei irrikaz ez begiratzeko joera, ez gozatzeko eta ez sufritzeko joera”.</i>
Zeihartasun Kognitiboa	Arazoei ihes egitea, horiei aurre egin ordez. Adibidez, <i>“Arreta beste zerbaitetan jartzen dut: eragiten didan zerbaitekin topo egiten dudanean, saiatzen naiz horri arreta</i>

	<i>ez ematen, horri bueltarik ez ematen, horri garrantzirik ez ematen”.</i>
Autokonbikzio Inhibitzailea	Norberaren burua ez ekiteko gogatzeta. Adibidez, <i>“Nire urruntasuna arrazoitzen dut: argudioak edo arrazoiak ematen dizkiot neuri buruari, ez ekiteko edo esku hartzeko”.</i>
Debaluazio-aurrerapena	Gertatuko dena gris ikustea, ez inplikatzeko. Adibidez, <i>“Gutxi espero dut: aurkituko dudanarekin gehiegi ez liluratzen saiatzen naiz, are gehiago, gertatu aurretik horri balioa edo garrantzia kentzen saiatzen naiz”.</i>
Onespen Emozionala	Akatsak onartzea eta toleratzea, eta sentimenak bideratzea. Adibidez, <i>“Gauzak bideratzen saiatzen naiz: porrotarekin edo eragiten didan zerbaitekin topo egiten dudanean, lagungarri izango zaizkidan edo besteentzat baliagarri izango diren irtenbide posibleak bilatzen saiatzen naiz”.</i> Hauxe da horren kontrakoa (-): <i>“Beste egoera batzuetara bideratzen ditut nire sentimenak: eragiten didan, haserretzen nauen edo amorratzen nauen zerbait topatzen dudanean, beste pertsona edo egoera batzuetan hustuz erreakzionatzen saiatzen naiz”.</i>
Hutsegiteak Zuritzea	Porrotak zurrizteko aitzakiak eta desenkusak bilatzea. Adibidez, <i>“Arrazoiak bilatzen ditut: neure hutsegiteak direnean, horiek zurrizten saiatzen naiz, neure buruari edo besteei argudioak eta arrazoiak emanez”.</i>
Doitasuna eta Ikuskapena	Kontuz aritzea eta egiten ari garena aztertzea. Adibidez, <i>“Dena kontrolpean dagoela jotzen dut: doitasuna eta tinkotasuna falta zait egiten dudan horretan, ikasten, lantzen, negoziatzen edo egiten ari naizena behar bezain menderatuta dagoela uste dudalako, baina gero zintzilik geratzen zaizkit gauzak”.</i>
Aurre-egite Lausoa	Planteamendu lausoak eta nahasiak egitea. Adibidez, <i>“Zalantza handiak sortzen dizkiot neure buruari: buelta asko ematen dizkiet gauzei eta ideia asko bururatzen zaizkit, baina gero ez dut jakiten zer erabaki”.</i>
Ahaleginak eta Kostuak Aurreratzea	Sakrifizioak eta nekeak imajinatzea. Adibidez, <i>“Ahalegin handia imajinatzen dut: egoera edo jarduera batean murgiltzeak eskatuko didan lan edo ahalegin guztia imajinatzeko eta zein latza izango den nabarmentzeko joera dut”.</i>

Arrakastaren Egozpen Soziala	Norberaren arrakastaren arduradunak besteak direla pentsatzea. Adibidez, <i>“Besteen jokabide edo portaerarengatik: asmatzen badut, arrakasta badut edo gauzak ongi ateratzen bazaizkit, mesede egiten didaten edo laguntzen nauten pertsonak daudelako dela pentsatu ohi dut”</i> .
Egozpen Magikoa	Norberari gertatzen zaionaren arduradunak zortea edo beste faktore misterioitsu batzuk direla pentsatzea. Adibidez, <i>“Norberak ez dakizkien gauzengatik: huts egiten badut, porrot egiten badut edo gauzak gaizki ateratzen bazaizkit, norberaren kontra dauden indarren, patuaren edo zorte txarraren ondorioz dela pentsatu ohi dut”</i> .
Ardura Estrategiei Egoztea	Gertatzen zaigunaren arduraduna jokabidea dela pentsatzea. Adibidez, <i>“Nire estrategengatik: huts egiten badut, porrot egiten badut edo gauzak gaizki ateratzen bazaizkit, prozedura edo baliabide egokia erabili ez izanaren ondorioz dela pentsatu ohi dut”</i> .
Ardura Ahaleginik Ezari Egoztea	Gertatzen zaigunaren erantzukizuna ahaleginik ezarena dela pentsatzea. Adibidez, <i>“Ahalegin nahikoa egin ez dudalako: huts egiten badut, porrot egiten badut edo gauzak gaizki ateratzen bazaizkit, ahalegin nahikoa egin ez izanaren ondorioz dela pentsatzen dut, gehiago lan egin ez izanaren ondorioz dela”</i> .
Nahimenezko Autokonbikzioa	Norberaren burua ekiteko gogatzeta. Adibidez, <i>“Nire burua gogutzen dut, inplikatzeko: egoeran irrikaz murgiltzeko gogutzen dut neure burua eta neure buruari esaten diot ‘egin egingo dut, nahiz eta gogorik ez izan’.”</i>
Automotibazio Proaktiboa	Norberaren burua animatzea: Adibidez: <i>“Neure burua adoretzen dut, esanez, adibidez, ‘pentsa ezazu emaitzetan’, edo ‘gogorik izan ez arren, edo zaila izan arren, gero eta errazagoa gertatuko zait’, edo ‘eutsi, gutxi gelditzen da-eta’.”</i>
Aurreikuspeneko Aurrerapen Eraikitzailea	Zer gertatuko den aurreikustea, era eraikitzailean. Adibidez, <i>“Gogoeta egin eta egoera aztertzen dut: egoera lasai aztertzeko joera dut, aurki ditzakedan alderdi onak eta txarrak imajinatuz”</i> .
Emozioen gaineko Aurrerapenezko	Erreakzio emozionalak aurreikustea, horiek kontrolatzeko. Adibidez, <i>“Nire gogo-aldartea aurreikusten</i>

Kontrola	<i>dut: esku hartzean lasai egoteko eta ez urduritzeko zer egin behar dudan pentsatzen saiatzen naiz”.</i>
Arrakastaren Egozpen Internalista	Arrakastaren erantzulea norbera dela pentsatzea. Adibidez, <i>“Nire tasunengatik: asmatzen badut, arrakasta badut edo gauzak ongi ateratzen bazaizkit, nire trebetasunen, izaeraren edo naizen bezalakoa izatearen ondorioz dela pentsatu ohi dut”.</i>
Errentagarritasunari Begirako Eraldatzea	Zailtasunentzako alternatiba positiboak bilatzea. Adibidez, <i>“Zorigaitzak ondasun bihurtzen ditut: desengainuei, zoritxarrari edo ezbeharrei zentzu positiboren bat bilatzeko joera dut”.</i>
Arrakastaren Hiperbalioespen-aurrerapena	Arrakastak aurreratuz norberaren burua motibatzea. Adibidez, <i>“Arrakastak aurreratzen ditut: lor ditzakedan balizko abantailak eta arrakastak imajinatzeko joera dut”.</i>

Lehen aipatu den Moldeen egitura faktorialaren arabera, bigarren eta hirugarren mailako faktoreen azalpena egingo dugu orain, baita molde horiek inguratzen dituzten ikuspegi eta dimentsio fokalena ere. Horrela osatuko dugu, beraz, Hernandezen molde kognitibo-afektiboen teoria, era enpirikoan (2.2. taula).

2.2. taula. Bigarren mailako faktoreak (ikuspegi fokalak) eta hirugarren mailako faktoreak (dimentsio fokalak) (iturria: www.tafor.net)

I. IKUSPEGI FOKALA: INPLIKAZIOZKO/BIZI-IKUSPEGIA	
1. DIMENTSIO FOKALA: Zuzena-bitala, hiperkontrolatua-gogoetatsua aurrez aurrekoa Gogoeta-funtzioa neurritik atera gabe inplikatzeko eta ekiteko joera ezaugarri duen ikuspegi mentala da; gogoeta hori eraginik gabea edo interferentea izan daiteke.	
Bizi-inplikazioa (+)	Gogoeta edo analisisa murrizteko moldea edo estrategia da; zuzenean ekiten, erabakitzen, inplikatzeko da, errealitatea besoak zabalik hartuz eta horri lehenengo kolpean aurre eginez, baina, jakina, bulkaden arabera jarduteak dakartzan arrisku
Aurrerapenezko Hiperkontrola (-)	Molde edo estrategia hau egoerak kontrolatzean eta horietan seguru aritzean datza, gogoeta-funtzioa alden errealitatearen aurkitzearen

Hiperkontrola (-)	horietan seguru aritzean datza, gogoeta-funtzioa aldez aurretik neurritik aterata, denbora askoz lehenago ere, planteamendu operatiborik gabe, urduritasuna, kezka, galderak, zalantzak eta irudien eta ideien errepikapena adieraziz.
-------------------	--

II. IKUSPEGI FOKALA: DOITZE-IKUSPEGIA

1. DIMENTSIO FOKALA: Positibizatzailea eta neurritsua, Negatiboaren eta Distortsionatzailearen aurrez aurrekoa
Errealitatearen alderdi positiboetan oinarritzearen eta horiek aintzat hartzearen

Ebaluazio Selektibo Negatiboa (-)	Norberari gertatzen zaiona edo lortu duena ebaluatzeko garaian, alderdi negatiboei, eragozpenei, ematen die arreta, eta zera esaten dio
Hiperkritizismoa eta Abertsiozko Aurrerapena (-)	Arriskuak, arazoak, porrotak aurreratzen eta imajinatzen dira... Alderdi negatiboei, akatsei, kaltegarri izan daitekeenari begiratzeko joera da
Jarrera Hostilgenikoa (-)	Zailtasunak, arazoak aurreratzen dira, batez ere besteak asmo txarrez ari diren susmoak bultzatuta. Besteen ekintzetan eta errealitatean oro
Gabeziak Fokalizatzea (-)	Norberari gertatzen zaiona edo lortu duena oso arrunta da. Norberak falta duen horretan jartzen du arreta guztia, ez daukan horretan, norberak daukan horretan baino gehiago.

Gabeziak Fokalizatzea (-)	Norberari gertatzen zaiona edo norberak lortu duena ebaluatzeko orduan, norberak falta duen horretan jartzen du arreta guztia, ez daukan horretan, norberak daukan horretan baino gehiago.
Inflazioa-Etsipena (-)	Liluraren eta etsipenaren artean kolokan ibiltzea ezaugarri duen molde edo estrategia da, oinarri depresibokoa. Helburua edo lortu nahi dena neurritik ateratzen da, ez prozedura gisa, baizik eta planteamendu neurrigabe gisa, planteamendu ez-errealista, magiko gisa; helburua edo lortu nahi dena mirariz ia, sakrifiziorik eta ahaleginik gabe, ezer egin gabe etorriko den itxaropena sortzen da. Eta, gero, etsipena eta lilura galtzea dator.
Ardura Izaerari-erotibitateari Egoztea (-)	Arrakastak eta porrotak norberaren umoreari, izaerari edo gogo-aldarteari egozteko molde edo estrategia da, eta, beraz, lotura estua du etsipenerako eta lilura galtzeko "ezintasunezko" jarrerarekin.
Autokonfiantza (+)	Molde edo estrategia honen ezaugarria nork bere buruarekiko fede itsua edukitzea da, norberaren ahalmenekiko, edozein egoeratan arrakasta izateko aukerekiko fede itsua edukitzea, bestekin konparatuta, edo topatzen diren arazo eta eragozpenei etekina ateratzeko gai sentituta.
Ezinezkoa denaren Imantazioa (-)	Molde edo estrategia honen ardatza amore ez ematea da, desio egingaitz, ezinezko, kaltegarri edo arazo- eta gatazka-sortzaileei atxikita gelditzea; horretarako, aukera adierazten duten gezurrezko hipotesiei eusten zaie.
2. DIMENTSIO FOKALA: Sintonizatzailea, Disoziatzailearen aurrez aurrekoa Aurre-egite kognitiboaren eta afektiboaren ikuspegi mentala da, subjektuak horren bidez aurre egiten die arazoei eta eragozpeni, eta errealitateak sortzen dituen emozioei. Honako hau litzateke kontrakoa: arreta beste zerbaitetan jartzea, arazoei ezikusiarrena egitea edo arazoen kontrako fantasiak asmatzea, sentimenak arazoei ez lotzea, inplikaziorik eza edo gauzei hotz eta urrunetik begiratzea, ez sufritzearren.	
	Molde edo estrategia honen gakoak hauek dira: sentimenak alde batera uztea, erauztea, ez

	inplikatzea, gauzei hotz eta urrunetik begiratzea, irrikarik gabe, nahiz eta ez gozatu, ez sufritzearren... Horretarako, interesa ezabatzen da eta balizko emaitza grisagoa ikusten da; edo hiperanalisia egiten da eta irrigarri uzten da gauzen eta pertsonen atzean dagoena, edo arreta beste zerbaiti ematen zaio, besterik gabe.
Zeihartasun Kognitiboa (-)	Kontzientziaren arreta beste zerbaitetan jartzeko moldea edo estrategia da, ahaztearena edo kontrako erreakzio edo fantasiak eragitearena, norberaren hutsegiteak topatzean edo norberarengan eragin negatiboa duen zerbait topatzean.
Autokonbikzio Inhibitzailea (-)	Errealitatearekiko atxikimendurik eza eta urruntasuna neurritik ateratzeko moldea da, inhibitzeko eta ez ekiteko arrazoiak eta argudioak ematen dizkio nork bere buruari, ezintasuna duela pentsatuz, etsipenari amore emanez, norberaren gaitasunei balioa kenduz, balizko emaitzak grisago ikusiz edo baldintza hipotetiko eta irrealak planteatuz.
Debaluazio-aurrerapena (-)	Lortu nahi denari balioa kentzeko edo hori grisago ikusteko moldea edo estrategia da; itxaropenak deuseztatzen saiatzen da, irrika ezabatzen, gerora lilura ez galtzeko. Beraz, etor daitezkeen ondorio kaltegarriak edo negatiboak imajinatzea ere erabiltzen da etorkizuneko minetik babesteko ezkutu gisa.
3. DIMENTSIIO FOKALA: Bateratzailea, Defentsazkoa-desbideratuaren aurrez aurrekoa Porrotak eta frustrazioak onartzeko eta toleratzeko joeraren ikuspegi mentala da; etsipena beste alderdi edo egoera batzuetara hedatzea edo desbideratzea saihesten da, eta irtenbideak aurkitzeko ahalegina egiten da.	
Akatsak zuritzea (-)	Akatsak zuritzeko askotariko arrazoiak eta argudioak ematean datzan moldea edo estrategia da, edo sentimenak beste egoera batzuetara bideratzekoa.
	Frustrazioen ondoriozko emozio desatseginak onartzean datzan moldea edo estrategia da; ez da

	<p>ondoeza beste pertsona edo egoera batzuetan husten, ez dira sentimenak alboratzen, ez zaio egoerari ihes egiten, ez da nor bere baitara biltzen; baliagarri izan daitezkeen eta sortutako emozioak bideratzeko egoki izan daitezkeen irtenbideak bilatzean datza gehiago.</p>
<p>4. DIMENTSIO FOKALA: Operatiboa, Inoperantearen aurrez aurrekoa Atazei aurre egiteko eta arazoak eraginkortasunez konpontzeko joera dakarren ikuspegi mentala da; ez dira arazoak barreiatzen, ez da planteamendu irrealik egiten, ez dira arazoak saihesteari begirako argudioak ematen, planifikatu egiten da, zehaztasuna bilatzen da, denbora eta egin beharreko urratsak kontrolatzen dira, eta balizko akatsak zuzentzen eta aurrerapenak finkatzen dira.</p>	
Doitasuna eta Ikuskapena (+)	<p>Sternbergen inteligentziaren metaosagaien alderdi bati loturiko moldea edo estrategia da, eraginkortasuna bermatzean datza, doitasunez, egiten dena ikuskatuz eta finkatuz, ezer “zintzilik” utzi gabe, sendotasun-itxura emanez eta iraunkortasunez.</p>
Aurre-egite lausoa (-)	<p>Planteamendu lausoak, ez-errealistak edo lortu nahi denari begira eraginkortasun gutxikoak egitean datzan moldea edo estrategia da. Horrela, egin beharrekoa atzeratzen da, era inozoan kalkulaten da dagoen denbora, eta lanak eta eginbeharrak pilatu egiten dira, ideia, proiektu eta zalantza ugari sortzen dira.</p>
Ahalegina eta kostua aurreratzea (-)	<p>Ahaleginak, sakrifizioak, zailtasunak imajinatuz eta zalantzen eta etsipenaren ondorioz kostu pertsonalaren arabera “negatiboki kargatzean” datzan moldea da.</p>
<p>5. DIMENTSIO FOKALA: Egozpen heteroerreferentzialik gabea Arrakastak eta porrotak norberaren erantzukizunetik kanpoko errealitatei –magiari, arerioei edo norberaren izaerari– egozteak saihesteko ikuspegi mentala da.</p>	
Arrakastaren egozpen soziala (-)	<p>Arrakastak besteei, laguntzen duten edo mesede egiten dioten beste batzuei egoztean datzan moldea edo estrategia da; baina porrota ere besteei egozten zaie, neurri arinagoan bada ere. Mendekotasun sozial nabaria erakusten du.</p>
Egozpen magikoa (-)	<p>Arrakastak edo porrotak indar ezezagunei, adibidez, patuari, zoriari, zorteari... egoztean</p>

	datzan moldea edo estrategia da.
III. IKUSPEGI FOKALA: OPTIMIZATZAILEA	
1. DIMENTSIO FOKALA: Optimizazio autokritikoa, Autokritikarik ezaren aurrez aurrekoa	
Ardura estrategiei egoztea (+)	Arrakastak eta, bereziki, porrotak norberaren estrategiei edo prozedurei egozteko moldea edo
Ardura ahaleginik ezari egoztea (+)	Porrotak norberaren ahaleginik edo ardurarik ezari egoztean datzan moldea edo estrategia da;
2. DIMENTSIO FOKALA: Prestaketa-optimizazioa, Aukerak kontuan ez hartzearen aurrez aurrekoa	
Nahimenezko autokonbikzioa (+)	“Nahimenaren indarra” deritzona abian jartzean datzan moldea edo estrategia da; norberari
Aurreikuspenezko aurrerapen eraikitzailea (+)	Aurreikuspenean eta prospekzioan –bizitzari aplikatuak– datzan moldea da. Gogoeta egiten da
Automotibazio preaktiboa (+)	Autoerrefortzuak administratzeko moldea edo estrategia da; norberari adorea ematean datza,

	edo prozesuetan bertan, etorkizuneko lorpenetan, abantailetan... pentsatuz.
Emozioen gaineko Aurrerapenezko Kontrola (+)	Aurreikuspenaren moldea edo estrategia da, emozioei eta egoera jakinetan emozioak era egokian bideratzeari eta egoerei irtenbide positiboa emateari aplikatua, autokonfiantzan eta optimismoan oinarritua.
<p>3. DIMENTSIO FOKALA: Optimizazio Autoindartzailea, Geldoa-automugatzaillearen aurrez aurrekoa</p> <p>Norberaren boterea indartzean datzan ikuspegi mentala, balizko arrakastak aurreratuz edo arrakasta norberaren erantzukizunari egotziz, edo automotibatzeko ahalmenari eta norberaren pentsamenduak eta sentimenak era eraikitzaile eta emankorrean eraldatzeko gaitasunari egotziz, jarrera axolagabe, motibaziorik gabe edo automugatzailleak ekidinez.</p>	
Arrakastaren hiperbalioespen-aurrerapena (+)	Ekiteko nork bere burua akuilatzean datzan moldea edo estrategia da, balizko emaitzen arrakastari arreta emanez eta horiek neurritik atereaz; horretarako, garaipena imajinatzen da, garaipenaren abantailak eta ondorioak neurritik ateratzen dira...
Arrakastaren egozpen internalista (+)	Arrakasta nork bere buruari, norberaren ezaugarriei edo izaerari egoztean datzan moldea edo estrategia da; nork bere burua aintzatestea eta optimismoa dira nagusi.
Errentagarritasunari begirako eraldatzea (+)	Bizi-errentagarritasunari begirako moldea edo estrategia da, eta arazo, zorigaitz eta etsipenak arintzeko erabili ohi den "ongi, txarrak kenduta" esaldiaren bidez labur daiteke.

2.5 LABURPEN GISARA

Atal honetan, molde kognitibo-afektiboen teoria psikologia kulturalean eta psikologia garaikidean kokatzeko erabili diren erreferentzia teorikoen laburpena egin nahi da, horien ibilbidearen azterketa labur bat eginez.

Buru-moldeen eraikuntza-prozesuari dagokionez, aipatu beharra dago prozesu horren konplexutasunaz osotasunean jabetzeko aukera ematen duten hainbat marko teoriko daudela psikologia ebolutibo garaikidearen barruan. Lehenik, Hernandezen (2002) proposamenaren eduki konstruktibista nabarmendu behar da, subjektua agente aktibo gisa hartzen duena adierazpenak eraikitzeari eta errealitateari aurre egiteko nahiz errealitatean jarduteko moduak eraikitzeari dagokionez. Ildo horretatik, moldeen proposamenak portaeraren osagaiak (afektiboak eta konatiboak) eransten dizkio munduaren adierazpen soilik kognitiboaren ideiari, Piagetek *Munduaren irudikapena, haurraren* (Piaget, 1973) testuan zehaztu zuen ideiari.

Piageten ideia unibertsalizatzaileari aurre eginez, kultura-testuinguruaren arabera kulturak baldintzatutako errealitatea adierazteko askotariko moduak sor daitezkeela erakusten da. Elementu konstruktibista eta kulturala kulturaren eraginaren bidez artikulatu daitezke, Vigotskyren (1935, 1979) *osaera bikoitzaren legearen* bidez; lege hori zabaltzeko ahalegin berrienak Brunerrek (1991) esanahi partekatuei buruz egindako ekarpena eta M. Colek (1996) formulatutako prolepsiaren kontzeptua ditugu. Buru-moldeak, beraz, planteamendu konstruktibisten eta kulturalisten arteko sintesi bat dira, eta psikologia ebolutibo garaikidean indarrean dagoen testuinguru-paradigma islatzen dute (Valsiner, 2000).

Molde kognitibo-afektiboen teoria bat dator Karmiloff-Smithek (1992b/1994) aurkeztutako adimenaren antolaera modularrekin; egile horrek planteamendu konstruktibistekin uztartu nahi du teoria hori, etengabeko modularizazio-prozesu bat birformulatuz. Adimenaren modularitateak eremu adaptatiboekin batera diharduten moduluen arteko independentzia erlatiboa adierazten du; alderdi horretatik, aipatzekoa da buru-moldeek egoera adaptatiboak adierazteko eta horiei erantzuteko modu bereziak islatzen dituztela. Ikuspegi kualitatibotik begiratuta, paralelismoa ikus daiteke molde batzuen –bereziki, egozpen-moldeen– eta *adimenaren teoriaren* testuinguruan deskribaturiko eduki mentalen artean (Leslie, 1986; Perner, Ruffman, eta Leekam, 1994). Besteen adimenaren teoria bat edukitzea funtsezko baliabide adaptatiboa da garapenean eta bizitza helduan zehar; subjektua inplikatzeko den egoera jakin batzuei aurre egiteko modu espezifikoak kristalizatzeko garaian erabakigarria den *adimenaren teoriaren* funtsezko osagai bat dute moldeek.

Bestalde, moldeen teoriaren eta psikologia garaikidearen beste teoria batzuen artean antzekotasun kontzeptualak badaudela esan daiteke. Moldeek aniztasun adaptatiboa adierazten duten neurrian, Gardnerren (1995) inteligentzia anitzen teoria gogora daiteke (aurreko atal batean azaldu genuen). Buru-moldeek, beren alderdi

afektibotik, Gardnerrek (1995) deskribaturiko inteligentzia intrapertsonala eta interpertsonala biltzen dituzte.

Hurbilago dago, oraindik, Mayer eta Saloveyk (1993) proposatu eta Golemanek (1996, 1999) zabaldutako inteligentzia emozionalaren teoria. Bi teoriak nabarmentzen dute osagai emozionala eta horren erregulazio kognitiboaren garrantzia, 2.1.3. atalean aditzera eman dugunez. Hernandez harago doa, eta portaeraren alderdiak eta inteligentzia emozionalak edo sozio-afektiboak parte hartzen duen egokitzapen-prozesuak azpimarratzen ditu.

Amaitzeko, molde kognitibo-afektiboen teoria Lucariellok (1995) *adimena eta kultura, pertsonan* izenez proposatutako markoan koka daitekeela proposatzen da. 1.2.4. atalean aditzera eman genuenez, pertsonak elkar osatzen dute, elkarren eta errealitatearen osagarri dira. Marko horren arabera, analisi-unitate adierazgarria subjektu bakoitzak errealitatea interpretatzeko eta eraikitzeko dituen moduak dira. Testuinguru horretan, esan daiteke molde kognitibo-afektiboak bat datozela aipatutako analisi-unitate horrekin, Shwederrek (1990) proposatutako elementu subjektiboa garatzen baitu Hernandezek (2002); proposamen horretan, subjektu bakoitza eragile aktibo gisa ageri dira, kultura bereko beste subjektu batzuek partekatutako esanahia duten moldeen eraikitzaile aktibo gisa, eta errealitatea interpretatzeko modu espezifiko eta partekatuak sortzen dira horrela.

II. ATALA:
IKERLAN ENPIRIKOA

3. KAPITULUA:

IKERLANAREN DISEINUA ETA GARAPENA

3.1. HELBURUAK

Lan honen lehenengo atalean planteatu dugunez (1.2.4. atala), desberdintasun psiko-kulturalen ikerketa oso konplexua da, alderdi tekniko-metodologikotik; hala, ikerketa honetan, bi ikuspegi konbinatuz –metodologia kualitatibo bat eta metodologia kuantitatibo bat konbinatuz– kultura-gertaera ulertzeko saiakera egin dugu, helburu nagusi eta orokor gisa. Ikerketa hau, beraz, gizabanakoek beren ingurune kulturalaren eta hezi diren ingurunearen arabera izan ditzaketen balizko desberdintasun psikologikoen ikerketara hurbiltzeko saiakera bat da, bi ikuspegi metodologikotan oinarritua.

Hala, mundu makrosistemiko konplexua xeheago ezagutzeko abiapuntua izango da; eta, esan dugunez, ikuspegi bikoitza kontuan

hartzen duen lehen saiakera metodologiko honek aukera emango du gure aztergaia era zientifikoan lantzeko zer bideri jarraitu beharko zaion argitzeko.

3.2. HIPOTESIAK

3.2.1. Hipotesi orokorra

Ikertutako subjektuen molde kognitibo-afektibo bereizgarriak, hau da, errealitateari buruz dituzten pentsamendu-erreakzio tipikoak, gizabanakoak hezi diren edo/eta bizi diren testuinguru kulturalaren arabekoak dira. Zehazki, ikerketa honek erakutsi duenez, haur euskaldunek lagineko beste talde kultural batzuetako haurrek ez bezalako erreakzio kognitibo-afektiboak dituzte, jaiotzearen eta heziaren kultura-ingurunearen eraginez; hau da, haur horiei buru-molde berezi eta berezi batzuk “formateatu” dizkie beren ingurune kulturalak.

Psikologia kulturalak ezaugarri psikologikoen (ezaugarri kognitibo nahiz sozio-emozionalen) eta kokatuta gauden makrosistema kulturalaren arteko erlazioak aztertu eta egiaztatu ditu (Cole, 1989, 1999; Valsiner, 2000), eta hortik zera ondoriozta daiteke, kasu honetan ere: ingurune kulturala ez ohartzeko moduan baina etengabe “moldatzen” ari da errealitateak jasotzen ditugun estimuluei buruz dugun pentsaera eta sentitzeko modua. Azken

batean, ingurune kultural jakin bateko kide izateak lotura estua du “nortasun kultural” berezi baten eraikuntzarekin (Rodríguez, 1992, 1994a, 1994b, 2000a, 2000b).

3.2.2. Hipotesi espezifikoak:

- Bi poloetatik hautatu diren talde kulturalen bidez, subjektu euskaldunen eta subjektu ez-euskaldunen artean hainbat bereizkuntza-maila daudela egiaztatu dugu, errealitateari erantzuteko prozesu kognitibo-afektibo-motibazionaleri dagokienez. Laginean definitutako zortzi talde kulturaletako bateko kide izateak molde kognitibo-afektibo jakin batzuk edukitzea dakar.

- Laginean definitutako zortzi talde kulturaletako bateko kide izateak adaptazio pertsonalari, eskola-adaptazioari, adaptazio sozialari eta familia-adaptazioari buruzko autoebaluazio-estilo bereizi bat edukitzea dakar.

- Baina erreakzionatzeko estilo horiek aldatu egiten dira adinarekin; hala, hainbat “koadro tipologiko” ager daitezke, bizitzako etapen arabera. Hain zuzen ere, 9 eta 12 urte bitarteko subjektuen artean errealitateari aurre egiteko era afektiboan desberdintasun ebolutibo nabariak daudela ikusiko dugu, eta agerian utziko ditugu, halaber, 9 eta 12 urte bitarteko subjektuen

artean nortasunaren autoebaluazioari buruz dauden desberdintasun ebolutiboak.

3.3. LAGINA

Honako partaide hauek osatu dute lagina: 9 urteko 705 haur (DLHko 4. maila) eta 12 urteko 705 haur (DBHko 1. maila), bi sexuetakoak, Bizkaiko, Kantabriako eta Tenerifeko probintzietako ikastetxe publikoetakoak, landa-inguruneetakoak nahiz hiri-inguruneetakoak, estatus sozio-ekonomikoaren irizpideak kontuan hartuta hautatuak (baxua, ertaina, altua).

Kontuan harturik ikerketaren bitartez subjektuek norberaren kulturaren arabera dituzten molde kognitibo-afektiboak alderatu nahi zirela, 420 subjektu aukeratu ziren, zortzi talde kulturalakoak (3.1. taula):

- Bizkaian jaiotako haurrak, probak euskaraz egin dituztenak (ezaugarri espezifikiko hau duen talde bakarra da), euskaraz eskolatuak; gurasoak Bizkaian jaiotakoak dira, bertan bizi dira, eta biek dakite euskaraz (1. taldea).

- Bizkaitar haurrak, probak gaztelaniaz egin dituztenak (ondorengo talde guztiekiko ezaugarri komuna), euskaraz eskolatuak; gurasoak Bizkaian jaiotakoak dira, bertan bizi dira, eta biek dakite euskaraz (2. taldea).

- Bizkaitar haurrak, probak gaztelaniaz egin dituztenak; aita Bizkaian jaioa da, bertan bizi da eta badaki euskaraz, eta ama ez da Bizkaian jaioa eta ez daki euskaraz (3. taldea).

- Bizkaitar haurrak, probak gaztelaniaz egin dituztenak; ama Bizkaian jaioa da, bertan bizi da, eta badaki euskaraz, eta aita ez da Bizkaian jaioa eta ez daki euskaraz (4. taldea).

- Bizkaian jaiotako haurrak, Bizkaian bizi diren eta euskaraz ez dakiten Espainiako estatuko gainerako lurraldetako etorkinen seme-alabak (5. taldea).

- Bizkaitik kanpo jaiotako haurrak, Espainiako estatuko gainerako lurraldeetatik etorriak diren, Bizkaian orain dela bost urte edo gutxiago bizi diren eta euskaraz ez dakiten gurasoen seme-alabak (6. taldea).

- Kantabrian jaioak diren eta bertan bizi diren haurrak, gurasoak kantabriarrak dituztenak (Corrales de Buelna eta Cabezon de la Sal) (7. taldea).

- Kanarietan jaioak diren eta bertan bizi diren haurrak, gurasoak kanariarrak dituztenak (Tenerife) (8. taldea).

Era berean, erreakzionatzeko estiloetan adinaren arabera gorabeherak gerta litezkeela pentsatuta, ikerketari ikuspegi ebolutiboa ematen saiatu gara, 9 eta 12 urteko haurren laginak erabiliz.

3.1. taula. Lagina

ZENB	TALDE KULTURALA	9 URTEKO SUBJEK.	12 URTEKO SUBJEK.	GUZT.
1	Euskaldunak, euskaraz	30	30	60
2	Euskaldunak, gaztelaniaz	30	30	60
3	Aita euskalduna	15	15	30
4	Ama euskalduna	15	15	30
5	Bizkaian jaioak, etorkinen seme-alabak	30	30	60
6	Bizkaitik kanpo jaioak, etorkinen seme-alabak	30	30	60
7	Kantabriarrak	30	30	60
8	Kanariarrak	30	30	60
SUBJEKTUAK, GUZTIRA		210	210	420

Lagina aukeratzeko irizpide nagusia honako hau izan da: taldeen aldakortasun eta bereizkuntza kulturala, taldeen moldeak konparatzeko xedea aurrez finkatuta dugularik. Euskal kulturagertaera oinarri hartuta, bizkaitarra zehazki, testuinguru horretan kokatua baita ikerketa, zortzi talde konparatibo antolatu dira bi irizpide kulturalen arabera (hizkuntza eta jatorria). Kulturaren “mailakatze” moduko bat finkatu da; euskal kulturaren jaioak eta heziak izanik, eta, gainera, probak euskaraz egin dituztelarik, euskal kulturaren erabat murgilduta dauden haurrak (1. taldea) daude mailaketa horren mutur batean, eta, beste muturrean, berriz, etorkinen seme-alabak izanik, eta Bizkaian bizitzen denbora gutxi daramatenez, ustez euskal kulturako elementu gutxien barneratu

dituztenak (6. taldea). Ikerketaren helburuetarako elementu konparatibo gisa, bi talde kultural bereizi eta hipotetikoki desberdin erantsi dira diseinuan: horietako bat hurbileko habitat batekoa, antzeko ezaugarri geografikoak baina ezaugarri kultural desberdinak dituen (kantabriar haurrak, 7. taldea), eta bestea, geografikoki eta kulturalki urrunekoa (kanariar haurrak, 8. taldea).

Era berean, lagina aukeratzean, beste aldagai sozio-ekonomiko batzuen eragina neutralizatzen saiatu gara (landa/hiria, estatusa). “Generoa” aldagaia ere kontuan hartu dugu, eta, hala, lagineko subjektuen erdiak sexu batekoak, eta beste erdiak, bestekoak.

Subjektuen adina aukeratzeko (9, 12 urte), irizpide ebolutiboari jarraitu zaie, eta “eskola-adina” deritzon taldearen barruan bi adin-une finkatu dira. Hain zuzen ere, 9 urteko neska-mutilak aukeratu genituen, gazteenak zirelako, baina, aldi berean, gai zirelako “arkatza eta papera” erabiltzeko, probak egiteko ezinbesteko baldintza baita hori. Eta, bestalde, 12 urteko neska-mutilak aukeratu genituen, talde ebolutiboaren ezaugarriak betetzen dituzten artean (eskola-umeak, nerabezaro-aurrekoak) zaharrenak direlako.

Unitate konparatibo minimoaren kopurua 30 subjektuan finkatu da, hori baita ikerketaren oinarri kualitatiboetarako behar dena, indarrean dauden irizpide estatistikoaren arabera, 3. eta 4. taldeetan izan ezik (aita euskalduna, ama euskalduna); izan ere, subjektu gutxi daude talde horri dagozkion ezaugarriak betetzen

dituztenak. Edonola ere, aurrerago ikusiko dugunez, zailtasun metodologikoak direla-eta, 60 subjektuk osaturiko taldeak erabili dira analisi estatistikoetan; alegia, talde kultural bakoitzeko bi adin-taldeak elkartu dira, eten ebolutiboa alde batera utzita.

Ikerketaren helburuak azaltzean aditzera eman dugunez, gogoan izan behar dugu, lanaren ikuspegi kualitatiboa dela-eta, ez direla kontuan hartu mota kuantitatiboko beste irizpide estatistiko batzuk (laginaren aukera, subjektu-kopurua, adierazgarritasuna, emaitzak orokortzea, etab.).

3.4. TRESNAK

3.4.1. *TAGINASTE*⁴ (Hernandez, 1991; Rodriguez, 1992): tresna hau, Teide mendiaren magalean hazten den izen bereko Kanarietako landare-espezie endemikoaren omenez hala izena duena, ikerketarako bereziki diseinatu eta landutako tresna proiektibo eta irekia da. Arkatz eta paperez egin beharreko proba bat da, eta taldeka nahiz banaka aplikatu daiteke.

Berez, probak 54 item ditu, horietako 43 irekiak dira -2 ezabatu dira, nekez kategorizatzeko moduko erantzunak dituztelako-, eta beste 11 item itxiak dira. Erreaktiboek izaera anbigua dute, ebaluatutako subjektuengan proiektzioa errazagoa izan dadin.

⁴ Taginaste probako erreaktiboak 3.2. taulan ageri dira. Jatorrizko galdeketa osoa (subjektuei aplikatu zaien moduan) *Ia.tresnak* (II. liburukia) eranskinean ikus daiteke.

Egunerokoak ez diren egoerak dira, ez-ohiko egoerak, aurrez bizi izandako esperientziek erantzuna baldintzatu ez dezaten. Item bakoitzari erantzun ireki eta askea dagokio, eta, beraz, kualitatiboa, esaldi osatugabeetan oinarrituak baitira. Proba honen bidez, subjektuen erreakzio kognitiboak eta afektiboak zedarritu nahi dira, buru-moldeak bereizi nahi dira. 3.2. taulan, *TAGINASTE* izeneko probako erreaktibo guztiak ageri dira, bloke tematikoen arabera ordenatuta (Hernandez, 1990; Rodriguez, 1994).

3.2. taula. TAGINASTE probako errektiboak

ITEM IREKIAK (01-42)			
ITEMA	ERREAKTIBOA	KATEGORIA	ASPEKTUA
1. BLOKEA: EMOZIOAK (ITEMAK 01-06)			
01 ITEMA	Emozioz beterik, oihu egin beharko banu, lehenengo esango nukeena izango litzateke...	Emozio-adierazpena	Orokorra
02 ITEMA	Tristurarik handiena zerk ematen didan esan beharko banu, esango nuke...	Emozio-adierazpena	Tristura
03 ITEMA	Poztasunik handiena zerk ematen didan esan beharko banu, esango nuke...	Emozio-adierazpena	Poza
04 ITEMA	Amorrurik handiena zerk ematen didan esan beharko banu, esango nuke...	Emozio-adierazpena	Amorrua
05 ITEMA	Beldurrik handiena zerk ematen didan esan beharko banu, esango nuke...	Emozio-adierazpena	Beldurra
06 ITEMA	Gauza guztien gainetik gura dudana zer den esan beharko banu, esango nuke...	Emozio-adierazpena	Desira
2. BLOKEA: ERREALITATEA (ITEMAK 07-14)			
07 ITEMA	Mendi tontorrean nago jesarrita, urrunera begira, pentsatzen gelditu naiz. Burura datorkit (pentsatzen dut)...	Pentsamendu librea	Orokorra

08 ITEMA	Zuhaitzez inguraturik, belar gainean ezarrita nago errekaen soinua eta txorien kantuak entzunez. Pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Natura
09 ITEMA	Tribu bat daukat begien aurrean: hango txabolak, umeak korrikan, gizonak ehizan, emakumeak lanean, hango dantzak eta kantuak... Pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Mundu naturala
10 ITEMA	Hiri bat daukat begien aurrean: hango etxe, kale, kotxe, semaforo, jende, bulego, merkatu, lantegi, ikastetxe, zinema toki eta bankuak. Pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Zibilizazioa
11 ITEMA	Arau idatziak daude, trafiko seinaleak daude. Gurasoek aginduak ematen dituzte, maisuek aginduak ematen dituzte, nagusiek aginduak ematen dituzte, poliziek aginduak ematen dituzte... Guk ere geure buruari aginduak ematen dizkiogu eta eginbeharrak betetzen ditugu. Legeak, arauak, aginduak, eginbeharrak..., hori guztia burura datorkidanean, pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Araua
12 ITEMA	Bizitza zer den pentsatzen hasten naizenean: umeak jaiotzen direla, jendeak lan egiten duela, jolas egiten duela, haserretu egiten direla, aberastu, gaixotu, maitemindu... jaiak daudela, pobretasuna dagoela, ezkontzak, sufrimendua, garaipenak, heriotza, urtebetetzeak, eguneroko ahalegina, ametsak eta itxaropenak..., mundua eta bizitza ikusterakoan, pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Mundu-sistema
13 ITEMA	Nik egiten dudana kontutan hartzerakoan..., nire eginbearra, nire eguneroko lana, organizatzea,	Eremu-balorazioa	Ataza

	planifikatzea, berrikustea, zaintzea, sortzea, ikastea...Neuk egiten dudana edo nire lana kontutan hartzen dudanean, pentsatzen dut...		
14 ITEMA	Buruan erabiltzen ditudanean gauza ezezagunak, magikoak, misteriotsuak; ikusten ez ditugun indarrak eta botereak imajinatzean, mundu honetatik kanpo dauden gauzak imajinatzean, pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Beste mundua
3. BLOKEA: BESTEAK (ITEMAK 15-18)			
15 ITEMA	Besteei buruz, jendeari buruz, nik pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Besteak (orokorra)
16 ITEMA	Lagunei buruz, adiskideei buruz, nik pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Besteak (lagunak)
17 ITEMA	Nire familiaz, nik pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Besteak (familia)
18 ITEMA	Maitasunaz, nik pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	Besteak (maitasuna)
4. BLOKEA: "NI" a (ITEMAK 19-24)			
19 ITEMA	Nire inteligentziaz, ikasteko kapazitateaz, nik pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	"Ni" gaitasunak
20 ITEMA	Nire osasunaz eta sendotasunaz, nik pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	"Ni" fisikoa (osasuna)
21 ITEMA	Nire edertasunaz eta itxura fisikoaz, nik pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	"Ni" fisikoa (estetika)
22 ITEMA	Nire borondateaz eta nire burua kontrolatzeko gaitasunaz, pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	"Ni" autokontrola
23 ITEMA	Besteekin harremanak izateko nire kapazitateaz, nik pentsatzen dut...	Eremu-balorazioa	"Ni" soziala
24 ITEMA	Nire gauzak egiteko tankeraz eta nire izaeraz, nik	Eremu-balorazioa	"Ni" orokorra

	pentsatzen dut...		
5. BLOKEA: MOLDEAK ETA ERREAKZIOAK (ITEMAK 25-31)			
25 ITEMA	Itsasoaren aurrean, harkaitzen gainean jesarrita	Pentsamenduaren erreakzio librea	Orokorra
26 ITEMA	Olatu batek ni eta nirekin daudenak hankaz gora jartzen gaitu, itsas barrurantz eramanez, orduan nik...	"Ni"aren jarrera	Hazierako arazoa
27 ITEMA	Igeri eta igeri...	"Ni"aren jarrera	Arazoak jarraitzen du
28 ITEMA	Itsas bazterrera itzuli gura dut, baina norbaitek galarazi egiten dit, nik orduan...	Pertsona arteko arazo baten aurreko erreakzioa	Ebazpen erak
29 ITEMA	Berriro ere galarazten dit eta orduan ez daukat beste erremediorik...	Pertsona arteko arazo baten aurreko erreakzioa (larriagoa)	Ebazpen erak
30 ITEMA	Laguntzeko mukur bat (ohol bat) aurkitzen dut, baina beste naufrago batzuk kendu nahi didate, orduan nik...	Pertsona arteko arazo baten aurreko erreakzioa (oraindik larriagoa)	Ebazpen erak
31 ITEMA	Banoa aurrera, nire atzean norbait itotzen ari dela ikusten dut, eta nik...	Altruismoa	Laguntasun portaera
6. BLOKEA: LEHENTASUNEZKO EREMUAK, MOLDEAK ETA ERREAKZIOAK (ITEMAK 32-43)			
32 ITEMA	Itsasoaren indarrak irla batera narama, badirudi ez dela inor bizi, nik pentsatzen dut...	Antizipazioa	Egoera problematiko
33 ITEMA	Han nagoela, gehien gurako nukeena da	Lehentasunezko eremuak	Orokorra
34 ITEMA	Han, hauxe egitera dedikatuko nintzateke	Lehentasunezko eremuak	Orokorra

35 ITEMA	Gogoratuko nuke...	Lehentasunezko eremuak	Orokorra
36 ITEMA	Ez litzaidake gustatuko gogoratzea...	Lehentasunezko eremuak	Orokorra
37 ITEMA	Pausuak entzuten ditut, oin-hotsak, horri sikuak zapaltzen entzuten dut, nire ustez...	Antizipazioa	Egoera zalantzarria
38 ITEMA	Banoa baso barrura eta gauza harrigarri bat aurkitzen dut. Ikusten dut...	Antizipazioa	Egoera zalantzarria
39 ITEMA	Ortuariak eta garauak erein ditut, baina erdiak ez dira erne eta beste erdiak alferrikaldu dira, orduan nire erreakzioa...	Lorpenen ebaluazioa	Aspektu positibo eta negatiboak
40 ITEMA	Bosgarrenez saiatu naiz txalupa bat egiten, baina beti urperatzen zait, orduan nik...	Lorpenen ebaluazioa	Frustraziorako jasankortasuna
41 ITEMA	Egun batean, irlatik ibilaldira bat egin ondoren, ikusten dut nire txabola apurtuta dagoela, nik pentsatzen dut...	Lorpenen ebaluazioa	Frustraziorako jasankortasuna
42 ITEMA	Azkenean, irlatik irten eta etxera itzuli naiz. Guzti hau ezkerak...	Atribuzioa	Barne- kanpo-atribuzioa
43 ITEMA	Orain pentsatzen dut...	Pentsamendu librea	Orokorra
ITEM ITXIAK (44-54)			
44 ITEMA	Borrokatu, nik borrokatuko nuke... (A) Nire indar guztiekin. (B) Edozein gauzaren kontra. (C) Inoiz ere ez. (D) Pertsona guztien onerako. (E) Behar-beharrezkoa izanez gero.	Item itxia	Aurkaketaren aurreko jarrera

	(F) Norbait salbatzeko. (G) Lehenengo arerioaren kontra.		
45 ITEMA	Begiak, begi pilo bat, nik pentsatzen dut... (A) Ikusten nautela. (B) Maite nautela. (C) Miresten nautela. (D) Obserbatu eta epaitu egiten nautela. (E) Berdin natzaiela. (F) Bigilatzen nautela.	Item itxia	Kanpo-ebaluazioaren aurreko jarrera
46 ITEMA	Artazi handi batzuekin, nik txiki-txiki egingo nuke... (A) Mihi-luzeak (mihi-gaiztoak). (B) Agintarien boterea. (C) Opresio eta kate guztiak. (D) Bizimodu hau, mundu hau. (E) Hipokresia eta injustizia. (F) Sasiak eta pintxoak. (G) Krokodilo bat. (H) Ezer ez.	Item itxia	Suntsiketaren aurreko jarrera
47 ITEMA	Heriotza, hil, norbait hil; nik nahiago dut... (A) Norbait hil. (B) Gorrotatu. (C) Apurtu. (D) Larritu. (E) Nire eskuak moztu. (F) Ni neu hil.	Item itxia	Heriotzaren aurreko jarrera

48 ITEMA	Askatasuna, nik nahiko nuke... (A) Beti pentsatzen dudana esatea. (B) Askatasun osoa, inolako muga barik. (C) Askatasuna, baina nire burua kontrolatzen jakinez. (D) Askatasuna zapalduta daudenentzat.	Item itxia	Askatasunaren aurreko jarrera
49 ITEMA	Umea nintzanean (txikiagoa nintzanean)... (A) Ez nintzan zoriontsu. (B) Aspertu egiten nintzen. (C) Korrika eta jolastu egiten nuen. (D) Zoriontsu nintzen.	Item itxia	Haurtzaroaren aurreko jarrera
50 ITEMA	Gustatuko litzaidake... (A) Berriro ume izatea. (B) Nire kapazitateak aurrera eramatea (C) Etorkizunerako proiektuetan pentsatzea. (D) Besteek neuk nahi dudana egiten uztea. (E) Jendea zoriontsua izatea. (F) Aparte bizitzea.	Item itxia	Desira
51 ITEMA	Nire etorkizuna iruditzen zait... (A) Ziurtasunik gabea. (B) Beltza. (C) Normala. (D) Oso interesgarria. (E) Zoragarria.	Item itxia	Etorkizunaren aurreko jarrera
52 ITEMA	Itsasertzean, harkaitzetan, bata bestearen gainean, nik pentsatzen dut... (A) Zoriontsuak direla.	Item itxia	Egoera erotikoko baten aurreko jarrera

	(B) Hilik daudela. (C) Gauza txar bat egiten ari direla. (D) Neuri horrela egotea gustatuko litzaidakeela. (E) Dena amets bat dela.		
53 ITEMA	Pentsatzen dut nire aita dela (edo izan dela)... (A) Liluragarria. (B) Ez hain liluragarria, baina kualitate handikoa. (C) Beste edozein bezalako bat. (D) Niretzat arazo bat. (E) Ez dakit.	Item itxia	Aitaren irudiaren aurreko jarrera
54 ITEMA	Pentsatzen dut nire ama dela (edo izan dela)... (A) Liluragarria. (B) Ez hain liluragarria, baina kualitate handikoa. (C) Beste edozein bezalako bat. (D) Niretzat arazo bat. (E) Ez dakit.	Item itxia	Amaren irudiaren aurreko jarrera

Subjektuek itemei emandako erantzunak kategorizatu egiten dira gero, subjektuek emandako banakako adierazpenak abiapuntu hartuta. Kategorizazio-prozesu horretan, item bakoitzak eragiten dituen adierazpenen edukiaren analisisa egiten da (Rodriguez, 1992).

Horrela lortutako kategoria-sisteman, aurrerago analisi estatistikoetan erabiliko den sisteman, 733 kategoria daude item irekiei dagokienez –batez beste 17,87 kategoria item bakoitzeko–, eta 61 kategoria, item itxiei dagokienez –5,5 kategoria item bakoitzeko– (ikus *kategoria-sistema*, 2. eranskina, II. liburukia).

Subjektuek emandako erantzunen kategorizazioa, aurretik beste lan batzuetan erabilia (Rodriguez, 1992, 1994), buru-moldeen teoriaren (Hernandez, 2002) funtsetan oinarritua da. Kategoria-sistema horren xedea da subjektuek ondoren aipatuko diren parametro teorikoen arabera ematen dituzten erantzunen aberastasuna agerian uztea eta sailkatzea (Rodriguez, 1992):

- *Balioespen-eremuak*: subjektuak subjektiba ditzakeen errealitatearen alderdiak dira, eta subjektuaren motibazio-norabidea markatzen dute (Hernandez, 1991). Errealitatearen alderdi horien kategorizazioa eta sistematizazioa egiten da, alderdi horiek sortzen duten interesaren arabera. Errealitatearen alderdi guztiak edo eremu espezifikoagoak hiru kategoria nagusitan antolatuta daudela

esan liteke: Errealitate Estrukturala, Gizarte-errealitatea, eta “NI”aren Errealitatea (3.3. taula).

**3.3. taula. Balioespen-eremuak
(Iturria: Rodriguez, 1994).**

ERREALITATE ESTRUKTURALA	NATURA	Animalia eta landareen mundua eta mundu naturalarekin lotura duen oro; zibilizazioa ez dena; gizarte tribalei dagokiena (ehiza, nekazaritza, errituak, bizitza naturala...)
	ZIBILIZAZIOA	Hiria, jendeak eraikinak, zementua
	ARAUA	Legeak, ohiturak, aginduak, diziplina. Gizartean finkatutako egiturak dira, eta jokaeraren eskakizunetan islatzen dira.
	MUNDU-SISTEMA	Errealitatearen eguneroko egitura, eguneroko gertaerak, erregulartasuna, aurrez finkatutako egitura gailena. Gizarte-eta politika-sistemekin lotura du, baina baita naturaren lege egonkorrekin ere. Ikuspegi negatibotik begiratuta, errutina da, eta positibotik begiratuta, errealitatearekiko egokitasuna. Arauaren antza du, baina ez da “izan behar” bat, baizik eta gure bizimodu berezian egunero edo errutinaz gertatzen dena
	ATAZA	Eginbeharra, eguneroko lana, eguneroko eginkizunak, ahalegina eskatzen duten jarduerak.
	BESTE MUNDUA	Harago dagoenarekin, ziurgabetasunarekin, misterioarekin, magiarekin, jainkozkotasunarekin, erlijioarekin, patuarekin loturiko egitura.
GIZARTE-ERREALITATE A	PERTSONAK	Senitartekoa, lagunak, lagun minak, maite ditugunak.
	BESTEAK	Jendea oro har, besteak, gizartea, gizakiak oro har eta urrunetik begiratuta.
	FAMILIA	Familia, familia-esparruko hurbilekoak.
	MAITASUNA	Bikotekidea.

"NI"aren ERREALITATEA	GAITASUN-ARLOA	Subjektuaren ahalmenak eta gaitasunak.
	OSASUN-ARLOA	Subjektuaren sendotasuna eta egoera fisikoa.
	ESTETIKA-ARLOA	Subjektuaren edertasuna eta itxura fisikoa.
	NAHIMEN-ARLOA	Subjektuaren borondatea eta kontrolerako gaitasuna.
	GIZARTE-ARLOA	Subjektuak besteekin harremanak izateko duen gaitasuna.
	ARLO OROKORRA	Subjektuak bere buruaz egiten duen izaera orokorreko karakterizazio ez-espezifikoa.

- *Norabidea*: subjektuak errealitatearen alderdiei edo eremuei buruz hartzen duen jarrera-estiloari dagokio (3.4. taula)

3.4. taula. Norabidea.
(Iturria: Rodriguez, 1994).

BALIOESPEN ZEHAZTUGABEA (¿)	Balioespen baten araberakoa izan daitekeen iritzia, baina zer zeinutako balioespena den zehazten ez duena.
BALIOESPEN OSO NEGATIBOA (--)	Iritzi negatiboa, saiheskorra edo asegabea adierazten duena, muturrekoa.
BALIOESPEN NEGATIBOA (-)	Asegabetasuna, mespretxua eta oldarkortasuna adierazten duen iritzia, suntsitzailea.
BALIOESPEN NEUTROA, EDO BALIOESPENIK EZA (N)	Deskribapen neutroa.
BALIOESPEN POSITIBOA ETA NEGATIBOA (+-)	Ikuspegi eraikitzailetik, eta hobetzeari begira, alderdi asegarriak nahiz ez-asegarriak planteatzen dituen iritzia.
BALIOESPEN POSITIBOA (+)	Iritzi positiboa, hurbilpenezkoa edo asegarria.
BALIOESPEN OSO POSITIBOA (++)	Iritzi positiboa, hurbilpenezkoa edo asegarria, muturrekoa.

- *Erantzun-moduak*: errealitateari kognitiboki eta afektiboki aurre egiteko estiloak (3.5. taula).

3.5. taula. Erantzun-moduak.
(Iturria: Rodriguez, 1994).

DESKRIBATZAILEA	Errealitatearen alderdiren bati buruzko proposizio deskribatzaileak, ez-balioespenezkoak, subjektuaren gogo-aldartearen adierazpenik eta inplikatzeko ekintzarik ez dakartenak.
BALIOESPEN-MODUA	Errealitateari buruzko iritzi subjektiboa, inolako sentimen espliziturik adierazten ez duena.
INTERPRETAZIO-MODUA	Subjektuak hipotesiak, teoriak edo epai kausalak edo ondoriozkoak egiten ditu, errealitatearen alderdiren bati buruz.
AFEKTIBO-EMOTIBOA	Subjektuari berari, besteei edo errealitatearen alderdiren bati buruzko gogo-aldartearen adierazpena.
BELDURRA	Subjektuari berari, besteei edo errealitatearen alderdiren bati buruzko beldur-adierazpena.
NAHIA	Subjektuari berari, besteei edo errealitatearen alderdiren bati buruzko nahien adierazpena.
EKINTZA	Ekintzaren subjektua gizabanakoa bera da, gizabanakoa da ekintzaren protagonista.
ARAUTZAILEA	Arau edo "izan behar" bati dagokion ekintza.
IDENTIFIKAZIOA	Errealitate jakin bat psikologikoki barneratzea adierazten duen pentsamendua.
BALIOESPEN-MODU AUTOERREFERENTZIALA	Balioespen-proposizioak, subjektuari berari buruzkoak, eta subjektuaren gogo-aldartearen adierazpenik edo inplikazio-ekintzarik ez dakartenak.
KONPARATIBOA	Erantzun modala, subjektuaren "ni"aren alderdiren baten eta beste norbaitenaren arteko konparazioa adierazten duena.

3.4.2. *T.A.M.A.I*⁵. (*Haurren Adaptazioari Buruzko Autoebaluazioko Test Multifaktorialal*; Hernandez, 1983, 1990, 2001): Diagnostikorako tresna soila da, barematua eta merkatuan eskuragarria, eta hezigaiek beren buruaz, gizarte-harremanez, eskola- eta familia-esparruez duten iritziaren, jarreraren eta portaeraren eta gurasoen hezkuntza-jarreraz duten iritziaren gaineko datuak biltzen ditu (fitxa teknikoa, 3.6. taula).

Autoebaluazioko proba bat da, eta taldeka nahiz banaka aplikatu daitezke, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta heldutasunera bitartean. Adierazitako adaptazio-esparruak kontuan hartzen ditu eta nahi den mailaraino “xehatutako” informazio progresiboa lortzeko aukera ematen du, korrespondentzien analisiaren eta klusterren sailkapen automatikoaren bidez.

Tresna honekin lotutako emaitzei esker, haurra edo nerabea ikuspegi funtzional eta integral batetik kontuan har daitezke. Berez, tresnaren xedea eskola-errendimendua eta eskola-porrota hobeto ulertzea da, baita ikaslearen adaptazio soziala eta adaptazio pertsonala balioestea ere; baina gure ikerketari dagokionez, honako bi eginkizun nabarmen hauek ditu: batetik, aldagai jakin batzuen kontrolerako tresna eraginkorra da, eta, bestetik, tresna horren bidez bildutako nortasun-ezaugarriak *TAGINASTE*k (Hernandez, 1983,

⁵ Galdetegi osoa, galdetegiaren egitura eta mailaka “xehatutako” informazioa *I(B) eranskina: tresnak* (II. liburukia) eranskinean ikus daitezke.

1990, 2001) zehaztutako molde kognitibo-afektiboekin erlazionatzeko aukera ematen du.

3.6. taula. TAMAI: fitxa teknikoa (Hernandez, 2001)

Izena: TAMAI (Haurren Adaptazioari Buruzko Autoebaluazioko Test Multifaktoriala).

Egilea: Pedro Hernandez Hernandez (La Lagunako unibertsitatea)

Jatorria: TEA Ediciones, S.A.

Proba-mota: autoebaluaziokoa, baiezko edo ezezko erantzuna dagokien 175 proposiziok osatua.

Aplikazioa: banaka nahiz taldeka.

Aplikazio-esparrua: Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta heldutasunera.

Iraupena: aldakorra, 30 eta 40 minutu bitarte.

Xedea: Inadaptazio pertsonalaren, gizarte-, eskola-, familia-inadaptazioaren eta gurasoen hezkuntza-jarreraren autoebaluazioa, eta esku-hartze programetako aldaketen ebaluazioa. Era berean, "fidagarritasunezko" , edo proba egiteko estiloari buruzko, bi eskala osagarri ere baditu.

Barematzea:

– Barematze berezia maila bakoitzerako.

– Barematze-modalitate bikoitza, faktoreen arabera:

A) Hepta sistema (7 kategoria), faktore orokorreari dagokienez.

B) Adierazpen kritikoko sistema: faktorearen egiaztapenik eza adierazten da, puntuazioa subjektuen % 65ek lortutakoa baino txikiagoa denean. Hala ere, hiru intentsitate-mailaren arabera egiaztapena egiten da, % 65eko hori gainditzen denean. Faktore ez-orokorretan erabiltzen da.

Materiala: gidaliburua, adibidea eta zuzenketarako eta profila zehazteko programa informatikoa.

Egituraketa faktoriala: adinaren aldagaiak zenbait egitura faktorial bereizten dituela kontuan hartuta, probaren hiru modalitate faktorial finkatu dira, hiru mailaren arabera:

- Lehen maila (Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailak).
- Bigarren maila (Lehen Hezkuntzako 6. maila eta DBHko 1. eta 2. mailak).
- Hirugarren maila (DBHko 3. eta 4. mailak, Batxilergoko 1. eta 2. mailak eta helduak).

Honako taula honetan probako aldagaiak ageri dira, I. maila erreferentzia gisa hartuta.

**3.7. taula. Tamai: aldagaiak
(Iturria: Rodriguez, 1994)**

KOD.	IZENA	DEFINIZIOA
P	Inadaptazio pertsonala	Inadaptazio pertsonala P1 + p2
P1	Desoreka disoziatiboa	Ezkortasuna eta errealitateari ihes egitea
P2	Autodesoreka	Sufrimendu eta asegabetasun pertsonala
P21	Kogniafektzioa	Gutxiespena, beldurra
P22	Kognipunizioa	P221 + P222 + P223
P221	Intrapunizioa	Norberarekiko mespretxua eta zigorra
P222	Depresioa	Tristura, kezka
P223	Somatizazioa	Gaixotasunak eta gorputzeko minak
E	Eskola-inadaptazioa	Eskola-inadaptazioa E1 + E2 + E3
E1	Kanpoko eskola-inadaptazioa	Gutxi saiatzea eta diziplinarik eza
E2	Erakundearekiko abertsioa	Irakasleekiko eta eskolarekiko abertsioa
E3	Ikaskuntzarekiko abertsioa	Ikastearekiko eta jakintzarekiko abertsioa

S	Inadaptazio soziala	Inadaptazio soziala S1 + S2
S1	Autodesoreka soziala	S11 + S12
S11	Oldarkortasun soziala	Pertsonakiko gatazka
S12	Disnomia	Arauekiko gatazka
S2	Murrizketa soziala	S21 + S22
S21	Barnekoitasuna	Sozialitatearen murrizketa kuantitatiboa, harreman gutxi
S22	Hostiligenia	Sozialitatearen murrizketa kualitatiboa, mesfidantza
F	Familia-asegabetasuna	Familiako giroarekiko eta gurasoek elkarrekin duten harremanarekiko asegabetasuna.
H	Anai-arrebekiko asegabetasuna	Anai-arreben arteko zeloak, eragozpenak eta liskarrak
Pa	Aitaren estilo egokia	Laguntza pertsonalizatzaileko hezkuntzari dagokio; puntuazio horri Permisibismoa eta Murrizketa kentzen zaio
Pa1	Laguntza pertsonalizatzaileko hezkuntza	Afektua, zaintza, errespetua, araurako eta autonomiarako aukera
Pa2	Permisibismoa	Eskariei eta apetei gehiegi amore ematea
Pa3	Murrizketa	Pa31 + Pa32 + Pa33
Pa31	Estilo punitiboa	Zigorra eta arbuioa
Pa32	Estilo axolagabea	Utzikeria eta arretarik eza
Pa33	Estilo perfekzionista	Gehiegizko arautzea eta arautze erasokorra
M	Aitaren estilo egokia	Laguntza pertsonalizatzaileko hezkuntzari dagokio; puntuazio horri Permisibismoa eta Murrizketa kentzen zaio
M1	Laguntza pertsonalizatzaileko hezkuntza	Afektua, zaintza, errespetua, araurako eta autonomiarako aukera
M2	Permisibismoa	Eskariei eta apetei gehiegi amore ematea

M3	Murrizketa	Pa31 + Pa32 + Pa33
M31	Estilo punitiboa	Zigorra eta arbuioa
M32	Estilo axolagabea	Utzikeria eta arretarik eza
M33	Estilo perfekzionista	Gehiegizko arautzea eta arautze erasokorra
DIS	Hezkuntza-desadostasuna	Aitaren eta amaren hezkuntza-estiloen arteko aldea, guraso biek lortutako puntuazioetan Laguntza pertsonalizatzaileko hezkuntzan, Permisibismoan eta Murrizketan dauden diferentziak batuta
PRI	Proirudia	Fidagarritasun-irizpidea, muturreko balioespen pertsonal eta sozialaren ondoriozko emaitzen distortsioan oinarritua
CTR	Kontraesanak	Fidagarritasun-irizpidea, probako kontraesanezko erantzunetan oinarritua

Azkenik, aurreko ikerketa batetik lortutako datu konparatiboak ere erabili dira. Ikerketa hura Kanarietan egin zuten (Rodriguez, 1990, 1992), eta tresna berberak erabili zituzten, beste diseinu experimental batekin bada ere.

3.5. PROZEDURA

Datuen analisia egiteko prozeduran hiru atal bereizi ziren: batetik, *Taginaste* probako item irekien datuen atala; bestetik, proba horretako item itxien datuena; eta, azkenik, *Tamai* tresnaren datuen azterketaren atala.

TAGINASTE (item irekiak: 1–42): 420 subjektuek emandako erantzunak ikerketa honetarako prestatutako sistema-kategoriaren arabera kategorizatu ondoren, 736 aldagai atera dira analizatzeko. Aldagai-kopurua handia dela eta talde kulturalaren arabera erantzunetan alde handiak daudela kontuan hartuta, eta erantzun horiek korrespondentzia-analisi batean multzokatzerik ez zegoenez, analisi faktoriala egitea erabaki zen; horretarako, kategorizatutako erantzunak aldagai kuantitatibo bihurtu behar izan ziren, lehenik eta behin (0–1, badago–ez dago).

Galdeketa luzea dela eta erantzunak ugariak eta askotarikoak direla kontuan hartuta, 6 bloke tematiko eratu dira, eduki erreaktiboen arabera, item irekien erantzunen aberastasunaz hobeto jabetzeko; item itxiekin beste bloke bat osatu dugu (3.8. taula).

3.8. taula. *Taginaste* tresnari dagozkion blokeak

<i>TAGINASTE</i> (BLOKE TEMATIKOAK)	
ITEM IREKIAK (01etik 42ra)	
1. BLOKEA: EMOZIOAK	01etik 06rako ITEMAK
2. BLOKEA: ERREALITATEA	07tik 14rako ITEMAK
3. BLOKEA: BESTEAK	15etik 18rako ITEMAK
4. BLOKEA: "NI" a	19tik 24rako ITEMAK
5. BLOKEA: MOLDEAK ETA ERREAKZIOAK	25etik 31rako ITEMAK
6. BLOKEA: LEHENTASUNEZKO EREMUA, MOLDEAK ETA ERREAKZIOAK	32tik 42rako ITEMAK
ITEM ITXIAK (44 a 54)	

Bloke horietako bakoitzaren analisi faktoriala egin da, blokeak banaka hartuta, eta bloke bakoitzerako faktore-multzo bat atera da analisi horretatik. Faktore horiek teorikoki azaldu dira, zehatz-mehatz, beren edukiari erreparatuz. Ondoren, eta labur-labur, bloke horien deskribapena eta azalpen teorikoa aditzera emango dugu, blokeak banaka hartuta⁶:

Erantzunak bloke bakoitzeko faktoreetan antolatu ondoren, eta horien azalpena egin ondoren, hurrengo urrats analitikoa lehenengo urratsetik ateratako faktore guztien analisi faktoriala egitea izan da; horrela, *Taginaste* osatzen duten 42 item irekietan bildutako informazio guztia –aberatsa, baina, jakina, ugaria eta askotarikoa– multzokatu ahal izan dugu, eta teorikoki eta xehetasunez esplikatu dugu⁷.

Taginasteren bidez jasotako erantzunak biltzen dituzten faktore adierazgarrienak identifikatu eta horien azalpena egin ondoren, talde kultural bakoitza zer faktorek ezaugarritzen duten jakin nahi genuke; alegia, erreakzionatzeko zer modu prototipiko, eta, agian, diferentzial, dagokien testuinguru bakoitzean hezitako haurrei, hau da, talde bakoitzaren nortasun kulturala definitzen duten molde kognitibo-afektiboak zein diren. Bila genbiltzan ezaugarri kultural horiek ezagutzeko eta metodologikoki zedarritzeko biderik

⁶ Bloke bakoitzaren analisi faktorialen emaitza xeheak eta horien azalpenak 3. *eranskina* (II. liburukia) eranskinean bildu dira.

⁷ Lehenengo analisisiko faktoreetatik abiatuta egindako bigarren analisi faktorialaren emaitza xeheak eta horien azalpena 4. *eranskina* (II. liburukia) eranskinean bildu dira.

egokiena talde bakoitza gainerako guztiekin alderatzea zela pentsatu genuen, talde bakoitzaren ezaugarri berezko eta diferentzialak gainerako taldeekiko konparazioaren bidez bereizteko. Beraz, analisi estatistikoaren azken pausoa batez bestekoak konparatzea izan da (faktore baten *ANOVA*, *Turkeyren HSD* proba), talde bakoitza gainerako guztiekin alderatuta ("1." taldea, "9." taldearekin konparatuta; "2." taldea, "9." taldearekin konparatuta; "3." taldea "9." taldearekin konparatuta, "9." taldea gainerako taldeen multzoa dela). Proba horrek emaitza interesgarriak eman ditu, hurrengo kapituluan, emaitzak aditzera ematen dituen kapituluan, ikusiko dugunez.

TAGINASTE (item itxiak: 44–54): molde kognitibo-afektiboak ezagutzeko erarik onena, zalantzarik gabe, pentsamendu askea dela jakitun garen arren, ikerketako tresna nagusi izan den *Taginaste*ko galdera irekien bidez, erreaktibo itxiek (lau erantzun edo gehiago finkatu eta horietako bat aukeratu) erantzun-sortaren aberastasuna murrizten dute, baina, aldi berean, analisirako erraztasuna ere ematen dute, eta proba osagarri gisa erabil daitezke. Guri dagokigunez, batez bestekoen konparazioa egin da, itemez item (faktore baten *ANOVA*, *Turkeyren HSD* proba), item irekiekin erabilitako estrategia berari jarraituz, hau da, talde kultural bakoitza beste guztiekin alderatuz. Analisi horren emaitzen berri ere ematen da, dagokion kapituluan.

TAMAI: tresnei buruzko atalean azaldu dugunez, autoebaluazioko testak ere datu interesgarriak eman ditzake, batetik eguneroko bizitzako zenbait egoeratan oro har erreakzionatzeko moduei dagokienez –eta, beraz, pentsamendu-moldeak hobeto ulertzeko eta identifikatzeko lagungarri izango zaigu–, eta, bestetik, arlo bakoitzeko (pertsonala, eskola, gizartea eta familia) adaptazio-inadaptazio *continuum*eko joera “kultural” posiblei dagokienez. Asmo horrekin, *Taginasteko* analisisian erabilitako estrategia metodologiko berari jarraitu genion: talde bakoitzak lortutako batez bestekoak gainerakoenekin alderatu, probak eskaintzen dituen eta dagoeneko aipatu ditugun faktore orokorretan (faktore baten ANOVA, *Turkeyren HSD* proba).

4. KAPITULUA:

IKERLANAREN EMAITZAK

4.1. EMAITZAK: TAGINASTE TRESNA

Azaldutako estrategia ardatz hartuta, eta *SPSS* tresna informatikoaren laguntzaz (ikus 10.0), analisi estatistikoak egin ondoren, talde bakoitzaren batez bestekoa gainerako taldeen batez bestekoarekin alderatu da, eta emaitza interesgarriak lortu dira alderatze horretatik: %.95eko adierazgarritasun-maila estimatuko emaitzak, hain zuzen. Hurrengo orrietan xeheago aztertuko ditugun emaitza horien arabera, beraz, esan daiteke subjektu-talde bakoitzaren kultura-ereduaren arabera errealitateari aurre egiteko modu jakin batzuk bereiz daitezkeela. Lan zientifiko orotan kontuan hartu beharreko zuhurtzia metodologikoak gorabehera, eta lan honi bereziki dagozkionak kontuan hartuta ere, “tipologia kultural” moduko bat badela esan daiteke, kultura-inguruneak subjektuetan pixkanaka “moldatu” dituen konstruktuko kognitibo, afektibo eta motibazional batzuk badirela, gure iritziz, subjektuei errealitatea ulertzeko eta errealitateari erantzuteko modu berezi bat atxikitzen dietenak.

**4.1.1. TAULA. 2. FAKTORIALA: 1. TALDE KULTURALA
(bizkaitar haurrak/Taginaste, euskaraz)**

FAKTORE ESANGURATSUAK (1 VERSUS 9)	1 vs. 9	N	Bat. Best.	lg	F	Esg.
A) "NI"aren ETA BESTEEN OMISIO GUTXIAGO (01- FAKTOREA)	1	60	34,12	1	22,750	,000
	9	364	52,62	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
B) JARRERA ERAIKITZAILERAKO, JARRERA ETIKORAKO JOERA TXIKIAGOA (02-FAKTOREA)	1	60	43,17	1	4,034	,045
	9	364	51,13	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
C) INHIBIZIO GUTXIAGO, GATAZKETAN (04-FAKTOREA)	1	60	39,38	1	9,870	,002
	9	364	51,75	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
D) JARDUTEKO, SOLUZIOAK BILATZEKO JOERA HANDIAGOA (05-FAKTOREA)	1	60	65,77	1	22,399	,000
	9	364	47,40	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
E) AUTOKONTROL POSITIBO ETA ERREALITATEAREN BALIOESPEN POSITIBO NABARIAGOA (07-FAKTOREA)	1	60	57,57	1	4,956	,027
	9	364	48,75	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
F) ERREAKZIO BARERAKO (VERSUS ERREAKZIO NAHASIA) ETA ARAUAK BETETZEKO JOERA TXIKIAGOA (15-FAKTOREA)	1	60	28,73	1	42,605	,000
	9	364	53,51	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
G) IHESA, ERREALITATEAREKIKO INPLIKAZIORIK EZA (18- FAKTOREA)	1	60	41,32	1	6,552	,011
	9	364	51,43	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
H) PLANTEAMENDU GOGOETATSUAGOAK - VERSUS EMOZIOEN GAINEKO KONTROLIK EZA- (19- FAKTOREA)	1	60	60,88	1	10,384	,001
	9	364	48,21	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
I) PENTSAMENDU ANALITIKORAKO ETA TOLERANTZIARAKO JOERA TXIKIAGOA (23-FAKTOREA)	1	60	58,87	1	6,836	,009
	9	364	48,54	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

1. talde kulturalak –*Taginasteko* galderei euskaraz erantzun dieten bizkaitar haurren taldeak– honako ezaugarri bereizgarri hauek ditu, gainerako zazpi talde kulturaletako hurrekin alderatuta:

A) “NI”aren ETA BESTEEN OMISIO GUTXIAGO (01–FAKTOREA). Norberarekin eta besteekin loturiko gaiari aurre egiteko ahalmen handiagoa dute, ez diete gai horiei ihes egiten.

-BESTEEI (besteak, oro har, familia, maitasuna eta adiskidetasuna) dagozkien erreaktiboetan, subjektuek gaiari aurre egiten diete, erantzunen bat ematen diete, planteatutako auziak saihestu gabe.

-Ildo beretik, “NI”ari (“ni”a oro har, edo “ni” fisikoa) dagozkion erreaktiboetan ere, subjektuek ez dituzte gaiak saihesten, eta balioespen-erantzun positiboak ematen dituzte, oro har. Adibidez: “ongi ikusi dudala neure burua”, “atsegina naizela”, “ez dagoela batere gaizki”, “ez naizela txarra”, “oso erakargarria”, “ederra”. Hala ere, agertzen dira erantzun negatibo batzuk, “gaizki”, “ez dudala estilo handirik” ... esaterako.

B) JARRERA ERAIKITZAILERAKO, JARRERA ETIKORAKO JOERA TXIKIAGOA (02–FAKTOREA). Heriotza eta besteek sortutako gaizkia tartean direnean, arbuio-erantzun gutxiago; pertsonen arteko harremanetan sortzen diren gatazketan oldarkortasuna, eraso eta biolentzia saihesteko eta gatazkek

gainditzera bideratuko jarrera eraikitzaileak hartzeko joera txikiagoa:

- Amorrue-emozioei eta beldur-emozioei loturiko erreaktiboetan, subjektuek ez dute erantzunik ematen heriotzari edo beste pertsona batzuek sortutako kalteari buruz; ez da ageri "heriotza", "drogazaleak", "Joana", "bortxatzailea"... motako erantzunik.

- Pertsonen arteko liskarrei dagokienez ere, ez da ageri ekintza positiboko erantzunik, eta ez dute garatzen gatazkak gainditzera bideratutako jokabiderik edo tolerantziatzko eta laguntzatzko jokabiderik; ez da ageri "baztertu egingo dut", "saihestu egingo dut", "ez dut joko", "lagundu egingo diot" motako erantzunik.

C) INHIBIZIO GUTXIAGO, GATAZKETAN (04-FAKTOREA).

Gatazka-egoeretan inhibizio gutxiago dute, bereziki pertsonen arteko gatazketan; proban erantzunen bat emateko joera dute (ekintzara bideratutako jokabidea), eta ez dute imajinatzen proiektua gauzatu behar duten testuingurutik kanpo (uhartea) gauzatzeko beste proiekturik.

- Abiapuntuko arazo batean edo pertsonen arteko arazoetan "NI"ak duen jarrerari buruzko erreaktiboetan, subjektuek erantzuteko joera dute, ez dute inhibiziorako joera.

- Zaletasun edo proiektu pertsonalei, familia- edo gizarte-proiektuei dagokienez, ez dira ageri testuingurutik bereizitako

pentsamenduak edo ekintzak, testuinguruekiko pentsamendu edo ekintza koherenteak baizik.

D) JARDUTEKO, SOLUZIOAK BILATZEKO JOERA HANDIAGOA (05-FAKTOREA). Arazoei soluzioa bilatzeko jarrera; jarrera aktiboa, hainbat egoeratan:

- Hondoratzearen ondoren uhartean sortutako arazoetan, ez da erreakzio iheskor edo saiheskorrik ageri.

- Zibilizazioari buruzko gaietan, ekintzaren subjektutzat gizabanakoa bera duten ekintza-erantzunak; ekintzaren protagonista gizabanakoa bera da: "ikus", "joan", "lan asko egin".

- Gizarte naturalari loturiko gaietan ere ekintza-erantzunak ematen dituzte, adibidez, "ez jan", "neuk egin", "neure burua babestu", "lan egiten dudala", "alde egingo dut", "korrika ihes egin".

- Mundu-sistemari buruz ere, mota bereko erantzunak ematen dituzte: ekintza-erantzunak. Adibidez: "patuari aurre egin behar zaiola", "nik egin nahi dut", "ikasi".

- Gauza bera gertatzen da atazei buruz ("ongi egin", "laguntzen dudala", "ikasi", "bihar hobeto egingo dut", "etxeko lanak egin", "aurrera jarraitu"), araei buruz ("zein tuntuna naizen", "esklabo bat naizela", "burua galtzen dudala") eta mundu-sistemari buruz

(“hori da bakea”, “bizitzan”, “Jainkoarengan”, “besteekiko maitasunean”, “pobrezia”).

E) AUTOKONTROL POSITIBO ETA ERREALITATEAREN BALIOESPEN POSITIBO NABARIAGOA (07-FAKTOREA). Norberaren ahalmenaz eta errealitateaz oro har balioespen positiboa egiteko joera, eta nork bere burua era eraginkorrean kontrolatzeko gaitasuna.

- “Ni”aren autokontrolari buruzko erreaktiboetan, erantzun modal positiboak nahiz negatiboak ageri dira (analisiak, zeinu negatiboz: “ongi nago”, “negatiboa”).

- Era berean, gizarteari oro har dagozkion erreaktiboetan, kutsu idealistako erantzunak ageri dira, eta oso balioespen positiboak: “polita dela lan egitea”, “dagoen gauzarik onena dela”, “gaizki dagoela”, “zoragarria dela”, “oso polita dela”.

F) ERREAKZIO BARERAKO (VERSUS ERREAKZIO NAHASIA) ETA ARAUAK BETETZEKO JOERA TXIKIAGOA (15-FAKTOREA). Egoera askotan, erreakzioak ez dira hain erabatekoak eta linealak, nahasiagoak dira; era berean, araua ez betetzeko joera nabaria ere ikusten da:

- Lorpenak ebaluatzeari buruzko erreaktiboetan, harridurazko edo nahasmenezko erantzunak ageri dira, adibidez, “bitxia”, “arraroa”, “harrigarria”, “oi, ez! Eta orain zer”, “ez dakit”.

- Ez da ikusten atazaren balioespen positiboa adierazten duen erantzunik, adibidez “ongi egin”, “laguntzen dudala”, “ikasi”, “bihar hobeto egingo dut”, “etxeko lanak egin”, “aurrera jarraitu”.

- Ihes egiteko jarrera: “niri”, “ongi igeri egiten dudalako”; negatiboan, “buelta bat ematera joango nintzateke”, “joan egingo naiz”, “txalupa bat egin behar dut”, “itsasontziren bat etorri zain gelditu behar dut”, “itsasertzean zain egon”, “jan”.

G) IHESA, ERREALITATEAREKIKO INPLIKAZIORIK EZA (18-FAKTOREA). Subjektuak errealitateari ihes egiteko joera du, ez du inplikatzeko joera; balioespen zehaztugabeak egiten ditu, eta gatazka-egoerei ihes egiten die.

- Mundu-sistemari eta gizarteari oro har dagozkion erreaktiboetan, subjektuak deskribapen orokorrak eta balioespen zehaztugabeak egiten ditu.

- Gatazka-egoerak planteatzen dituzten erreaktiboek dagokienez (“korronteak arrastaka narama”...), subjektuak erantzun iheskorak ematen ditu: “buelta bat ematera joango nintzateke”, “joan egingo naiz”, “itsasontziren bat etorri zain gelditu behar dut”, “itsasertzean zain egon”, “jan”.

H) PLANTEAMENDU GOGOETATSUAGOAK –VERSUS EMOZIOEN GAINEKO KONTROLIK EZA– (19-FAKTOREA) ETA

I) PENTSAMENDU ANALITIKORAKO ETA

TOLERANTZIARAKO JOERA TXIKIAGOA (23-FAKTOREA).

Erreakzio gogoetatsuagorako joera, emozioei amore eman gabe, eta jarrera tolerantea eta emozioen gaineko kontrol handiagoa.

- Beldur-sentimenak edo amorru-sentimenak adierazteko erreaktiboetan, ez dira ageri jazarpena edo norberaren kaltea adierazten duten erantzunak. Era berean, txabola suntsituta dagoela ikustean, ez da kontrolik gabeko erreakzioa gertatzen, erantzunak ez dira “haserretu egingo naiz”, “etsita”, “etsipenak hartuta”, “nire onetik ateratzen nau” motakoak.

- Zibilizazioari, gizarteari eta mundu naturalari buruzko erreaktiboetan, pentsamendu analitikoa da nagusi; errealitatearen alderdi zehatzei buruzko balioespen-proposizio deskribatzaileak, subjektuaren gogo-aldartearen adierazpenik eta inplikatzeko ekintzarik ez dakartenak.

- Tolerantzia versus borrokarako grina, pertsonen arteko harremanetan: “utzi egingo dut”, “ez naiz joango, eta kito”, “itsasoan gelditu”, “beste itsasertz batera abiatu”, “berriro itsaso itsas zabalera joan”, “jaramonik egin gabe aurrera jo”.

LABURBILDUZ: omisio gutxiago “ni”ari eta besteei buruzko galderetan; gaizkiari aurre egiteko jarrera eraikitzaileko joera txikiagoa; jardutearen eta gauzatzearen aldeko inhibizio txikiagoa; asaldurarako eta jarduerarako joera nabariagoa, baina jarduera ez

hain linealak eta nahasiagoak; pentsamendu gogoetatsuagoa eta erreakzio tolerantea, eta emozioen gaineko kontrol handiagoa.

Beren pentsamenduaren antolaketan bi joera harrigarri ikusten dira: gaizkiari aurre egiteko jarrera eraikitzaileko joera txikiagoa eta gizarteari buruzko balioespen positiboa. Beren nortasuna, lagineko gainerako hurrekin alderatuta, ekintzara bideratuagoa da, baina emozioen gaineko kontrol handiagoa dute; hau da, jokabide orekatsuagoa, analitikoagoa eta toleranteagoa dute. Aldiz, mundua eta bizitza idealizatzeko joera ere sumatzen da, eta, era berean, zailtasunak eta gaizkia gainditzeko ahalmen murriztagoia.

**4.1.2. TAULA. 2. FAKTORIALA: 2. TALDE KULTURALA
(bizkaitar haurrak/Taginaste, gaztelaniaz)**

FAKTORE ESANGURATSUAK (2 VERSUS 9)	2 vs. 9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
A) GIZARTEARI BURUZKO BALIOESPEN POSITIBOAGOA ETA IDEALISTAGOA (11- FAKTOREA)	2	60	56,53	1	3,684	,056
	9	364	48,92	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
B) AUTOKONTROL AKTIBO HANDIAGOA, ETA KANPOKO TESTUINGURUAREKIKO INDEPENDENTZIA HANDIAGOA (12-FAKTOREA)	2	60	57,85	1	5,339	,021
	9	364	48,71	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
C) ZIBILIZAZIOARI BURUZKO ESZEPTIZISMO GUTXIAGO (17- FAKTOREA)	2	60	43,05	1	4,174	,042
	9	364	51,15	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
D) ELEMENTU INTRAPUNITIBOAK (21- FAKTOREA)	2	60	59,33	1	7,588	,006
	9	364	48,46	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

2. talde kulturalak –*Taginaste*ko galderei gaztelaniaz erantzun dieten bizkaitar haurren taldeak– honako ezaugarri bereizgarri hauek ditu, gainerako zazpi talde kulturaletako haurrekin alderatuta:

A) GIZARTEARI BURUZKO BALIOESPEN POSITIBOAGOA ETA IDEALISTAGOA (11-FAKTOREA). Errealitateari buruz balioespen positiboak eta idealistak egiteko joera, eta errealitateari aurre egiteko jarrera aktiboa. Aitzitik, planteamendu autoerreferentzial ez-errealistak eta irudipenezkoak ere agertzen dira, gatazka-egoera batzuetan.

- Gizarteari oro har dagozkion erreaktiboetan, erantzunak kutsu idealistakoak dira, eta positiboak, honako adibide hauek aditzera ematen dutenez: “polita dela lana egitea”, “dagoen gauzarik onena dela”, “gaizki dagoela”, “zoragarria dela”, “oso polita dela”.

- Era berean, gizarte-errealitate orokorrari aurre egiteko jarrera sumatzen da. Zibilizazioari, mundu-sistemari, atazari eta abarri buruzko erreaktiboetan, era honetakoak dira erantzunak: “ikusi”, “joan”, “lan asko egin”, “ez jan”, “neuk egin”, “neure burua babestu”, “lan egiten dudala”, “alde egingo dut”, “korrika ihes egin”, “patuari aurre egin behar zaiola”, “nik egin nahi dut”, “ikasi”.

- Txalupa bosgarrenez hondoratzen denenean, arazoari irtenbidea bilatzeko aukera irrealak bilatzeko joera dute. Adibidez:

“igerian joango naiz”, “bat erosiko dut”, “burdinazkoa egingo nuke”, “sirenari deituko diot”.

B) AUTOKONTROL AKTIBO HANDIAGOA, ETA KANPOKO TESTUINGURUAREKIKO INDEPENDENTZIA HANDIAGOA (12-FAKTOREA). Talde honetako haurrek gaitasun handiagoa dute eguneroko egoeretan beren burua era eraginkorrean eta aktiboan kontrolatzeko. Era berean, kontrol hori gauzatzeko garaian, kanpoko elementuekiko mendekotasun txikiagoa dute.

- “NI”ari dagozkion galderetan, era honetako erantzunak ematen dituzte: “egin dezakedala”, “proba egingo dudala”, “lortu dudala”, “jolastu”, “nik egin nahi dudala”, “gauza bat egin”, “ikasi eta lan egin”.

- Autoafirmazioa adierazten duten erantzunak eta besteei buruzko erantzun positiboak ere badira, baina besteen gaitasuna zalantzan jarri gabe: “ez naizela haiek bezalakoak”, “ni bezalakoak direla”, “lan asko egiten dutela eta saiatzen direla”, “jendea ez dela perfektua”, “gizakiak direla, ni bezalaxe”, “beraiek zer pentsatuko luketen nitaz”, “ez naizela bakarra”, “nolakoa izango den beren bizitza”.

C) ZIBILIZAZIOARI BURUZKO ESZEPTIZISMO GUTXIAGO (17-FAKTOREA). Zibilizazioak eta arauak neutraltasun gutxiagoko pentsamendu-joerak eta pentsamendu-joera eszeptikoak eragiten dituzte.

- Zibilizazioari eta aruari buruzko erreaktiboetan, subjektua egoeran inplikutzen da eta kutsu arautzaileko erantzunak ematen ditu, erantzunek honako adibide hauen kontrako joera adierazten dute: “normala da”, “egia da”, “bai”, “arauak dituen hiri bat”.

D) ELEMENTU INTRAPUNITIBOAK (21-FAKTOREA). Taldea ezaugarritzen duen faktore honen arabera, badira elementu intrapunitibo batzuk; erantzunetan, subjektuari egozten zaio errua eta egoera negatiboen ondoriozko gertaerak edo eraginak leporatzen zaizkio, pentsamendu deskribatzaile neutroak adierazi ordez.

- Egozpen-egoeretan, adibidez uhartean txabola erortzean, planteatutako arazoaren kausetako bat subjektua bera dela –haren gaitasunik edo trebetasunik eza– adierazten duten pentsamenduak ageri dira. Adibidez: “neure buruarekin haserretuko naiz”, “ez dakit txalupak egiten”, “gizena naiz”, “ez dakit ezer egiten”, “trakets hutsa naiz”.

- LABURBILDUZ, aipatutako ñabardurez gainera (autokontrol aktibo handiagoa eta elementu intrapunitiboak), eta aurreko taldearen jarrera positibo eta adoretuaren ildo beretik, emozioen gaineko kontrol aktiboa da talde honetako haurren nortasunaren ezaugarria.

4.1.3. TAULA. 2. FAKTORIALA: 3. TALDE KULTURALA
(bizkaitar haurrak, aita euskalduna eta ama ez-euskalduna dituztenak)

FAKTORE ESANGURATSUAK (3 VERSUS 9)	3 vs. 9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
A) PENTSAMENDU NEUTRO ETA ZEHAZTUGABERAKO JOERA HANDIAGOA (09- FAKTOREA).	3	32	63,81	1	8,242	,004
	9	392	48,87	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
B) "NI" FISIKO POSITIBOAGOA ETA IHESERAKO JOERA TXIKIAGOA (10-FAKTOREA)	3	32	40,16	1	4,146	,042
	9	392	50,80	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
C) ERREAKZIO BAREAGOA (VERSUS ERREAKZIO NAHASIA) ETA ARAUAK BETETZEA (15-FAKTOREA)	3	32	59,63	1	3,962	,047
	9	392	49,21	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
D) BESTE MUNDUARI BURUZKO ZIRRARA HANDIAGOA (22-FAKTOREA)	3	32	59,41	1	3,783	,052
	9	392	49,23	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

3. talde kulturalak –aita euskalduna eta ama ez-euskalduna dituzten eta *Taginasteko* galderari gaztelaniaz erantzun dieten bizkaitar haurren taldeak– honako ezaugarri bereizgarri hauek ditu, gainerako zazpi talde kulturaletako haurrekin alderatuta:

A) PENTSAMENDU NEUTRO ETA ZEHAZTUGABERAKO JOERA HANDIAGOA (09-FAKTOREA). Subjektuak "ni" ari, besteei eta mundu naturalari buruz deskribapen neutroak eta zehaztugabeak egiteko joera du, balioespen positiborik nahiz negatiborik gabeko doinu gogoetatsuan.

- "NI"ari eta besteei buruzko erreaktiboetan, subjektuak balioespen neutroa edo zehaztugabea adierazten duten erantzunak ematen ditu.

- Mundu naturalari buruzko galderetan, proposizio deskribatzaileak egiten ditu, ez-balioespenezkoak, subjektuaren gogo-aldartearen adierazpenik eta inplikatzeko ekintzarik ez dakartenak. Adibidez: "landareetan", "natura dela", "baso bat dela", "mundua", "animalietan".

- Pentsamendu librea eragiten duten erreaktiboetan, interpretazio-erantzunak edo gogoeta-erantzunak: subjektuak errealitatearen alderdiren bati buruzko hipotesiak, teoriak edo epai kausalak edo ondoriozkoak ematen ditu, eta harridura hutsetik harago jotzen du. Printzipio moralak edo aldaketa estrukturalak ondorioztatzen ditu (era honetako galderei erantzuten die: "zertan datza?", "zer azalpen ematen dut?", "zer ondorio dakar?", "zerekin lotuta dago?"). Adibidez: "zeruak eta itsasoak bat egiten dutela", "gizon bat dagoela", "zer gertatuko den zahartzean", "zer egongo den atzean", "amaiera non egongo den", "han amaitzen dela mundu guztia", "euria egingo du?", "inoiz ez dakidala".

B) "NI" FISIKO POSITIBOAGOA ETA IHESERAKO JOERA TXIKIAGOA (10-FAKTOREA). Norberaren itxura fisikoari eta osasunari buruzko kezka txikiagoa, eta ezaugarri horiei buruzko

balioespen positiboak egiteko joera. Arazoetan eta gatazka-egoeretan, ez da joera iheskor nabaririk ageri.

- Subjektuaren beraren osasunari eta edertasunari buruzko erreaktiboetan, balioespen positiboak.

- Lorpenen ebaluazioari buruzko galderetan, adibidez txalupa bosgarrenez hondatzeari buruzkoan, ihes egitearen edo amore ematearen kontrako jarrerak ikusten dira subjektuaren erantzunetan, honako hauen kontrakoak: "hortxe geldituko naiz", "ez nuke egingo", "amore emango dut", "nire bila etortzen diren arte zain geldituko naiz", "nire patuari amore ematea erabaki dut", "ez dut beste bat egingo", "ez naiz txalupak egiten hasiko".

C) ERREAKZIO BAREAGOA (VERSUS ERREAKZIO NAHASIA) ETA ARAUAK BETETZEA (15-FAKTOREA). Egoera askotan, erreakzio erabatekoagoak eta linealagoak, ez hain nahasiak, eta egoerak saihesteko joera; era berean, araua betetzeko joera nabaria ere ikusten da:

- Lorpenak ebaluatzeari buruzko erreaktiboetan, ez da ageri "bitxia", "arraroa", "harrigarria", "oi, ez! Eta orain zer", "ez dakit" motako harridurazko edo nahasmenezko erantzunik.

- Atazaren balioespen positiboa adierazten duten erantzunak ikusten dira, adibidez "ongi egin", "laguntzen dudala", "ikasi", "bihar hobeto egingo dut", "etxeko lanak egin", "aurrera jarraitu".

- Ez da ikusten iheserako joerarik, erantzunek honako adibide hauen kontrako joera adierazten dute: “buelta bat ematera joango nintzateke”, “joan egingo naiz”, “txalupa bat egin behar dut”, “itsasontziren bat etorri zain gelditu behar dut”, “itsasertzean zain egon”, “jan”.

D) BESTE MUNDUARI BURUZKO ZIRRARA HANDIAGOA (22-FAKTOREA). Beste munduari dagozkion gaietan, subjektuaren erreakzioan zirrara emozionala nabari da; ez ditu adierazten kezka edo jakin-mina erakusten duten sentimen patxadatsuak.

- Beste munduari dagokionez, subjektuaren gogo-aldarteak adierazten duten adibide hauen kontrako joera adierazten dute erantzunek: “hotzikara ematen didala”, “triste delako”, “jakin-mina”, “ezagutu nahiko nukeela”. Ez da ageri zibilizazioari buruzko balioespen-erantzun positibo nahiz negatiborik ere.

4.1.4. TAULA. 2. FAKTORIALA: 4. TALDE KULTURALA
(bizkaitar haurrak, aita ez-euskalduna eta ama euskalduna dituztenak)

FAKTORE ESANGURATSUAK (4 VERSUS 9)	4 vs. 9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
A) “NI”ari ETA BESTEEI BURUZKO OMISIO GEHIAGO (01-FAKTOREA)	4	32	63,81	1	8,242	,004
	9	392	48,87	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
B) EKINTZARAKO, SOLUZIOAK BILATZEKO JOERA HANDIAGOA (05-FAKTOREA)	4	32	59,38	1	3,758	,053
	9	392	49,23	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
C) GIZARTEAREN BALIOESPEN NEGATIBOAGOA ETA EZ HAIN IDEALISTA (11-FAKTOREA)	4	32	39,75	1	4,499	,034
	9	392	50,84	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

D) PLANTEAMENDU EZ HAIN GOGOETATSUAK ETA EMOZIOEN GAINKO KONTROLIK EZA (19-FAKTOREA)	4	32	36,81	1	7,500	,006
	9	392	51,08	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

4. talde kulturalak –aita ez-euskalduna eta ama euskalduna dituzten eta *Taginasteko* galderei gaztelaniaz erantzun dieten bizkaitar hurren taldeak– honako ezaugarri bereizgarri hauek ditu, gainerako zazpi talde kulturaletako hurrekin alderatuta:

A) “NI”ari ETA BESTEEI BURUZKO OMISIO GEHIAGO (01-FAKTOREA). Norberarekin eta besteekin zerikusia duten gaien aurre egiteko ezintasuna, eta, beraz, gai horiei ihes egiteko joera.

-BESTEEI (besteak oro har, familia, maitasuna eta adiskidetasuna) dagozkien erreaktiboetan, subjektuek ez diete gaien aurre egiten, ez diete erantzunik ematen, planteatutako auziei ihes egiten diete.

-Ildo beretik, “NI”ari (“ni”a oro har, edo “ni” fisikoa) dagozkion erreaktiboetan ere, subjektuek erantzunik eman gabe saihesten dituzte gaiak.

B) EKINTZARAKO, SOLUZIOAK BILATZEKO JOERA HANDIAGOA (05-FAKTOREA). Arazoei irtenbidea emateko jarrera; jarrera aktiboa, hainbat egoeratan:

- Hondoratzearen ondoren uhartean sortutako arazoetan, ez da erreakzio iheskor edo saiheskorrik ageri.

- Zibilizazioari buruzko gaietan, ekintzaren subjektutzat gizabanakoa bera duten ekintza-erantzunak; ekintzaren protagonista gizabanakoa bera da: "ikus", "joan", "lan asko egin".

- Gizarte naturalari loturiko gaietan ere, ekintza-erantzunak ematen dituzte, adibidez, "ez jan", "neuk egin", "neure burua babestu", "lan egiten dudala", "alde egingo dut", "korrika ihes egin".

- Mundu-sistemari buruz ere, mota bereko erantzunak ematen dituzte: ekintza-erantzunak. Adibidez: "patuari aurre egin behar zaiola", "nik egin nahi dut", "ikasi".

- Gauza bera gertatzen da atazei buruz ("ongi egin", "laguntzen dudala", "ikasi", "bihar hobeto egingo dut", "etxeko lanak egin", "aurrera jarraitu"), araei buruz ("zein tuntuna naizen", "esklabo bat naizela", "burua galtzen dudala") eta mundu-sistemari buruz ("hori da bakea", "bizitzan", "Jainkoarengan", "besteekiko maitasunean", "pobrezia").

C) GIZARTEAREN BALIOESPEN NEGATIBOAGOA ETA EZ HAIN IDEALISTA (11-FAKTOREA). Faktore honek islatzen duen joeraren arabera, subjektuek ez dituzte egiten errealitateari buruzko

balioespen positibo eta idealistak; planteamendu erreferentzialak errealistagoak izan daitezke.

-Gizarteari oro har dagozkion errektiboetan, erantzunak ez dira kutsu idealistakoak, ezta joera positibokoak ere. Honako adibide hauek adierazten dutenaren kontrako joerako erantzunak dira: “polita dela lan egitea”, “dagoen gauzarik onena dela”, “gaizki dagoela”, “zoragarria dela”, “oso polita dela”.

-Era berean, faktorea zeinu negatiboz ageri denez, gizarte-errealitate orokorrarekiko jarrera ez oso aktiboa eta errealitateari aurre egiteko jarrera ez oso nabaria adierazten dute erantzunek. Zibilizazioari, mundu-sistemari, atazari eta abarri buruzko errektiboetan, honako hauen kontrako zeinuko erantzunak: “ikusi”, “joan”, “lan asko egin”, “ez jan”, “neuk egin”, “neure burua babestu”, “lan egiten dudala”, “alde egingo dut”, “korrika ihes egin”, “patuari aurre egin behar zaiola”, “nik egin nahi dut”, “ikasi”.

D) PLANTEAMENDU EZ HAIN GOGOETATSUAK ETA EMOZIOEN GAINEKO KONTROLIK EZA (19-FAKTOREA). Erreakzio gogoetatsurako joera txikiagoa, emozioei amore emateko joera.

-Beldur-sentimenak eta amorrusentimenak adierazteko errektiboetan, jazarpena eta norberaren kaltea adierazten duten erantzunak ageri dira. Era berean, txabola suntsituta dagoela

ikustean, emozioen kontrolik eza adierazten duten erreakzioak gertatzen dira, “haserretu egingo naiz”, “etsita”, “etsipenak hartuta”, “nire onetik ateratzen nau” motako erantzunek adierazten dutenez.

-Gizarte naturalari buruzko erreaktiboetan, balioespen-erantzun negatiboak eta ez oso gogoetatsuak ageri dira, honako adibide hauek adierazten dutenaren kontrakoak: “polita dela lana egitea”, “dagoen gauzarik onena dela”, “zoragarria dela”, “oso polita dela”, “liluragarria dela”, “zertan datza?”, “zer azalpen ematen dut?”, “zer ondorio dakar?”, “zerekin lotuta dago?”.

Aurreko taldean bezala, hemen ere agerikoa da familia-egituraren presentzia; aita euskaldunak gainerako taldeetan baino autokontrol, idealismo eta “izan behar” normatibo handiagoa ematen du.

Oro har, lehenengo lau talde kulturei dagokienez – ñabardurak ñabardura, laurak euskal kultura-giroan txertatuta dauden taldeak direla esan dezakegu–, pentsamendu-antolaketan emozioen gaineko kontrol eta independentzia handiagoa dute subjektuek, eta ez da ageri desoreka emozionalei loturiko elementurik. Aipatzekoak dira familia-egituraren araberako ñabardurak: ama euskaldunaren irudiak subjektuak ekintzara bultzatzen dituela dirudi, irmotasun handiagoa ematen du, gainerakoetan inhibizio eta anbiguotasun handiagoa dute; era

berean, aita euskaldunak planteamendu gogoetatsuagoa, herabetasun handiagoa eta pentsamendu arautzaileagoa dakar.

Aipatzekoak dira, halaber, 1. talde kulturalari gainerako taldeekin alderatuta hizkuntzak dakarzkion ñabardura bereizgarriak.

4.1.5. TAULA. 2. FAKTORIALA: 5. TALDE KULTURALA
(Bizkaian jaiotako haurrak, guraso etorkin ez-euskaldunen seme-alabak)

FAKTORE ESANGURATSUAK (5 VERSUS 9)	5 vs. 9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
A) "NI"ari ETA BESTEEI BURUZKO OMISIO GEHIAGO (01-FAKTOREA)	5	60	58,05	1	5,619	,018
	9	364	48,67	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
B) JARRERA ERAIKITZAILERAKO, JARRERA ETIKORAKO JOERA TXIKIAGOA (02-FAKTOREA)	5	60	41,97	1	5,595	,018
	9	364	51,32	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
C) GIZARTEARI BURUZKO BALIOESPEN NEGATIBOAGOA ETA EZ HAIN IDEALISTA (11- FAKTOREA)	5	60	36,98	1	15,013	,000
	9	364	52,15	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
D) ZIBILIZAZIOARI BURUZKO ESZEPTIZISMOA (17- FAKTOREA)	5	60	58,28	1	5,954	,015
	9	364	48,63	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
E) PLANTEAMENDU EZ HAIN GOGOETATSUAK ETA EMOZIOEN GAINEKO KONTROLIK EZA (19- FAKTOREA)	5	60	37,00	1	14,974	,000
	9	364	52,14	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
F) PENTSAMENDU ANALITIKOA ETA GIZARTE- TOLERANTZIA (23- FAKTOREA).	5	60	59,42	1	7,726	,006
	9	364	48,45	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

5. talde kulturalak –gurasoak etorkinak dituzten, Euskadin jaiok diren eta *Taginasteko* galderei gaztelaniaz erantzun dieten haurren taldeak– honako ezaugarri bereizgarri hauek ditu, gainerako zazpi talde kulturaletako hurrekin alderatuta:

A) “NI”ari ETA BESTEEI BURUZKO OMISIO GEHIAGO (01–FAKTOREA). Norberarekin eta besteekin zerikusia duten gaiiei aurre egiteko ezintasuna, eta, beraz, gai horiei ihes egiteko joera.

-BESTEEI (besteak oro har, familia, maitasuna eta adiskidetasuna) dagozkien erreaktiboetan, subjektuek ez diete gaiiei aurre egiten, ez dute erantzuten, ihes egiten diete planteatutako auziei.

-Ildo beretik, “NI”ari (“ni”a oro har, edo “ni” fisikoa) dagozkion erreaktiboetan ere, subjektuek erantzunik eman gabe saihesten dituzte gaiak.

B) JARRERA ERAIKITZAILERAKO, JARRERA ETIKORAKO JOERA TXIKIAGOA (02–FAKTOREA). Heriotza eta besteek sortutako gaizkia tartean direnean, arbuio-erantzun gutxiago; pertsonen arteko harremanetan sortzen diren gatazketan oldarkortasuna, eraso eta biolentzia saihesteko eta gatazkek gainditzera bideratuko jarrera eraikitzaileak hartzeko joera txikiagoa:

- Amorrue-emozioei eta beldur-emozioei loturiko errektiboetan, subjektuek ez dute erantzunik ematen heriotzari edo beste pertsona batzuek sortutako gaizkiari buruz; ez da ageri "heriotza", "drogazaleak", "Joana", "bortxatzailea"... motako erantzunik.

- Pertsonen arteko liskarrei dagokienez ere, ez da ageri ekintza positiboko erantzunik, eta ez dute garatzen gatazkak gainditzera bideratutako jokabiderik edo tolerantziatzko eta laguntzatzko jokabiderik; ez da ageri "baztertu egingo dut", "saihestu egingo dut", "ez dut joko", "lagundu egingo diot" motako erantzunik.

C) GIZARTEARI BURUZKO BALIOESPEN NEGATIBOAGOA ETA EZ HAIN IDEALISTA (11-FAKTOREA). Faktorearen joera errealtateari buruzko balioespen positiborik edo idealistarik ez egitekoa da; planteamendu erreferentzialak errealistagoak izan daitezke.

- Gizarteari oro har dagozkion errektiboetan, erantzunik ez dira kutsu idealistakoak, ezta positiboak ere. Honako adibide hauek aditzera ematen dutenaren kontrako erantzunik: "polita dela lana egitea", "dagoen gauzarik onena dela", "gaizki dagoela", "zoragarria dela", "oso polita dela".

- Era berean, faktorea zeinu negatiboz ageri denez, gizarte-errealtate orokorrari aurre egiteko jarrera ez da oso aktiboa. Zibilizazioari, mundu-sistemari, atazari eta abarri buruzko errektiboetan, era honetako kontrakoak dira erantzunik: "ikus",

“joan”, “lan asko egin”, “ez jan”, “neuk egin”, “neure burua babestu”, “lan egiten dudala”, “alde egingo dut”, “korrika ihes egin”, “patuari aurre egin behar zaiola”, “nik egin nahi dut”, “ikasi”..

D) ZIBILIZAZIOARI BURUZKO ESZEPTIZISMOA (17-FAKTOREA). Zibilizazioari eta arauari loturiko gaietan, era neutro eta eszeptikoan pentsatzeko joera.

- Zibilizazioari eta arauari buruzko erreaktiboetan, subjektuaren erantzunak ez dute adierazten egoerarekiko inplikaziorik. “Normala da”, “egia da”, “bai”, “arauak dituen hiri bat” motako erantzunak.

E) PLANTEAMENDU EZ HAIN GOGOETATSUAK ETA EMOZIOEN GAINEKO KONTROLIK EZA (19-FAKTOREA). Erreakzio gogoetatsurako joera txikiagoa, emozioei amore emateko joera.

- Beldur-sentimenak eta amorrusentimenak adierazteko erreaktiboetan, jazarpena eta norberaren kaltea adierazten duten erantzunak. Era berean, txabola suntsituta dagoela ikustean, emozioen kontrolik eza adierazten duten erreakzioak gertatzen dira; “haserretu egingo naiz”, “etsita”, “etsipenak hartuta”, “nire onetik ateratzen nau” motako erantzunak ageri dira.

-Gizarte naturalari buruzko erreaktiboetan, balioespen-erantzun negatiboak eta ez oso gogoetatsuak ageri dira, honako adibide hauek adierazten dutenaren kontrakoak: “polita dela lana egitea”, “dagoen gauzarik onena dela”, “zoragarria dela”, “oso polita dela”, “liluragarria dela”, “zertan datza?”, “zer azalpen ematen dut?”, “zer ondorio dakar?”, “zerekin lotuta dago?”.

F) PENTSAMENDU ANALITIKOA ETA GIZARTE-TOLERANTZIA (23-FAKTOREA). Ingurune naturalari eta sozialari buruz balioespen gutxi egiteko joera, azterketa analitikoa eta gogoetatsua. Era berean, pentsamendu tolerantea, pertsonen arteko gatazka-egoeretan.

-Zibilizazioari, gizarteari eta mundu naturalari buruzko erreaktiboetan, pentsamendu analitikoa; errealitatearen alderdi zehatzei buruzko balioespen-proposizio deskribatzaileak, subjektuaren gogo-aldatearen adierazpenik eta inplikatzeko ekintzarik ez dakartenak.

-Tolerantzia versus borrokarako grina, pertsonen arteko harremanetan: “utzi egingo dut”, “ez naiz joango, eta kito”, “itsasoan gelditu”, “beste itsasertz batera abiatu”, “berriro itsaso itsas zabalera joan”, “jaramonik egin gabe aurrera jo”.

Aurreko bloke kulturalekin alderatuta, berrikuntza nabariena zibilizazioari buruzko eszeptizismo nabariagoa da; etorkin izatearekin lotu daiteke ezaugarri hori. Bestalde, haur

euskaldunekiko kultura-elementu komun batzuk ere badira, adibidez, pentsamendu analitikoa eta tolerantia, eta gaizkiari buruzko jarrera etikorik eza.

Aipatzekoak dira, orobat, gogoeta-elementurik eza eta “besteekin ez sartzeko” jarrera, dirudenez, aita euskaldunak ematen dituen ezaugarriak.

4.1.6. TAULA. 2. FAKTORIALA: 6. TALDE KULTURALA
(Bizkaitik kanpo jaiotako haurrak, guraso etorkin ez-euskaldunen seme-alabak, Bizkaian eskolatuak)

FAKTORE ESANGURATSUAK (6 VERSUS 9)	6 vs. 9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
A) JARRERA PASIBO, OTZAN EDO IHESKORRAGOIA (03- FAKTOREA)	6	60	60,47	1	9,587	,002
	9	364	48,27	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
B) JARDUTEKO, SOLUZIOAK BILATZEKO JOERA TXIKIAGOIA (05-FAKTOREA)	6	60	38,88	1	10,846	,001
	9	364	51,83	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
C) INPLIKAZIOA ETA ERREALITATEARI EZ IHES EGITEA (18-FAKTOREA)	6	60	57,00	1	4,235	,040
	9	364	48,85	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
D) MUNDU-SISTEMARI LOTURIKO PENTSAMENDU ARAUTZAILEAGOIA (20- FAKTOREA)	6	60	60,38	1	9,431	,002
	9	364	48,29	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

6. talde kulturalak –gurasoak etorkinak dituzten, Euskaditik kanpo jaiotako diren, Bizkaian eskolatuta dauden, Euskadin bizitzen hiru-bost urte bitarte daramatzaten eta *Taginasteko* galderari gaztelaniaz erantzun dieten haurren taldeak– honako ezaugarri

bereizgarri hauek ditu, gainerako zazpi talde kulturaletako haurrekin alderatuta:

A) JARRERA PASIBO, OTZAN EDO IHESKORRAGOA. Abentura edo arriskua saihesteko joera, bereziki ezer ez egiteko, otzantasunerako, iheserako edo erregurako jarrerak, gatazka sortzen dieten pertsonen dagokienez, jarrera agresibo edo oldarkorra hartu ordez:

- Abenturari buruzko aurrerapena eragiten duten erreaktiboetan (“horixe nahi nuke, beste ezer baino gehiago”, “ez nuke gogoratu nahi...”), subjektuak ez du erantzuten ekintzara bideratutako jokabideak adieraziz eta egoera negatiboak aurreratzen ditu.

- Pertsonen arteko gatazketan, ezer ez egiteko, otzantasunerako, iheserako edo erregurako jarrerak hartzen ditu gatazka sortzen duen eragilearekiko. Adibidez: “utzi egingo dut”, “alde egingo dut”, “igerian jarraituko dut, beste bat aurkitu arte”, “haiei emango diet”, “beste bat bilatuko dut”, “eramaten utziko diet”, “atzerantz joango naiz”.

B) JARDUTEKO, SOLUZIOAK BILATZEKO JOERA TXIKIAGOA (05-FAKTOREA). Arazoei soluzioa bilatzeko jarrera ez oso nabaria; jarrera pasiboa, hainbat egoeratan:

- Hondoratzearen ondoren uhartean sortutako arazoetan, erreakzio iheskor edo saiheskorak ageri dira.

- Zibilizazioari buruzko gaietan, ez da ageri ekintzaren subjektutzat gizabanakoa bera duten ekintza-erantzunik, ekintzaren protagonista gizabanakoa bera den ekintza-erantzunik. Honako hauen kontrako zentzuko erantzunak dira: "ikus", "joan", "lan asko egin".

- Gizarte naturalari loturiko gaietan ere ez dute ematen ekintza-erantzunik, ez dute ematen "ez jan", "neuk egin", "neure burua babestu", "lan egiten dudala", "alde egingo dut", "korrika ihes egin" motako erantzunik.

- Mundu-sistemari buruz ere, mota bereko erantzunak ematen dituzte: ez dira ekintza-erantzunik, ez dira "patuari aurre egin behar zaiola", "nik egin nahi dut", "ikasi" motako erantzunak.

- Gauza bera gertatzen da ondoren aipatuko ditugun gaiei buruzko erreaktiboetan, eta adibide gisa aipatzen ditugun erantzunen kontrako zeinuko erantzunak dira nagusi: atazei buruzkoetan ("ongi egin", "laguntzen dudala", "ikasi", "bihar hobeto egingo dut", "etxeko lanak egin", "aurrera jarraitu"), araei buruzkoetan ("zein tuntuna naizen", "esklabo bat naizela", "burua galtzen dudala") eta mundu-sistemari buruzkoetan ("hori da bakea", "bizitzan", "Jainkoarengan", "besteekiko maitasunean", "pobrezia").

C) INPLIKAZIOA ETA ERREALITATEARI EZ IHES EGITEA. Subjektuak ez du errealitateari ihes egiteko joera, errealitatean inplikatzekoa baizik; balioespen zehatzak egiten ditu eta gatazka-egoerei aurre egiten die.

- Mundu-sistemari eta zibilizazioari dagozkion erreaktiboetan, subjektuak errealitatearen alderdi jakinei buruzko proposamen deskribatzaileak egiten ditu, ez-balioespenezkoak, eta baita balioespen zehatzak ere, positiboak, negatiboak nahiz neutroak.

- Egoerak aurreratzeari loturiko erreaktiboetan (“korronteak arrastaka narama uharte mortu batera...”), subjektuaren ekintza ez da ihes egitera bideratua, eta adibide hauen kontrako erantzunak ematen ditu: “buelta bat ematera joango nintzateke”, “joan egingo naiz”, “itsasontziren bat etorri zain gelditu behar dut”, “itsasertzean zain egon”, “jan”.

D) MUNDU-SISTEMARI LOTURIKO PENTSAMENDU ARAUTZAILEAGOA (20-FAKTOREA). Ez dagoenez “ni”ari buruz hobera egiteko desiorik (gaitasunetan, alderdi fisikoan, autokontrolan eta gizarte-arloan), “izan behar” motako pentsamendu arautzailea eta mundu-sistemari, zibilizazioari eta beste munduari buruz hobetzeko nahia agertzen dira.

- Hala, “ni”aren alderdiei dagozkien erreaktiboetan, erantzunak era honetakoak dira: “gainditu”, “nota onak atera”, “handitan

irakaslea izango naizela”, “pertsona zintzoa izango naizela”, “ongi nagoela”, “txera”, “maitasuna”.

- Munduari buruzko erantzunetan, aldiz, araurako joera nabari da, eta hobetzeko desioa. Adibidez: “hobetu egin beharko litzatekeela”, “berdintasuna beharko litzatekeela”, “batzuetan gaizki dabilzanak gogoan izan behar ditugula, haiei laguntzeko”, etab.

Ezaugarrien artean, aipatzekoa da jarrera aktiboa; euskal kultura-giroaren ezaugarria da, dirudienez, gainerako giroetan ageri ez dena. Etorकिनен seme-alabek –orain kokatuta dauden ingurunetik kanpoko kultura-elementu batzuk gorde dituzte, nahiz eta inguruneko errealitatearekiko inplikazioa oso agerikoa den– jarrera pasiboagoa eta otzanagoa dute, oro har, konponbideak bilatzeko jarrera hartu gabe. Era berean, logikari jarraituz, pentsatzekoa da elementu arautzailea nabariagoa izango dela etorkinen artean, kontuan hartuta kultura-giro jakin batetik irten eta oso bestelako beste giro batean txertatu behar izan dutela.

4.1.7. TAULA. 2. FAKTORIALA: 7. TALDE KULTURALA
(kantabriar haurrak)

FAKTORE ESANGURATSUAK (7 VERSUS 9)	7 vs. 9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
A) PENTSAMENDU NEUTRO ETA ZEHAZTUGABERAKO JOERA TXIKIAGOA (09– FAKTOREA)	7	60	40,55	1	7,782	,006
	9	364	51,56	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
B) “NI” FISIKO POSITIBOAGOA ETA IHESERAKO JOERA TXIKIAGOA (10–FAKTOREA)	7	60	41,17	1	6,784	,010
	9	364	51,46	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
C) HIPER–ARRAZIONALITATE	7	60	56,72	1	3,896	,049

ERAIKITZAILEA (16-FAKTOREA)	9	364	48,89	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
D) PLANTEAMENDU GOGOETATSUAGOAK – VERSUS EMOZIOEN GAINEKO KONTROLIK EZA–, KRITIZISMORIK EDO OIHARTZUN NEGATIBORIK GABE (19–FAKTOREA)	7	60	59,55	1	7,951	,005
	9	364	48,43	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

7. talde kulturalak –*Taginasteko* galderei gaztelaniaz erantzun dieten santandertar haurren, eta, beraz, beste kultura batekoak izan arren Euskadikoaren antzeko ingurune geografiko eta hurbil batean jaiok diren haurren taldeak– honako ezaugarri bereizgarri hauek ditu, gainerako zazpi talde kulturaletako hurrekin alderatuta:

A) PENTSAMENDU NEUTRO ETA ZEHAZTUGABERAKO JOERA TXIKIAGOA (09–FAKTOREA). Subjektuak “ni”ari, besteei eta mundu naturalari buruz balioespen-deskribapenak eta deskribapen zehatzak –balioespen positibokoak (nahiz negatibokoak)– egiteko joera du.

- “NI”ari eta besteei buruzko erreaktiboetan, subjektuak balioespen definitua adierazten duten erantzunak ematen ditu.

- Mundu naturalari buruzko galderetan, subjektuaren gogoaldartearen adierazpena eta inplikatzeko ekintza dakarten balioespen-proposizio deskribatzaileak egiten ditu. Adibide hauen

kontrako zeinuko erantzunak: “landareetan”, “natura dela”, “baso bat dela”, “mundua”, “animalietan”.

- “Ni” orokorrari dagozkion erreaktiboetan, deskribapen jakinak eta balioespen zehatzak egiten ditu.

B) “NI” FISIKO POSITIBOAGOA ETA IHESERAKO JOERA TXIKIAGOA (10-FAKTOREA). Norberaren itxura fisikoari eta osasunari buruzko kezka txikiagoa, eta horiei buruzko balioespen positiboak egiteko joera. Arazoetan eta gatazka-egoeretan, ez da joera iheskor nabaririk.

- “Ni” fisikoari buruzko erreaktiboan, balioespen positiboko erantzunak.

- Lorpenak aurreratzeari buruzko erreaktiboetan (txalupa hondoratzea, barazkirik ez ateratzea), subjektuak amore ematearen eta ahalegina bertan behera uztearen kontrako jarrerak hartzen ditu, gatazka konpontzeari dagokionez. Honako adibide hauek adierazten dutenaren kontrako erantzunak: “hortxe geldituko naiz”, “ez nuke egingo”, “amore emango dut”, “nire bila etortzen diren arte zain geldituko naiz”, “nire patuari amore ematea erabaki dut”, “ez dut beste bat egingo”, “ez naiz txalupak egiten hasiko”.

C) HIPER-ARRAZIONALITATE ERAIKITZAILEA (16-FAKTOREA). Errealitateari buruz deskribapenak egiteko eta informazioa egiaztatzeke joera, balioespenik egin gabe, balioespen-

elementu positibo eta eraikitzaileekin nahastuta, norberaren “ni” fisikoari dagokionez eta pertsonen arteko harremanari dagokionez.

- Lorpenak egiaztatzeari dagozkion erreaktiboetan (“barazkiak landu ditut...”), errealitateari buruzko informazioa egiaztatzeko deskribapenak ageri dira. Adibidez: “hilik daude”.

- “Ni” fisikoari buruzko erreaktiboetan, konparazio fisikoa eta hobetzeko joera adierazten duten erantzunak. Adibidez: “beste guztiak bezalakoxea naizela”, “ez naizela oso polita, baina ez eta itsusiena ere”.

- Pertsonen arteko gatazka planteatzen duten erreaktiboetan, ekintza positiboak ageri dira: subjektuak jarrera eraikitzaileak lantzen ditu planteatutako gatazka konpontzeko. Adibidez: “baztertu egingo dut”, “saihestu egingo dut”.

D) PLANTEAMENDU GOGOETATSUAGOAK –VERSUS EMOZIOEN GAINEKO KONTROLIK EZA–, KRITIZISMORIK EDO OIHARTZUN NEGATIBORIK GABE (19–FAKTOREA). Erreakzio gogoetatsuagorako joera, emozioei amore eman gabe, eta jarrera tolerantea eta emozioen gaineko kontrol handiagoa.

- Beldur-sentimenak edo amorrusentimenak adierazteko erreaktiboetan, ez dira ageri jazarpena edo norberaren kaltea adierazten duten erantzunak. Era berean, txabola suntsituta dagoela ikustean, ez da kontrolik gabeko erreakzioa gertatzen, erantzunak

ez dira “haserretu egingo naiz”, “etsita”, “etsipenak hartuta”, “nire onetik ateratzen nau” motakoak.

-Gizarte naturalari buruz, naturari buruzko identifikazio eta inplikazio positiboa adierazten duten erantzunak ageri dira. Adibidez: “polita dela lana egitea”, “zein itsusia”, “dagoen gauzarik onena dela”, “gaizki dagoela”, “zoragarria dela”, “oso polita dela”, “zein txarra eta deserosoa den hau”, “liluragarria dela”, “gaiztoak direla”, “hau zorigaitza”, “hau hondamena”, “zein ederki dabilzan”, “zein aske diren”.

-Era berean, erreaktiboak berak eragindako gogoeta- eta interpretazio-erantzunak ageri dira, nagusiki. Adibidez: “indiarren film batean nagoela”, “Historiaurrea dela”, “zein pobreak diren”, “denak garela haien ondorengo”, “zein atzeratuta dauden”, “herri alaia dela”, “ez dutela gerta daitekeenari buruzko kezkarik”, “tradizio kontua da”, “gizon horiek ez dira modernizatzen”, “beste bizimodu bat da”.

Aipatzekoa da haur euskaldunekin bat datorrela gogoetarako azken ezaugarri hori, agian penintsularen iparraldeko inguruneari lotuagoa bide dena. Edonola ere, elementu bereizgarriak norberaren itxura fisikoaren ikuspegi ez hain negatiboa eta pentsamendu zehatzagoa dira.

4.1.8. TAULA. 2. FAKTORIALA: 8. TALDE KULTURALA
(kanariar haurrak)

FAKTORE ESANGURATSUAK (8 VERSUS 9)	8 vs. 9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
A) JARRERA ERAIKITZAILERAKO, JARRERA ETIKORAKO JOERA HANDIAGOA (02-FAKTOREA)	8	60	62,77	1	14,423	,000
	9	364	47,90	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
B) JARRERA PASIBO, OTZAN EDO IHESKORRERAKO JOERA TXIKIAGOA (03-FAKTOREA)	8	60	38,02	1	12,656	,000
	9	364	51,98	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
C) ZEHAZTUGABETASUN ETA HARRIDURA PERTSONAL HANDIAGOA (06-FAKTOREA)	8	60	60,40	1	9,462	,002
	9	364	48,29	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
D) E) AUTOKONTROL POSITIBO ETA ERREALITATEAREN BALIOESPEN POSITIBO NABARIAGOA (07-FAKTOREA)	8	60	40,85	1	7,287	,007
	9	364	51,51	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
E) BESTE MUNDUARI BURUZKO ZIRRARARIK EZA (22-FAKTOREA)	8	60	41,85	1	5,761	,017
	9	364	51,34	422		
	Guzt.	424	50,00	423		
F) PENTSAMENDU ANALITIKORAKO ETA GIZARTE-TOLERANTZIARAKO JOERA TXIKIAGOA (23- FAKTOREA)	8	60	35,28	1	19,383	,000
	9	364	52,43	422		
	Guzt.	424	50,00	423		

Azkenik, 8. talde kulturalak –*Taginasteko* galderari gaztelaniaz erantzun dieten kanariar haurren, eta, beraz, beste kultura batekoak diren eta Euskadiko inguruneaz bestelako eta urruneko ingurune geografiko batekoak diren haurren taldeak– honako ezaugarri bereizgarri hauek ditu, gainerako zazpi talde kulturaletako haurrekin alderatuta:

A) JARRERA ERAIKITZAILERAKO, JARRERA ETIKORAKO JOERA HANDIAGOA (02-FAKTOREA). Heriotza eta besteek sortutako gaizkia tartean direnean, arbuio-erantzun gehiago; pertsonen arteko harremanetan sortzen diren gatazketan oldarkortasuna, eraso eta biolentzia saihesteko eta gatazkek gainditzera bideratuko jarrera eraikitzaileak hartzeko joera:

- Amorruei eta beldur-emozioei loturiko errektiboetan, subjektuek heriotzari edo beste pertsona batzuek sortutako kalteari buruzko erantzunak ematen dituzte; "heriotza", "drogazaleak", "Joana", "bortxatzailea" ... motako erantzunak.

- Pertsonen arteko liskarrei dagokienez, ekintza positiboko erantzunak ageri dira, eta gatazkek gainditzera bideratutako jokabideak edo tolerantziatzeko eta laguntzazko jokabideak garatzen dituzte; "bartzertu egingo dut", "saihestu egingo dut", "ez dut joko", "lagundu egingo diot" motako erantzunak ageri dira.

B) JARRERA PASIBO, OTZAN EDO IHESKORRERAKO JOERA TXIKIAGOA (03-FAKTOREA). Abentura edo arriskua hartzeko joera, bereziki jarrera agresibo edo oldarkorra, gatazka sortzen dieten pertsoneri dagokienez, ezer ez egiteko, otzantasunerako, iheserako edo erregurako jarrerak hartu ordez:

- Abenturari buruzko aurrerapena eragiten duten errektiboetan ("horixe nahi nuke, beste ezer baino gehiago", "ez nuke gogoratu nahi..."), subjektuak ekintzara bideratutako

jokabideak adieraziz erantzuten du eta egoera negatiboak aurreratzen ditu.

- Pertsonen arteko gatazketan, ez ditu hartzen ezer ez egiteko, otzantasunerako, iheserako edo erregurako jarrerak gatazka sortzen duen eragilearekiko. Adibide hauen kontrako erantzunak dira nagusi: “utzi egingo dut”, “alde egingo dut”, “igerian jarraituko dut, beste bat aurkitu arte”, “haiei emango diet”, “beste bat bilatuko dut”, “eramaten utziko diet”, “atzerantz joango naiz”.

C) ZEHAZTUGABETASUN ETA HARRIDURA PERTSONAL HANDIAGOA (06-FAKTOREA). Pentsamendu neutroa eta zehaztugabea. Subjektuak deskribapen neutroak eta zehaztugabeak egiten ditu “ni”ari, besteei eta mundu naturalari buruz, kutsu gogoetatsuko erantzunak, balioespen positiborik edo negatiborik gabeak.

- Besteez oro har hitz egiten duten galderetan, subjektuak estilo modaleko erantzunak ematen ditu: tautologia, pentsamendu edo zalantzarik eza, ez-ulergarria. Adibidez: “ezer ez”.

- “Ni” orokorrari buruzko zehaztasunik eza eta zehaztugabetasuna, balioespenik gabeko erantzunak, esanahirik gabeko edo esanahi anbiguoko estilo modala.

D) E) AUTOKONTROL POSITIBO ETA ERREALITATEAREN BALIOESPEN POSITIBO NABARIAGOA (07-FAKTOREA).

Norberaren ahalmenaz eta errealtateaz oro har balioespen positiboa egiteko joera, eta nor bere burua era eraginkorrean kontrolatzeko gaitasuna.

- "Ni"aren autokontrolari buruzko erreaktiboetan, erantzun modal positiboak nahiz negatiboak ageri dira (analisiak, zeinu negatiboz: "ongi nago", "negatiboa" (-).

- Era berean, gizarteari oro har dagozkion erreaktiboetan, kutsu idealistako erantzunak ageri dira, eta oso balioespen positiboak: "polita dela lan egitea", "dagoen gauzarik onena dela", "gaizki dagoela", "zoragarria dela", "oso polita dela".

E) **BESTE MUNDUARI BURUZKO ZIRRARARIK EZA (22-FAKTOREA)**. Beste munduari, beste bizitzari edo ezagutzen ez dutenari dagozkion gaietan, subjektuak ez dira harritzen, asaldurarik edo zirrarak gabe erreakzionatzen dute, eta kezka edo jakin-mina erakusten duten sentimenak adierazten dituzte.

- Ezagutzen ez dutenari buruzko galderetan, erantzunek ez dute adierazten harridurarik edo zirrarak. Adibidez: "hotzikara ematen didala", "tristea dela", "jakin-mina", "ezagutu nahiko nukeela".

F) **PENTSAMENDU ANALITIKORAKO ETA GIZARTE-TOLERANTZIARAKO JOERA TXIKIAGOA (23-FAKTOREA)**. Ingurune naturalari eta sozialari buruzko balioespenak, azterketa

analitikorik eta gogoetatsurik gabeak. Era berean, tolerantzia urria pertsonen arteko gatazka-egoeretan.

- Zibilizazioari, gizarteari eta mundu naturalari buruzko erreaktiboetan, pentsamendu analitikorako joera txikia, balioespen-proposizioak, subjektuaren gogo-aldartearen adierazpena eta inplikatzeke ekintza dakartenak.

- Borrokarako grina versus tolerantzia, pertsonen arteko harremanetan. Honako adibide hauen kontrako zeinuko erantzunak: “utzi egingo dut”, “ez naiz joango, eta kito”, “itsasoan gelditu”, “beste itsasertz batera abiatu”, “berriro itsaso itsas zabalera joan”, “jaramonik egin gabe aurrera jo”.

**4.1.9. Taula. *Taginaste* (item irekiak), laburpena:
faktore esanguratsuak vs. talde kulturalak**

TALDE KULTURALA ⇒	T. K. 1	T. K. 2	T. K. 3	T. K. 4	T. K. 5	T. K. 6	T. K. 7	T. K. 8
01-FAKTOREA: “NI”aren ETA BESTEEN OMISIO GUTXIAGO	-			+	+			
02-FAKTOREA: JARRERA ERAIKITZAILERAKO, JARRERA ETIKORAKO JOERA TXIKIAGOA	-				-			+
03-FAKTOREA: JARRERA PASIBO, OTZAN EDO IHESKORRAGOA						+		-
04-FAKTOREA: INHIBIZIO GUTXIAGO, GATAZKETAN	-							
05-FAKTOREA: JARDUTEKO, SOLUZIOAK BILATZEKO JOERA HANDIAGOA	+			+		-		

06-FAKTOREA: ZEHAZTUGABETASUN ETA HARRIDURA PERTSONAL HANDIAGOA									+
07-FAKTOREA: AUTOKONTROL POSITIBO ETA ERREALITATEAREN BALIOESPEN POSITIBO NABARIAGOA	+								-
08 FAKTOREA: PENTSAMENDU SAKABANATUA ETA ZABALA									
09-FAKTOREA: PENTSAMENDU NEUTRO ETA ZEHAZTUGABERAKO JOERA HANDIAGOA			+					-	
10-FAKTOREA: "NI" FISIKO POSITIBOAGOA ETA IHESERAKO JOERA TXIKIAGOA			-					-	
11-FAKTOREA: GIZARTEARI BURUZKO BALIOESPEN POSITIBOAGOA ETA IDEALISTAGOA		+		-	-				
12-FAKTOREA: AUTOKONTROL AKTIBO HANDIAGOA, ETA KANPOKO TESTUINGURUAREKIKO INDEPENDENTZIA HANDIAGOA		+							
13 FAKTOREA: EGOEREN AURREKO DISOZIAZIOA ETA AURRERATZE ABERTSIBOA									
14 FAKTOREA: AURRE EGITEKO ETA ERAIKITZEKO ZAILTASUNA									
15-FAKTOREA: ERREAKZIO BARERAKO (VERSUS ERREAKZIO NAHASIA) ETA ARAUAK BETETZEKO JOERA TXIKIAGOA	-		+						
16-FAKTOREA: HIPER- ARRAZIONALITATE ERAIKITZAILEA								+	
17-FAKTOREA: ZIBILIZAZIOARI BURUZKO ESZEPTIZISMO GUTXIAGO		-			+				

18-FAKTOREA: IHESA, ERREALITATEAREKIKO INPLIKAZIORIK EZA	-					+		
19-FAKTOREA: PLANTEAMENDU GOGOETATSUAGOAK -VERSUS EMOZIOEN GAINEKO KONTROLIK EZA-	+			-	-		+	
20-FAKTOREA: MUNDU-SISTEMARI LOTURIKO PENTSAMENDU ARAUTZAILEAGOA						+		
21-FAKTOREA: ELEMENTU INTRAPUNITIBOAK		+						
22-FAKTOREA: BESTE MUNDUARI BURUZKO ZIRRARA HANDIAGOA			+					-
23-FAKTOREA: PENTSAMENDU ANALITIKORAKO ETA TOLERANTZIARAKO JOERA TXIKIAGOA	+				+			-

4.2. EMAITZAK: TAGINASTE TRESNA (ITEM ITXIAK)

Ondoren, *Taginaste* tresnaren item itxietako emaitzak deskribatzen dira (44-53 itemak). Ezkerreko lehenengo sutabeen esanguratsuak suertatu diren erantzunak agertzen dira, beti ere ezkerreko bigarren sutabeen agertzen diren talde kulturalak konparatuz (4.2.1. taula). Era berean, 4.2.2. taulan emaitza hauen laburpena aurkezten da

4.2.1. Taula. *Taginaste* (item itxiak): emaitzak

44 ITEMA: BORROKATU, NIK BORROKATUKO NUKE...	Talde Kult. 1-9		Bat. best.	lg	F	Esg.
BORROKATU: pertsona guztien onerako	1	60	,10	1	10,102	,002
	9	364	,29	422		
	Guzt.	424	,27	423		
BORROKATU: behar-beharrezkoa izanez gero	1	60	,32	1	19,128	,000
	9	364	,11	422		
	Guzt.	424	,14	423		
44 ITEMA: BORROKATU, NIK BORROKATUKO NUKE...	T.K. 2-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
BORROKATU: pertsona guztien onerako	2	60	,15	1	4,886	,028
	9	364	,29	422		
	Guzt.	424	,27	423		
44 ITEMA: BORROKATU, NIK BORROKATUKO NUKE...	T.K. 3-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
BORROKATU: lehenengo arerioaren kontra	3	32	9,38E-02	1	4,665	,031
	9	392	2,55E-02	422		
	Guzt.	424	3,07E-02	423		
44 ITEMA: BORROKATU, NIK BORROKATUKO NUKE...	T.K. 5-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
BORROKATU: norbait salbatzeko	5	60	,48	1	5,170	,023
	9	364	,33	422		

	Guzt.	424	,35	423		
44 ITEMA: BORROKATU, NIK BORROKATUKO NUKE...	T.K. 7-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
BORROKATU: pertsona guztien onerako	7	60	,53	1	26,952	,000
	9	364	,22	422		
	Guzt.	424	,27	423		
BORROKATU: norbait salbatzeko	7	60	,20	1	7,320	,007
	9	364	,38	422		
	Guzt.	424	,35	423		
44 ITEMA: BORROKATU, NIK BORROKATUKO NUKE...	T.K. 8-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
BORROKATU: nire indar guztiekin	8	60	,25	1	6,849	,009
	9	364	,12	422		
	Guzt.	424	,14	423		
45 ITEMA: BEGIAK, BEGI PILO BAT, NIK PENTSATEZN DUT...	T.K. 7-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
BEGIAK: ikusten nautela	7	60	8,33E-02	1	5,104	,024
	9	364	,21	422		
	Guzt.	424	,19	423		
45 ITEMA: BEGIAK, BEGI PILO BAT, NIK PENTSATEZN DUT...	T.K. 8-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
BEGIAK: miresten nautela	8	60	,20	1	11,399	,001
	9	364	6,87E-02	422		
	Guzt.	424	8,73E-02	423		
BEGIAK: berdin natzaiela	8	60	1,67E-02	1	4,398	,037
	9	364	9,89E-02	422		
	Guzt.	424	8,73E-02	423		
46 ITEMA: ARTAZI HANDI BATZUEKIN NIK TXIKI-TXIKI EGINGO NUKE...	T.K. 2-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
ARTAZIAK: mihi-luzeak (mihi-gaiztoak)	2	60	3,33E-02	1	6,001	,015
	9	364	,15	422		
	Guzt.	424	,13	423		
ARTAZIAK: bizimodu hau, mundu hau	2	60	,10	1	8,688	,003
	9	364	2,47E-02	422		
	Guzt.	424	3,54E-02	423		

ARTAZIAK: hipokresia eta inustizia	2	60	,10	1	10,817	,001
	9	364	,30	422		
	Guzt.	424	,27	423		
46 ITEMA: ARTAZI HANDI BATZUEKIN NIK TXIKI-TXIKI EGINGO NUKE...	T.K. 4-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
ARTAZIAK: hipokresia eta inustizia	4	32	,13	1	3,862	,050
	9	392	,29	422		
	Guzt.	424	,27	423		
46 ITEMA: ARTAZI HANDI BATZUEKIN NIK TXIKI-TXIKI EGINGO NUKE...	T.K. 7-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
ARTAZIAK: hipokresia eta inustizia	7	60	,50	1	18,740	,000
	9	364	,24	422		
	Guzt.	424	,27	423		
46 ITEMA: ARTAZI HANDI BATZUEKIN NIK TXIKI-TXIKI EGINGO NUKE...	T.K. 8-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
ARTAZIAK: mihi-luzeak (mihi-gaiztoak)	8	60	,27	1	11,286	,001
	9	364	,11	422		
	Guzt.	424	,13	423		
47 ITEMA: HERIOTZA, HIL, NORBAIT HIL, NIK NAHIAGO DUT...	T.K. 1-9	N	Bat. best.	lg	F	Esg.
HERIOTZA: gorrotatu	1	60	,50	1	14,161	,000
	9	364	,26	422		
	Guzt.	424	,30	423		
HERIOTZA: larritu	1	60	,22	1	4,911	,027
	9	364	,36	422		
	Guzt.	424	,34	423		
